



Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostena

2007/2008 ikasturtea



Nafarroako
Gobernua

Hezkuntza Sistema Nafarroan: Txostena, 2007/2008 ikasturtea.

Egilea:

Nafarroako Eskola Kontseilua. Hezkuntza Departamentua. Nafarroako Gobernua.

Legezko gordailua:

NA-1821/2000

HEZKUNTZA SISTEMA NAFARROAN: TXOSTENA, 2007/2008 ikasturtea

AURKIBIDE

AUZKEZPENA	11
1. LEGERIA	13
1.1. Garapen Legegilea	13
1.1.1. Orokorra	13
1.1.2. Administrazioa	15
1.1.3. Ikastetxeak	15
1.1.4. Langileria	23
1.1.5. Irakaskuntzak	26
1.1.6. Ikasleak	27
1.1.7. Gurasoen eta Ikasleen Elkartek	29
1.1.8. Ebaluazioa	29
1.1.9. Euskara	30
1.1.10. Unibertsitateak	31
1.2. Legegintza-iruzkinak	33
1.2.1. Ikaskuntzek Hezkuntzari buruzko Lege Organikoarekiko duten egokitzapena	33
1.2.1.1. Batxilergoa	34
1.2.1.2. DBHko 4. mailaren berrantolamendua	35
1.2.1.3. Ikasleek proposaturiko aukerako ikasgaiak	36
1.2.1.4. Hiritarren hezkuntza	36
1.2.1.5. Ebaluazio-araudia	37
2. PARLAMENTUAREN JARDUERA	39
2.1. Hezkuntzari buruzko parlamentu-jarduera, 2007ko maiatzaren 25etik 2008ko maiatzaren 25era bitartekoa	39
2.1.1. Parlamentuko osoko bilkuran azterturiko gaiak	39
2.1.2. Batzordeak azterturiko gaiak	41
3. ZERBITZU OROKORRAK	47
3.1. Administrazioa. Egiturari lotutako alderdiak	47
3.2. Hezkuntza Sistemaren Kalitatea	48
3.2.1. Ikastetxeak	48
3.2.2. Itunpeko ikastetxeak	52
3.3. Berdintasuna	53
3.4. Ikuskapena	57
3.4.1. Ikuskapen Teknikoa eta Zerbitzuak izeneko Zerbitzuaren jardueri buruzko txostena, 2007/2008 ikasturtean	57

3.4.2. Heziketa eta Hobekuntza Plana, 2007/2008 ikasturtea	57
3.5. Orientazioa.....	59
3.5.1. Orientatzaileak ikastetxe publikoetan.....	59
3.5.2. Orientatzaileak itunpeko zentroetan:.....	60
3.6. Irakasleei Laguntzeko Ikastetxeak (ILI)	61
3.6.1. Irakasleen Urteroko Heziketa Plana, 2007/2008 ikasturtea	61
3.6.2. Garaturiko heziketa-jarduerei buruzko datuak:	69
3.7. Prestakuntza Sistema Nazionalaren garapena (2007/2008).....	71
3.8. Liburutegiak eta argitalpenak.....	74
3.8.1. Eskola-liburutegien programa. Dokumentazio-zentroa	74
3.8.2. Argitalpenak.....	76
3.9. Nafarroako arartekoak hezkuntzaren arloan egindako jarduketak.....	84
3.10. Compto-en Ganberaren txostena	87
4. ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK	89
4.1. Bekak. Nafarroako Gobernuaren Deialdi Orokorra. Testuliburuak lortzeko laguntzak. Beste deialdi batzuk	89
4.1.1. Nafarroako Gobernuaren laguntza osagarri orokorrak	89
4.1.2. Testuliburuak lortzeko laguntzak	91
4.1.3. Hezkuntza Berezirako laguntzak.	91
4.1.4. Estatuko laguntzak	92
4.2. Dibertsitateko laguntza.	94
4.2.1. Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan dibertsitatearen laguntzarako dauden baliabide arruntak.....	96
4.2.2. Ikasle atzerritarrentzako laguntza.	101
4.2.3. Aldi baterako ikasleak.....	109
4.2.4. Ospitalean sarturiko ikasleak. 2007/2008 ikasturtea.....	110
4.2.5. Egoera txarreko ikasleak dituzten ikastetxe publikoei eta itunpekoei emandako diru-laguntzak.	111
4.2.6. Gizarte Bazterkeriaren aurkako Borrokarako Plana Nafarroan.....	111
4.3. Hizkuntzak ikasteko laguntza-programa derrigorrezko irakaskuntzan	112
4.3.1. Ingeleseko curriculum-espezializazioko ikastetxeak.	112
4.3.2. Eskolatik kanpoko jarduerak atzerriko hizkuntzan	112
4.3.3. Espediente akademikorik onena duten ikasleentzako laguntzak. Udako ikastaroak atzerrian.....	113
4.3.4. Hizkuntza-murgilketako ikastaroak, Lehen Hezkuntzako 5. nahiz 6. mailako eta DBHko ikasleen egoitza-ikastaroetarako (Beiren eta Irunberriko "Sierra de Leyre" egoitzan).....	113
4.3.5. Ingeleseko hizkuntza-murgilketako eguneko ikastaroak, Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 5.	115
4.3.6. Elkarrizketako laguntzaileak ikastetxe publikoetarako	115
4.3.7. Atzerriko hizkuntzako irakasleentzako laguntzak 2007ko udan.....	115
4.4. Ikasleen oinarriko gaitasunak hobetzeko planak	116
4.4.1. Lehen Hezkuntzako ikasleen hobekuntza-planak	116
4.4.2. Bigarren Hezkuntzako ikasleen hobekuntza-plana. Irakurmen Plana	118

4.5. Europar Batasuneko hezkuntza-programak	121
4.6. Eskolatik kanpoko jarduerak	125
4.6.1. Eskolatik kanpoko jarduerak	125
4.6.2. Eskola Bidaiariak:	125
4.6.3. Kultura-ibilbideak:	126
4.6.4. Literatura-ibilbideak:	126
4.6.5. Zientzia-ibilbideak:	127
4.6.6. Naturaren Ikasgelak Integrazio Programa.....	125
4.6.7. Biztanlerik gabeko herriak hezkuntzaren arloan suspertzeko eta erabiltzeko programa	127
4.7. Gurasoen Elkarteak eta Ikasleen Elkarteak	128
4.7.1. Gurasoen Elkarteak	128
4.7.2. Ikasleen elkarteak.....	139
4.8. Bizikidetzarako aholkularitza	140
4.9. Balioen hezkuntzako programak	142
4.10. Beste hezkuntza-programa batzuk	147
5. GIZA BALIABIDEAK	155
5.1. Irakaskuntzako funtzio publikoa.....	155
5.1.1. Ikastetxe publikoetako irakasle-zerrendaren bilakaera	155
5.1.2. Irakasleen administrazio-kontratazioak (aldi baterakoak)	156
5.1.3. Erljioko irakasleen kontratazioa	156
5.1.4. Funtzio publikoan sartzea eta espezialitate berriak eskuratzea, 2007/2008 ikasturtean	156
5.1.5. Lekualdatze-lehiaketak	159
5.1.6. Beste deialdi batzuk	161
5.1.7. Irakasleen ordainketen bilakaera	162
5.1.8. Erretiroak	162
5.1.9. Unibertsitatetik kanpoko irakasleen Mahai Sektoriala eta 2001eko maiatzaren 31ko aurretiazko ukapenaren epea aurreratzen da, maisuen egintza publikoetara heltzeko	163
5.1.10. Unibertsitatekoak ez diren irakasleen Segurtasun eta Osasun Batzordea	166
5.2. Itunpeko irakaskuntza-funtzioa	169
5.2.1. Langile-zerrendaren bilakaera itunpeko ikastetxeetan.....	169
5.2.2. Itunpeko irakaskuntzaren soldata-taulak	169
5.2.3. Talde-negoziazioko mahaia	171
5.2.4. Nafarroako itunpeko irakaskuntzako erakundeak	172
5.3. Administrazioko eta Zerbitzuetako langileak	173
6. IKASTETXEAK	175
6.1. Ikastetxe publikoak	175
6.1.1. Ikastetxe kopuruaren bilakaera	175
6.1.2. Unitate kopuruaren bilakaera	178
6.1.3. Gobernu-organoak	179
6.1.4. Instalazioak	181

6.1.4.1. Azpiegiturak	181
6.1.4.2. Ekipamenduak	193
6.2. Ikastetxe pribatuak-itunpekoak	196
6.2.1. Ikastetxe kopuruaren bilakaera	196
6.2.2. Unitate kopuruaren bilakaera	198
6.2.3. Taldeko gobernu-organoak	199
6.2.4. Moduluak	200
6.3. Ikasleak/Taldea ratioak	205
7. IKASLEAK	207
7.1. Haur Hezkuntza. 0-3 urteko zikloaren garapena	207
7.1.1. Gizarte Ongizate Sailaren mendeko 0-3 urteko ikastetxeak	207
7.1.2. Udalei transferitu gabeko eta Familia Zuzendaritza Nagusiak diruz lagundutako 0-3 urteko Haur Hezkuntzako ikastetxeak	207
7.1.3. Udalen mendeko Haur Hezkuntzako ikastetxeak	208
7.2. Ikasleak hezkuntza-etapen arabera	211
7.3. Lanbide Heziketako ikasleak	217
7.3.1. Arauturiko Lanbide Heziketa	217
7.3.2. Lanbide Heziketako ikastetxe integratuak	225
7.3.3. Lanerako Lanbide Prestakuntza	225
7.3.4. Lanbide Prestakuntza Iraunkorra	227
7.3.5. Lanbide Prestakuntzarako inbertsioak	228
7.4. Hezkuntza Beharrian Bereziko ikasleak	230
7.5. Hizkuntza Irakaskuntzako ikasleak	235
7.6. Arte Irakaskuntzetako ikasleak	238
7.6.1. Musika	238
7.6.2. Dantza	239
7.6.3. Plastikara Arteak eta Diseinua	239
7.7. Ikasle immigranteari	238
7.8. Pertsona Helduen Irakaskuntzetako ikasleak	246
7.8.1. Ikasketak eta ikasleak	246
7.8.2. Pertsona Helduentzako Bigarren Hezkuntza	250
7.8.3. Diru-zuzkidura	250
7.9. Ebaluazioak	251
7.9.1. Nafarroako ikasleen sustapenaren datuak (2006/2007 ikasturtea)	251
7.9.1.1. Lehen Hezkuntza	251
7.9.1.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	256
7.9.1.3. Batxilergoa	263
7.9.1.4. Lanbide Prestakuntza Berezia	266
7.9.1.5. Lanbide Hastapeneko Programa (LHP)	267
7.9.2. Hezkuntza-sistemaren emaitzak Estatuko testuinguruan	268
7.9.3. Unibertsitatean sartzeko probak	270
7.9.4. Gorapamen eta sari bereziak	273

8. EUSKARA NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMAN	277
8.1. Ikasleen banaketa hizkuntza-ereduen arabera, 2007/2008 ikasturtean.....	277
8.1.1.Nafarroako banaketa orokorra	277
8.1.2.Hezkuntza-sareen araberako banaketa	278
8.1.3.Hizkuntza-zonen araberako banaketa.....	278
8.2. Euskararen irakaskuntza garatzeko eta arautzeko jarduerak	280
8.3. Euskararen irakaskuntza irakasleei.....	283
8.3.1.Euskararen irakaskuntza	283
8.3.2.Irakasleen hizkuntza-hobekuntza.....	284
8.4. Hizkuntza indartzeko programak eta jarduera osagarriak nahiz eskolatik kanpokoak.....	286
8.4.1.Hizkuntza indartzeko programak.....	286
8.4.2.Jarduera osagarriak eta eskolatik kanpokoak.....	288
8.4.3.Eskola-lehiaketak	289
8.5. Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)	290
9. HEZKUNTZA AURREKONTUAK	291
9.1. Konparazio Datu Orokorrak	292
9.2. Hezkuntzarako Gastuak Nafarroan.	298
9.2.1.Hezkuntza Saileko gastuen aurrekontua.....	298
9.3. Partida garrantzitsu batzuen betearazpenaren bilakaera.....	329
9.3.1. Langileria (I. kapitulua)	329
9.3.2. Gastu arrunta (II. kapitulua).....	330
9.3.3. Transferentzia arruntak (IV. kapitulua).....	330
9.3.4. Inbertsioak (VI. kapitulua).....	331
9.3.5. Kapital-transferentziak (VII. kapitulua)	332
9.3.6. Geure ikastetxeen funtzionamendu-gastuak.....	332
9.4. Txosten honek aintzat hartutako urteetako KPI ofizialak	335
10. GOMENDIOAK	337

2007/2008 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko Txostena Nafarroako Eskola Kontseiluak egin zuen eta aho batez onartu zen 2008ko abenduaren 17an egindako saioan.

Saioan honako pertsonak parte hartu zuten:

Teresa Ucar Echagüe andrea

Lehendakaria

Antonio Iriarte Moncayola jauna

Idazkaria

Teresa Aranaz Jiménez andrea

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

M^a Victoria Arraiza Zorzano andrea

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria

Alberto Arriazu Agramonte jauna

Pertsona aditua

Fernando Barainca Lagos jauna

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria – FSIE-SEPNA

Manuel Casado Velardo jauna

Unibertsitateen ordezkaria – Nafarroako Unibertsitatea

María Luisa De Simón Caballero andrea

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria – CCOO

Juan Ramón Elorz Domezain jauna

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Francisco Javier Esparza Sánchez jauna

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Jesús M^a Ezponda Iradier jauna

Pertsona aditua

Francisco José Flores Pérez jauna

Enpresa-elkarteen ordezkaria

José Miguel Gastón Aguas jauna

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria - STEE-EILAS

Maximino Gómez Serrano jauna

Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Carmen M^a González García andrea

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria

José Jorge Lanchas Rivero jauna

Nafarroako ikastetxe pribatuetako erakunde titularren ordezkaria - ANEG-FERE

Luís M^a Sada Enériz jauna

Tokiko erakundeen ordezkaria

José Javier Solabre Heras jauna

Gurasoen Elkarteetako Federazioen ordezkaria – CONCAPA

AURKEZPENA

Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2008ko abenduaren 17ko osoko bilkuran, Nafarroako hezkuntza-sistemaren 2007/2008 ikasturteko egoerari buruzko txosten hau onetsi zuen. Horrela, bete egin du Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Goi Batzordea arautu duen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeko 11.1 artikuluan ezarritako legezko agindua.

Txostenaren denbora-erreferentzia 2007ko irailaren 1ean hasi eta 2008ko abuztuaren 31n amaitzen da (ikasturtearen hasiera eta amaiera formala adierazten duten egunak). Hala eta guztiz ere, zenbait kasutan gainditu egiten dira ikasturte-erreferentzia edo adierazitako denbora-mugak. Horrela, lehenengo atalean (Nafarroako Aldizkari Ofizialean edo Estatukoan argitaraturiko arauzko xedapenak jasotzen dituen atala), txostenean aipaturiko ikasturtearen hurrengo ikasturteari buruzko arauak egon daitezke, txostena ikasturtearen hasiera formala baino lehenago argitaratu baita.

Informazioa informazio-iturriak zehazturiko denbora-erreferentziei lotuta egotearen eraginezkoa izaten da, halako kasuetan, denbora zabaltasuna. Horixe gertatzen da Hezkuntza Sailak betearazitako gastuei buruzko atalaren kasuan, bertako datuak Nafarroako Gobernuak onetsitako Nafarroako kontu orokorretatik hartzen baitira. Gauza bera gertatzen da Arartekoaren Memoriei edo parlamentu-memoriari buruzko epigrafearen kasuan. Lehenengo kasuan, erreferentzia 2007ko egutegiko urtea da; bigarreanean, berriz, VII. legealdia, 2007ko maiatzaren 27tik 2008ko maiatzaren 27rako.

Horrek mugatu egiten du Nafarroako ikasleen sustapenari buruzko informazioa. Txostenean 2006/2007 ikasturteari buruzkoa dago jasota, berori baita azken informazio erabilgarria.

Sarritan, txostena aurreko urteei buruzko erreferentziekin osatzen da. Helburua irakurleak sistemaren bilakaera egiaztatzeko aukera ematen duten datuak edukitzea da.

Txostena egiteko, funtsean, Hezkuntza Saileko Zerbitzuek emandako datuak erabili dira. Halaber, honako hauek ere datuak eman dituzte: Industria Sailak, Familiaren Zuzendaritza Nagusiak, Arartekoak, Gurasoen Federazioek (CONCAPA, HERRIKOA eta SORTZEN), Ikastetxeen Zuzendarien Elkarteak (IZE), Iruñeko Udalak eta Nafarroako Udalerrien nahiz Kontzejuen Federazioak. Horiei guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu emandako laguntzagatik.

Txostena beste AAEE batzuetako nahiz Estatuko datuekin edo nazioarteko lurralde-erreferentziekin osatuta dago, eta horrek aukera ematen du Nafarroako hezkuntza-sistema Estatuko eta nazioarteko testuinguruarekin konparatzeko.

Txostenaren amaieran atal espezifiko dago: Nafarroako Eskola Kontseiluko kideek Nafarroako hezkuntza-sistemako zenbait alderdiri buruz egindako iradokizunak, Osoko Bilkuran gehiengoz onetsi zirenak.

Txostenaren egitura, oinarrian, aurreko urteko txostenaren egiturari egokitzen zaio.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren iritzian, agiria irakurtzea, aztertzea eta ikertzea interesgarria izango da bertako hezkuntza-komunitatearentzat. Nik neuk uste dut bete egingo duela bere helburu nagusia, hau da, lagungarria izango dela Nafarroako Hezkuntza Sistema ezagutzeko eta, horrela, gure

erkidegoan hezkuntzaren eraginpean dauden gizarte-sektore guztien partaidetza, topaketak eta kooperazio-lana errazteko.

Iruñean, 2008ko abenduaren 18an.

Eskola Kontseiluko lehendakaria

Teresa Ucar Echagüe

1.- LEGERIA

Epigrafe honetan Hezkuntza Sailak edo Nafarroako Gobernuak 2007ko irailaren 1etik 2008ko abuztuaren 31ra argitaraturiko arauak jasotzen dira; horien edukiak izaera orokorra dauka Erkidegorako, eta indarraldi mugagabea edo aldi baterakoa dute, ikasturtearen bukaerara edo arautzen duten prozeduraren ebazpenera artekoa. Argitaratu gabeko arauak ez dira jaso, ezta (salbuespenak salbuespen) beste izendapen, obra kontratazioko espediente eta zerbitzu jakinei buruzko arau bereziak ere (adibidez, obra-espedienteak, ekipamenduak,..).

Halaber, Erkidegorako duten eduki orokor loteslea kontuan hartuta, Espainiako gobernu-organoei onetsitako arau batzuk ere jasota daude.

Nafarroako hezkuntza-sistemari buruzko 2006/2007 txostenean, 2007/2008 ikasturtean eragina izan arren 2007ko abuztuaren 31 baino lehen argitaraturiko arauak jaso ziren.

Arauak arloka bilduta daude, eta, talde bakoitzaren barruan, ordena kronologikoaren arabera bilduta.

Arloak honako hauek dira:

- Orokorra
- Administrazioa
- Ikastetxeak
- Langileak
- Irakaskuntza
- Ikasleak
- Ikasleen guraso-elkarteak
- Ebaluazioa
- Euskara
- Unibertsitateak

Batzuetan, zenbakikuntza maila txikiagoarekin, arau batzuk beste zenbaitekin lotzen dira, gai berari buruzkoak direlako.

1.1. LEGEGINTZA GARAPENA¹

1.1.1. Orokorra

1. Urtarrilaren 24ko 12/2008 Foru legea (2008rako), Nafarroako 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. 2008ko urtarrilaren 26ko 12. zenbakiko NAO.

1.1.2. Administrazioa

2. Nafarroako Gobernuaren ERABAKIA, 2007ko abenduaren 10ekoa; horren bidez, Nafarroako Lanbide Heziketako Kontseiluko kideen berriztapen partziala egin zen. 2008ko urtarrilaren 7ko 3. zenbakiko NAO.

¹ Atal honetan Hezkuntza Sistemaren 2006/2007 ikasturteari buruzko txostenaren egitura errespetatzen da, bi atalen arteko lotura errazteko.

1.1.2.1. Transferentziak (ez da araudirik egon)

1.1.2.2. Saila

3. Irailaren 3ko 122/2007 FORU DEKRETUA, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa ezarri duena. 2007ko irailaren 12ko 114. zenbakiko NAO.
4. Irailaren 10eko 183/2007 FORU DEKRETUA, Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoa sortu duena. 207ko irailaren 21eko 118. zenbakiko NAO.
5. Hezkuntzako Sailburuak abenduaren 11n emandako 203/2007 FORU AGINDUA, Hezkuntza Saileko Negoziatuen atxikipena eta funtzioa ezarri dituena.
6. 50/2008 FORU DEKRETUA, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa aldatu duena, Ikuskapen eta Zerbitzu Zuzendaritza Nagusian Zerbitzu berria sortua, "Nomina eta Aurrekontu Kontrolero Zerbitzua" izenekoa. 2008ko ekainaren 4ko 69. zenbakiko NAO.

1.1.2.3. Hezkuntza-ikuskapena

7. Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiak urriaren 15ean emandako 287/2007 EBAZPENA, Teknika eta Zerbitzu Ikuskapen Zerbitzuaren Urteroko Jarduketaren Plan Orokorra onetsi duena, 2007/2008 ikasturterako. 2007ko azaroaren 26ko 147. zenbakiko NAO.
8. HEZKUNTZA SAILA. Hezkuntza Ikuskatzaileen Kidegoan sartzeko deialdia. 2008ko maiatzaren 21eko 63. zenbakiko NAO.
9. Ekainaren 30eko 80/2008 FORU DEKRETUA, Hezkuntza Saileko Hezkuntza Ikuskapenaren antolamendua eta funtzionamendua arautu dituena. 2008ko abuztuaren 4ko 95. zenbakiko NAO.

1.1.2.4. Orientazioa eta PGZak (ez da araudirik egon)

1.1.2.5. Nafarroako Eskola Kontseilua

10. Nafarroako Gobernuak 2007ko irailaren 17an harturiko ERABAKIA; horren bidez, Javier Marcotegui Ros jaunak utzi egin dio, berak nahita, Nafarroako Eskola Kontseiluko edo Hezkuntzako Goi Batzordeko presidentea izateari. 2007ko irailaren 24ko 119. zenbakiko NAO.
11. Nafarroako Gobernuak 2007ko irailaren 17an hartutako ERABAKIA; horren bidez, Angel Urtasun Uriz izendatu da Nafarroako Eskola Kontseiluko edo Hezkuntzako Goi Batzordeko presidente.
12. Nafarroako Gobernuak 2007ko urriaren 22an hartutako ERABAKIA; horren bidez, berriztatu egin dira Nafarroako Eskola Kontseiluko edo Hezkuntzako Goi Batzordeko kide batzuk. 2007ko azaroaren 5eko 138. zenbakiko NAO.
13. Nafarroako Gobernuak 2008ko urtarrilaren 13an hartutako erabakia; horren bidez, berriztatu egin dira Nafarroako Eskola Kontseiluko edo Hezkuntzako Goi Batzordeko kideak. 2008ko urtarrilaren 30eko 14. zenbakiko NAO.
14. Nafarroako Gobernuak 2008ko uztailaren 15ean hartutako ERABAKIA; horren bidez, Ángel Urtasun Urizek utzi egin dio Eskola Kontseiluko edo Hezkuntzako Goi Batzordeko presidentea izateari. 2008ko uztailaren 21eko 89. zenbakiko NAO.
15. Nafarroako Gobernuak 2008ko abuztuaren 11n hartutako ERABAKIA; horren bidez, Teresa Ucar Echagüe izendatu da Nafarroako Eskola Kontseiluko edo Hezkuntzako Goi Batzordeko presidente. 2008ko abuztuaren 27ko 105. zenbakiko NAO.

1.1.3. Ikastetxeak

1.1.3.1. Baldintzak eta baimenak

1.1.3.2. Egutegia

16. Martxoaren 13ko 118/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, onetsi egin dira haur-hezkuntzako lehenengo zikloko egutegiaren nahiz ordutegiaren lanketa 2008-2009an arautuko duten jarraibideak. 2008ko apirilaren 18ko 49. zenbakiko NAO.
17. Apirilaren 30eko 210/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, zuzendu egin da martxoaren 13ko 118/2008 Ebazpenean ikusitako akatsa (haur-hezkuntzako lehenengo zikloko egutegiaren nahiz ordutegiaren lanketa 2008-2009an arautuko duten jarraibideak onetsi dituen Ebazpena). 2008ko ekainaren 4ko 69. zenbakiko NAO.
18. Maiatzaren 15eko 238/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, 2008-2009 ikasturterako eskola-egutegia egiteko jarraibideak onetsi dira; hori lruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialetan emango diren hizkuntza-irakaskuntzetarako da. 2008ko ekainaren 4ko 69. zenbakiko NAO.
19. Maiatzaren 15eko 239/2008 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, eskola-egutegia eta ordutegia egiteko jarraibideak onetsi dira, Nafarroako Foru Erkidegoan Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntza arautuak ematen dituzten ikastetxeetarako (2008-2009 ikasturtea). 2008ko ekainaren 4ko 69. zenbakiko NAO.
20. Maiatzaren 15eko 154/2008 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, eskola-egutegia eta ordutegia egiteko jarraibideak onetsi dira, Nafarroako Foru Erkidegoan Lanbide Heziketako eta Plastika Arteetako eta Diseinuko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetarako (2008-2009 ikasturtea). 2008ko ekainaren 9ko 71. zenbakiko NAO.
21. Maiatzaren 19ko 176/2008 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko musikako irakaskuntza arautuetarako eta dantzako ez-arautuetarako eskola-egutegia egiteko jarraibideak onetsi dira, 2008-2009 ikasturterako 2008ko ekainaren 9ko 71. zenbakiko NAO.
22. Ekainaren 16ko 280/2008 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxe publikoetan eskolaldia modu esperimentalean (2008-2009 ikasturtean) ezartzeko prozedura arautu da. 2008ko uztailaren 4ko 82. zenbakiko NAO.

1.1.3.3. Haur-eskolen eta egoitzen tarifak

23. Otsailaren 22ko 314/2008 EBAZPENA, Familia, Haurtzaro eta Kontsumo Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Gobernuaren Haur Eskoletako haurren plazetarako deialdiaren oinarriak onetsi dira, 2008-2009 ikasturterako, baita aplikatu beharreko tarifak ere. 2008ko martxoaren 7ko 31. zenbakiko NAO.
24. Otsailaren 15eko 48/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntza Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, haurrak 2008/2009 ikasturtean onartzeko prozedura arautu da, Hezkuntza Sailaren eta Toki Erakundeen arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren bidez finantzaturiko udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko zentroetan. 2008ko martxoaren 7ko 31. zenbakiko NAO.

25. Otsailaren 20ko 19/2008 FORU AGINDUA, Hezkuntza Sailburuarena; horren bidez, familiek Hezkuntza Sailarekiko hitzarmenen bidez (Hezkuntza Sailburuaren otsailaren 28ko 41/2005 Foru Aginduak arauturiko hitzarmenak) finantzaturiko udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko zentroetan (2008-2009 ikasturtea) ordaindu beharreko tarifak ezartzen dira. 2008ko apirilaren 2ko 42. zenbakiko NAO.
26. Hezkuntza Sailburuaren martxoaren 14ko 39/2008 FORU AGINDUA; horren bidez, derrigorrezkoak ez diren irakaskuntzen eta ikasle-egoitzen (Hezkuntza Sailaren mendekoak) tarifak finkatu dira. 2008ko apirilaren 16ko 48. zenbakiko NAO.

1.1.3.4. Programak

27. Irailaren 17ko 8/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, ikasle atzeritarrei Bigarren Hezkuntzako Institutuetan eta Ikastetxeetan espainola irakasteko Hizkuntza Murgilketako Programaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen duten jarraibideak eman dira. 2007ko urriaren 5eko 125. zenbakiko NAO.
28. Urriaren 16ko 45/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, 2007/2008 ikasturterako dirulaguntza-deialdia onetsi da, Kultura arteko Hezkuntzako hezkuntza-proiektuetarako eta esperientzietarako, Nafarroako Foru Erkidegoko itunpeko ikastetxeetan. 2007ko azaroaren 9ko 140. zenbakiko NAO.
29. Urriaren 16ko 46/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, 2007/2008 ikasturterako finantziazio-deialdia onetsi da, Kultura arteko Hezkuntzako hezkuntza-proiektuetarako eta esperientzietarako, Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxe publikoetan. 2007ko azaroaren 9ko 140. zenbakiko NAO.
30. Azaroaren 19ko 270/2007 FORU AGINDUA, Gizarte Gaiak, Familia, Gazteria eta Kiroleko Sailburuarena; horren bidez, 2006-2007 ikasturtean egindako kontsumoaren arloko hezkuntza-esperientzietarako diru-laguntzak emateko deialdia onetsi da. 2007ko azaroaren 23ko 146. zenbakiko NAO.
31. Urriaren 31ko 88/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoko ikasleentzako 165 plazarako deialdia egin da, horiek Eskola Bidaiari 2008 programan parte hartzeko, eta, gainera, Nafarroako Ibilbidea egiten duten beste erkidego batzuetako taldeen ostaturia eta mantenua finantzatzeko gastua baimendu da. 2007ko azaroaren 23ko 146. zenbakiko NAO.
32. Urriaren 31ko 89/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetakoko ikasleentzako 96 plazarako deialdia egin da, horiek Literatura Ibilbidea 2008 programan parte hartzeko, eta, gainera, Nafarroako Ibilbidea egiten duten beste erkidego batzuetako taldeen ostaturia eta mantenua finantzatzeko gastua (Nafarroako Foru Erkidegoari dagokiona) baimendu da. 2007ko azaroaren 26ko 147. zenbakiko NAO.
33. Otsailaren 14ko 43/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Iruñeko eta Tuterako ingeleseko hizkuntza-murgilketako eguneko Ikastaroen Deialdia onetsi da, Nafarroako Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 5. mailako ikasleentzat. 2008ko martxoaren 7ko 31. zenbakiko NAO.
34. Abenduaren 14ko 8/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Osasuna Sustatzeko Eskolen Europako Sarean sartzeko deialdia arautu da, Nafarroako Foru Erkidegoko hezkuntza ez-unibertsitarioko zentroetarako, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan arauturiko irakaskuntzaren bat ematen dutenetarako. 2008ko urtarrilaren 14ko 6. zenbakiko NAO.

35. Apirilaren 30eko 212/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, "Kanadako ikastetxe bateko programa akademikoa 2008-2009 ikasturteko lehenengo hiruhilekoan" deritzonetarako deialdia onetsi da, DBHko 4. mailako ikasleentzat, 2007-2008 ikasturtean. 2008ko maiatzaren 23ko 64. zenbakiko NAO.
36. Otsailaren 8ko 32/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, udaberriko "Spring Break" izeneko hizkuntza-murgilketako programarako deialdia onetsi da, Lehen Hezkuntzako 5. edo 6. mailako ikasleentzat, 2007-2008 ikasturtean. 2008ko martxoaren 3ko 29. zenbakiko NAO.
37. Irailaren 17ko 8/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, 2008an beste herri batzuekin eskola-trukeak egiten dituzten Nafarroako ikastetxe publikoetarako deialdia onetsi da. 2008ko maiatzaren 23ko 64. zenbakiko NAO.
38. Apirilaren 30eko 208/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Kultura arteko Hezkuntzako hezkuntza-proiektuak eta esperientziak (2008/2009 ikasturtean) finantzatzeko deialdia onetsi da, Nafarroako Foru Erkidegoko irakaskuntzako zentro publikoetan. 2008ko ekainaren 4ko 69. zenbakiko NAO.
39. Maiatzaren 23ko 257/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, 2008/2009 ikasturterako kontserbazio-laguntzailea eskatu nahi duten Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetarako deialdia egiteko baimena eman da. 2008ko ekainaren 20ko 76. zenbakiko NAO.
40. Ekainaren 27ko 300/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako Zentroetan eta Institutuetan eskolaturiko ikasle atzerritarrei komunikazio-hizkuntza irakasteko Hizkuntza Murgilketako Programaren antolamendua eta funtzionamendua arautzen duten jarraibideak eman dira. 2008ko abuztuaren 22ko 103. zenbakiko NAO.

1.1.3.5. Publikoak

1.1.3.5.1. Sorrera, ezabaketa eta baimenak ikastetxe arruntetan

41. Abuztuaren 10eko 822/2007 EBAZPENA, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Isabako "San Zipriano" Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoaren jarduerak aldi baterako amaitzea erabaki da, 2007/2008 ikasturtearen hasierako ondoreekin. 2007ko irailaren 4ko 110. zenbakiko NAO.
42. Abuztuaren 10eko 823/2007 EBAZPENA, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Liedenako Haur eta Lehen Hezkuntzako "Leire" Ikastetxe Publikoaren jarduerak aldi baterako amaitzea erabaki da, 2007/2008 ikasturtearen hasierako ondoreekin; halaber, Udalari instalazioak erabiltzeko baimena eman zaio, harik eta eskola erabilerarako beharrezkoak izan arte. 2007ko irailaren 4ko 110. zenbakiko NAO.
43. Abuztuaren 10eko 824/2007 EBAZPENA, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Eskarozeko Haur eta Lehen Hezkuntzako "San Roman" Ikastetxe Publikoaren jarduerak aldi baterako amaitzea erabaki da, 2007/2008 ikasturtearen hasierako ondoreekin. 2007ko irailaren 7ko 112. zenbakiko NAO.
44. Azaroaren 28ko 393/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, maila ertaineko Lanbide Heziketa Bereziko zikloari dagozkion irakaskuntzak ematea baimendu da ("Telekomunikazio eta Informatika Sistemak"), Tuterako Ikastetxe Integratu Politeknikoan ("ETI"); gainera, Nafarroako Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuetan eta Bigarren Hezkuntzako Institutuetan dagoeneko eskaintzen ez diren zikloak

adierazi dira, 2007/2008 ikasturtearen hasierako ondoreekin. 2008ko urtarrilaren 21eko 9. zenbakiko NAO.

45. Ekainaren 2ko 166/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, "Zizur" izena esleitu zaio Zizur Nagusiko Bigarren Hezkuntzako Institutuari. 2008ko uztailaren 7ko 83. zenbakiko NAO.

1.1.3.5.2. Sorrera, ezabaketa eta baimenak araubide bereziko ikastetxe publikoetan

46. Abuztuaren 14ko 841/2007 EBAZPENA, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Egues Haraneko Udal Musika Eskolaren (Olatzen dagoena) baimena aldatu da, irakaskuntzak handitzearen eraginez. 2007ko irailaren 10eko 113. zenbakiko NAO.
47. Urriaren 23ko 300/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, aldatu egin da Grinoaineko "Orbaibarreko Musika Eskola" Udal Musika Eskolaren baimena, espezialitateak zabaltzearen ondorioz. 2007ko azaroaren 23ko 146. zenbakiko NAO.
48. Urriaren 23ko 301/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, aldatu egin da Lodosako, Erriberriko eta Gareseko Udal Musika Eskolen baimena, Perkusioko irakaskuntzak ezabatzearen eraginez, baita Azkoienekoaren baimena ere, 007/2008 ikasturtean irakaskuntza horiek etetearen ondorioz. 2007ko azaroaren 23ko 146. zenbakiko NAO.
49. Urriaren 31ko 325/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, aldatu egin da Buñueleko Udal Musika Eskolaren baimena, espezialitateak zabaltzearen eraginez. 2007ko azaroaren 30eko 149. zenbakiko NAO.
50. Azaroaren 6ko 329/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, aldatu egin da Noaineko (Elortzeko harana) "Julián Gayarre" Udal Musika Eskolaren baimena, espezialitateak zabaltzearen ondorioz. 2007ko abenduaren 14ko 155. zenbakiko NAO.
51. Abenduaren 14ko 420/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, aldatu egin da Lakuntzako "San Saastin" udal musika-eskolaren baimena, espezialitateak zabaltzearen eraginezkoa. 2008ko urtarrilaren 18ko 8. zenbakiko NAO.
52. Urtarrilaren 23ko 1/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, aldatu egin da Martzillako Udal Musika Eskolaren baimena, espezialitateak zabaltzearen ondorioz. 2008ko otsailaren 20ko 23. zenbakiko NAO.
53. Apirilaren 30eko 121/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, aldatu egin da Burlatako eta Aurrabiako "Hilarión Eslava" Udal Musika Eskolaren baimena (Burlatan dagoena), irakaskuntzak zabaltzearen eraginez. 2008ko ekainaren 2ko 68. zenbakiko NAO.
54. Apirilaren 30eko 122/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, aldatu egin da Egues Haraneko Udal Musika Eskolaren (Olatzen dagoena) baimena, irakaskuntzak zabaltzearen ondorioz. 2008ko ekainaren 9ko 71. zenbakiko NAO.
55. Apirilaren 30eko 123/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, aldatu egin da Zangotzako "Juan Francés de Iribarren" Udal Musika Eskolaren baimena, irakaskuntzak zabaltzearen ondorioz. 2008ko ekainaren 9ko 71. zenbakiko NAO.

1.1.3.5.3. Antolamendua, funtzionamendua eta gobernu-organoak

56. Urriaren 16ko 57/2007 EBAZPENA, Antolamendua, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako, Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako, Hezkuntza Bereziko

Ikastetxe Publikoetako eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publikoetako Eskola Kontseiluak hautatzeko, neurri batean berrizatzeko eta eratzeko jarraibideak onetsi dira. 2007ko urriaren 29ko 135. zenbakiko NAO.

57. Urriaren 16ko 53/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuetako Eskola Kontseiluak hautatzeko, neurri batean berrizatzeko eta eratzeko jarraibideak onetsi dira.
58. Urtarrilaren 29ko 13/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren mendeko zuzendariak hautatzeko irakaskuntzako funtzionarioen arteko merezimenduen lehiaketa arautzeko deialdia onetsi da. 2008ko otsailaren 15eko 21. zenbakiko NAO.
59. Otsailaren 22ko 57/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendarien (Hautapen Batzordeak aukeratutakoak) ebaluazioa eta berriztapena egiteko prozedura onetsi da. 2008ko martxoaren 5eko 30. zenbakiko NAO.
60. Apirilaren 14ko 121/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren mendeko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuetako zuzendarien hautapenerako (merezimenduen lehiaketaren bidez) deialdia onetsi da. 2008ko maiatzaren 9ko 58. zenbakiko NAO.
61. Ekainaren 27ko 307/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolamendua eta funtzionamendua arautzeko (2008-2009 ikasturtean) jarraibideak onetsi dira. 2008ko abuztuaren 1eko 94. zenbakiko NAO.

1.1.3.5.4. Araubide bereziko irakaskuntzen antolamendua, funtzionamendua eta gobernu-organoak

62. Urriaren 16ko 56/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Arte Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoetako Eskola Kontseiluak hautatzeko, neurri batean berrizatzeko eta eratzeko jarraibideak onetsi dira. 2007ko urriaren 29ko 135. zenbakiko NAO.
63. Urriaren 16ko 54/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialetako Eskola Kontseiluak hautatzeko, neurri batean berrizatzeko eta eratzeko jarraibideak onetsi dira. 2007ko urriaren 31ko 136. zenbakiko NAO.

1.1.3.5.5. Diru-laguntzak, funtzionamendu-gastuak eta inbertsioak toki-erakundeetako ikastetxeetan

64. Azaroaren 23ko 375/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, DBHko ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxe publikoen titularrak diren Nafarroako Toki Erakundeek 2007ko irailetik abendura egindako gastuak konpentsatu dira, ikastetxe horiek kontserbatzeko, mantentzeko eta zaintzeko egindakoak. 2008ko urtarrilaren 7ko 3. zenbakiko NAO.
65. Abenduaren 18ko 427/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, baimena eman da Nafarroako eskola metaketan burutzak diren Toki Erakundeek diru-laguntzak emateko, ikastetxe horien funtzionamendurako gastuak finantzatzen lagundu ahal izateko. 2008ko urtarrilaren 25eko 11. zenbakiko NAO.

66. Otsailaren 14ko 37/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko Udal eta Kontzejuetarako diru-laguntzen deialdia onetsi da, Haur Hezkuntzako 2. Zikloko, Lehen Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza-DBH) eta Udal Musika Eskoletako ikastetxe publikoak hobetzeko, handitzeko eta birmoldatzeko obra-proiektuak betearazteko. 2008ko martxoaren 17ko 35. zenbakiko NAO.
67. Apirilaren 1eko 91/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko Toki Erakundeei diru-laguntzak emateko deialdia onetsi da, 0-3 urteko haur-hezkuntzako ikastetxeak eraikitzeke. 2008ko apirilaren 14ko 47. zenbakiko NAO.
68. Apirilaren 1eko 111/2008 EBAZPENA, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, udalerriko Musika Eskolei diru-laguntzak emateko deialdia onetsi da, arauzko musika-ikasketak egiteko probak prestatzeko programak ezarri ahal izateko. 2008ko maiatzaren 9ko 58. zenbakiko NAO.
69. Apirilaren 1eko 112/2008 EBAZPENA, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Udal Musika Eskolei 2008an diru-laguntzak emateko deialdia onetsi da. 2008ko maiatzaren 9ko 58. zenbakiko NAO.
70. Apirilaren 18ko 107/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako eskola metaketan toki nagusiak diren Toki Erakundeei diru-laguntzak ematea baimendu da, ikastetxeen funtzionamenduaren gastuak finantzatzen laguntzeko. 2008ko maiatzaren 26ko 65. zenbakiko NAO.
71. Apirilaren 24ko 115/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, konpentsatu egin dira ikasleak DBHn eskolatzen dituzten ikastetxe publikoen Toki Erakunde titularrek 2008ko urtarrietik abuzturako aldiaren egindako gastuak, ikastetxe horiek kontserbatzeko, mantentzeko eta zaintzeko egindakoak. 2008ko maiatzaren 30eko 67. zenbakiko NAO.
72. Ekainaren 4ko 177/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko Udalei eta Kontzejuei diru-laguntzak emateko deialdia ebatzi da, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza-DBH) eta Musika Eskolako ikastetxe publikoak hobetzeko, handitzeko eta birmoldatzeko obretarako (Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren otsailaren 14ko 37/2008 Ebazpenaren bidez onetsita). 2008ko uztailaren 7ko 83. zenbakiko NAO.
73. Ekainaren 27ko 243/2008 EBAZPENA, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez udalerrietako Musika Eskolei diru-laguntzak ematea ebatzi da, arauzko musika-ikasketak egiteko probak prestatzeko programen ezarkuntzarako (apirilaren 1eko 111/2008 Ebazpena). 2008ko abuztuaren 6ko 96. zenbakiko NAO.

1.1.3.6. Itunpeko pribatuak

1.1.3.6.1. Baimenak

74. Abuztuaren 10eko 825/2007 EBAZPENA, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Atarrabiako "Aralarreko Aingeru" Haur Hezkuntzako Ikastetxe Pribatuaren titulartasuna aldatzeko baimena eman da, Burlatako "Irabia" Ikastetxe Pribatuak hori xurgatu ahal izateko, eta, horrela, ezabatuta gelditzeko; aldi berean, aldatu egingo da Irabia ikastetxearen baimena, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan handitu egingo baitira unitateak. 2007ko irailaren 7ko 112. zenbakiko NAO.
75. Abuztuaren 14ko 843/2007 EBAZPENA, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendari Nagusiarena; horren bidez baimen berria eman da Iruñeko "Cuatrocientos Merkataritza Institutu Teknikoa" izeneko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua irekitzeko eta martxan

jartzeko, ezabatu egin baitira bertako Batxilergoko irakaskuntzak; horrela, Lanbide Heziketa Espezifikoko Ikastetxe Pribatu bihurtu du, eta, aldi berean, ondore barik utzi da “Merkataritza” deritzon maila ertaineko heziketa-zikloaren baimena, arratsaldeko txandan. 2007ko irailaren 10eko 113. zenbakiko NAO.

76. Irailaren 28ko 263/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, aldi baterako baimena eman da Nafarroako itunpeko ikastetxe batzuetako zenbait unitateren funtzionamendurako (unibertsitatekoak ez diren araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeak). 2007ko azaroaren 9ko 140. zenbakiko NAO).
77. Martxoaren 27ko 85/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, aldatu egin da Iruñeko “Urtsulatarrak” Ikastetxe Pribatuaren baimena, horren titulartasuna aldatzearen ondorioz. 2008ko apirilaren 23ko 51. zenbakiko NAO.

1.1.3.6.2. Gobernu-organoak

78. Urriaren 16ko 55/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Eskola Kontseiluak hautatzeko, neurri batean berrizatzeko nahiz eratzeko eta itunpeko ikastetxeetako zuzendaria izendatzeko jarraibideak onetsi dira. 2007ko urriaren 31ko 136. zenbakiko NAO.

1.1.3.6.3. Itunak eta diru-laguntzak

79. Irailaren 28ko 265/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena, uztailaren 4ko 719/2007 Ebazpena aldatu duena; horren bidez, Lehen Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Erdi zein Goi Mailako Lanbide Heziketako hezkuntza itunen sinadura ebatzi da; gainera, behin-behinean onetsi dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailako Curriculum Dibertsifikazioaren modulu ekonomikoak, baita “Igeltserotza Obrak” deritzon Erdi Mailako Heziketa Ziklokoak ere, 2007rako. Halaber, uztailaren 4ko 718/2007 Ebazpena ere aldatu du, Haur Hezkuntzako eta Batxilergoko bigarren zikloko hezkuntza-itunak aldatzea eta luzatzea ebatzi duena. 2007ko urriaren 26ko 134. zenbakiko NAO.
80. Urriaren 15eko 284/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako itunpeko ikastetxeei 2007ko bosgarren bihilekoan itunpeko unitateen eraginez dagozkien “beste gastu batzuk” kontzeptuko zenbateko ekonomikoen ordainketa egiteko baimena eman da. 2007ko azaroaren 12ko 141. zenbakiko NAO.
81. Azaroaren 6ko 326/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, baimena eman da kanpoko Curriculum Egokituko Unitateetan partekaturiko eskolatz-modalitatean adin txikikoei laguntza ematen dieten ikastetxeei dirulaguntza emateko; 2007rako finkaturiko modulu ekonomikoaren ehuneko 15ekoak dira. 2007ko azaroaren 30eko 149. zenbakiko NAO.
82. Azaroaren 6ko 327/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, 2006/2007 ikasturtean Lanbide Hastapeneko Programak garatu dituzten ikastetxe eta erakunde pribatuetarako diru-laguntzak osatzeko zenbatekoak ordaintzeko baimena eman da. 2007ko abenduaren 5eko 151. zenbakiko NAO.
83. Azaroaren 13ko 342/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako itunpeko ikastetxeei 2007ko seigarren bihilabetekoan itunpeko unitateen eraginez dagozkien “beste gastu batzuk” kontzeptuko diru-laguntzak ordaintzeko baimena eman da. 2007ko abenduaren 7ko 152. zenbakiko NAO.
84. Azaroaren 13ko 343/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, kanpoko Curriculum Egokituko Unitateen finantziatorako diru-laguntzak

- ordaintzeko baimena eman da, 2007ko irailetik abendurako aldiari dagokionez. 2007ko abenduaren 7ko 152. zenbakiko NAO.
85. Abenduaren 27ko 455/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, irabazi asmorik gabeko erakundeetan eta itunpeko ikastetxeetan Lanbide Hastapeneko Programen finantziatorako diru-laguntzak ordaintzeko baimena eman da, 2007ko irailetik abendura bitarteko aldiari dagokionez. 2008ko urtarrilaren 30eko 14. zenbakiko NAO.
 86. Otsailaren 8ko 33/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, 2008ko lehenengo bihilabetekoan Nafarroako itunpeko ikastetxeei itundutako unitateen eraginezko "beste gastu batzuk" kontzeptuko diru-laguntzak ordaintzeko baimena eman da. 2008ko martxoaren 10eko 32. zenbakiko NAO.
 87. Martxoaren 4ko 58/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, luzatu egin da kanpoko Curriculum Egokituko Unitateetan partekaturiko eskolatze-modalitatean adin txikikoei laguntza eskaintzen dieten ikastetxeei 2008rako diru-laguntza emateko modulu ekonomikoa; gainera, horien bigarren ordainketa baimendu da, 2007/2008 ikasturteari dagokiona. 2008ko apirilaren 9ko 45. zenbakiko NAO.
 88. Martxoaren 4ko 59/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Lanbide Hastapeneko Programetarako (2008) diru-laguntzen moduluak luzatu eta, gainera, horien bigarren ordainketa baimendu da, 2007/2008 ikasturteari dagokiona. 2008ko apirilaren 9ko 45. zenbakiko NAO.
 89. Martxoaren 5eko 69/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako itunpeko ikastetxeei 2008ko bigarren bihilekoan itunpeko unitateen eraginez dagozkien "beste gastu batzuk" kontzeptuko diru-laguntzak ordaintzeko baimena eman da. 2008ko apirilaren 9ko 45. zenbakiko NAO.
 90. Maiatzaren 5eko 217/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, onetsi egin dira egoera soziokultural edota sozioekonomiko txarrean dauden ikasleei giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak esleitzeko deialdi publikoaren Oinarriak, Nafarroako Foru Erkidegoko itunpeko ikastetxeetan, 2008/2009 ikasturtean. 2008ko maiatzaren 30eko 67. zenbakiko NAO.
 91. Maiatzaren 7ko 128/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako itunpeko ikastetxeei 2008ko hirugarren bihilekoan itunpeko unitateen eraginezko "beste gastu batzuk" kontzeptuko diru-laguntzak ordaintzeko baimena eman da. 2008ko ekainaren 11ko 72. zenbakiko NAO.
 92. Maiatzaren 26ko 258/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko itunpeko ikastetxeetan (2008/2009 ikasturtean) hezkuntza-beharrizan bereziko ikasleei laguntza emateko baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak esleitzeko deialdi publikoaren Oinarriak onetsi dira. 2008ko ekainaren 20ko 76. zenbakiko NAO.

1.1.3.6.4. Inbertsiorako laguntzak

93. Apirilaren 14ko 104/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, gizarte-ekimeneko ikastetxeetan obrak egiteko diru-laguntzetarako deialdia onetsi da. 2008ko maiatzaren 28ko 66. zenbakiko NAO.

1.1.4. Langileria

1.1.4.1. Orokorra

94. Abenduaren 17ko 254/2007 FORU DEKRETUA, 2008rako enplegu-eskaintza publikoa onetsi duena, Nafarroako Foru Erkidegoko administrazio-zerbitzurako unibertsitatetik kanpoko irakasleei dagokienez. 2008ko urtarrilaren 11ko 5. zenbakiko NAO.
95. Abenduaren 27ko 228/2007 FORU AGINDUA, Hezkuntza Sailburuarena, Hezkuntza Sailburuaren irailaren 23ko 156/2005 Foru Agindua aldatu duena; horren bidez, langabeziarako izangaien harremanak kudeatzeko arauak onetsi dira, Hezkuntza Saileko zerbitzurako irakasle lanpostuak aldi baterako kontratatuz. 2008ko urtarrilaren 14ko 6. zenbakiko NAO.

1.1.4.2. Langileak

96. Abenduaren 20ko 2735/2007 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariarena; horren bidez, irakasle-lanpostu batzuk ezabatu eta ikastetxeko lanpostuetara atxiki dira lanpostu ibiltariko izendapena duten irakasleak. 2008ko urtarrilaren 16ko 7. zenbakiko NAO.
97. Ekainaren 19ko 247/2008 FORU AGINDUA, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Sailburuarena; horren bidez, langileria organikoa eta langile finkoen nahiz behin-behinekoen argitalpena erabaki da (2007ko abenduaren 31n Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioan eta horren erakunde autonomoetan izendapen askeko zuzendaritza-karguak dituzten langileak). 2008ko uztailaren 11ko 85. zenbakiko NAO.

1.1.4.3. Ordainketak

98. Apirilaren 25eko 58/2008 FORU AGINDUA, Hezkuntzako Sailburuarena; horren bidez, Hezkuntza Sailaren mendeko irakasle funtzionario ez-unibertsitarioei dagokien ordaindutako (neurri batean) baimena gozatzeko baldintzak ezarri dira. 2008ko maiatzaren 14ko 60. zenbakiko NAO.
99. Apirilaren 28ko 731/2008 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariarena; horren bidez, Hezkuntza Sailaren mendeko irakasle funtzionario ez-unibertsitarioei dagozkien ordaindutako (neurri batean) baimenen deialdia (2008/2009 ikasturterako) onetsi da. 2008ko maiatzaren 16ko 61. zenbakiko NAO.
100. Nafarroako Gobernuaren ERABAKIA, 2008ko maiatzaren 26koa; horren bidez, aldez aurreko borondatezko erretiroa eskatzen duten irakasle ez-unibertsitarioen borondatezko erretiro-sari osagarriaren zenbatekoa finkatu da. 2008ko ekainaren 16ko 74. zenbakiko NAO.
101. Uztailaren 29ko 1984/2008 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariarena; horren bidez, neurri batean ordaindutako baimena eta ukaturiko eskabideak dituzten funtzionarioen behin betiko zerrendak onetsi dira; azken kasu horretan, onartu ez izanaren zergatia berariaz adierazi da. 2008ko abuztuaren 18ko 101. zenbakiko NAO.

1.1.4.4. Lanpostuetarako sarbidea

102. Abuztuaren 20ko 2123/2007 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko Maisu-Maistren Kidegoan sartzeko lehiaketa-oposiziorako deialdiari dagokion praktika-fasea arautu da. 2007ko irailaren 5eko 111. zenbakiko NAO.
103. 2007ko uztailaren 3ko 80/2007 Foru Aginduko AKATSEN ZUZENKETA; agindu hori Hezkuntzako Sailburuak eman du, eta, beraren bidez, Hezkuntza Sailburuaren maiatzaren 28ko 64/2007 Foru Agindua aldatu da; horren bidez, erlijio katolikoko irakasleen norakoak eta mugikortasuna adjudikatzeko prozedura arautu da, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeetan. 2007ko irailaren 21eko 118. zenbakiko NAO.

104. Uztailaren 1851/2007 Ebazpeneko AKATSEN ZUZENKETA; ebazpen hori Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariak eman du, eta, horren bidez, erlijio katolikoko irakasleen berrantolamendurako deialdia onetsi da, norakoak eta ordezen-eskaintza adjudikatzeko, Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeetan, 2007/2008 ikasturtean. 2007ko irailaren 21eko 118. zenbakiko NAO.
105. Maiatzaren 28ko 64/2007 Foru Aginduko AKATSEN ZUZENKETA; agindu hori Hezkuntzako Sailburuak eman du, eta, horren bidez, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeetako erlijio katolikoko irakasleen norakoak eta mugikortasuna adjudikatzeko prozedura arautu da. 2007ko irailaren 26ko 120. zenbakiko NAO.
106. Azaroaren 9ko 2522/2007 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariarena; horren bidez, onetsi egin dira Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeen langileriak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloko, Batxilergoko, Lanbide Heziketako, Arte Irakaskuntzetako eta Hizkuntzako ikastetxeak) eta langileak birbanatzeko nahiz lanpostuak hornitzeko prozeduran zuzkitu beharreko lanpostuak (hutsik daudenak), eta horretarako deialdia 2007-2008 ikasturtean egingo da. 2007ko azaroaren 28ko 148. zenbakiko NAO.
107. Azaroaren 9ko 2523/2007 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariarena; horren bidez, onetsi egin da honako maila hauetako irakasle funtzionarioei dagozkien lanpostuen hornidurarako eta irakasleen banaketarako deialdia: Bigarren Hezkuntzako Irakasle Kidegoa, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak eta Arte Irakaskuntzak nahiz Hizkuntzakoak ematen dituzten Kidegoak. 2007ko azaroaren 28ko 148. zenbakiko NAO.
108. Azaroaren 12ko 183/2007 FORU AGINDUA, Hezkuntzako Sailburuarena, Hezkuntza Sailburuaren irailaren 23ko 156/2005 Foru Agindua aldatu duena; horren bidez, langabeziarako izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onetsi dira, Hezkuntza Sailaren zerbitzurako irakasleak aldi baterako kontratuz. 2007ko azaroaren 30eko 149. zenbakiko NAO.
109. Azaroaren 9ko 2520/2007 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariarena; horren bidez, onetsi egin dira Haur Hezkuntzako nahiz Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi mailetakoko ikastetxeen zonifikazioa, sail horren mendeko ikastetxeetako eta programetako langileriak, lanpostuen ezabaketa eskatzeko prozedurak, lanpostu ibiltarietarako atxikipena eta lanpostuen hornidurarako deialdietan (Hezkuntza Sailak 2007-2008 ikasturtean egiten dituen deialdiak) zuzkitu beharreko lanpostuak (hutsik daudenak), Nafarroako Foru Erkidegoan. 2007ko azaroaren 30eko 149. zenbakiko NAO.
110. Azaroaren 9ko 2521/2007 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko Maisu-Maistren lanpostuen hornidurarako deialdiak onetsi dira. 2007ko azaroaren 30eko 149. zenbakiko NAO.
111. Funtzio Publikoko Zuzendari Nagusiaren azaroaren 19ko 3732/2007 ebazpenaren bidez onetsitako DEIALDIA, Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioaren eta horren erakunde autonomoen zerbitzurako Haur Hezkuntzako 5 lanpostu hornitzeko, lekualdatze-lehiaketaren bitartez. 2007ko abenduaren 12ko 154. zenbakiko NAO.
112. Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariaren azaroaren 9ko 2522/2007 Ebazpeneko AKATSEN ZUZENKETA; horren bidez, onetsi egin dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloko, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Arte nahiz Hizkuntza Irakaskuntzetako eskolak ematen dituzten Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeetako langileriak, baita irakasleak birbanatzeko eta lanpostuak hornitzeko prozeduraren bidez zuzkitu beharreko lanpostuen zerrenda ere; horretarako deialdia 2007-2008 ikasturtean egingo da. 2008ko urtarrilaren 18ko 8. zenbakiko NAO.

113. Abenduaren 28ko 2752/2007 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariarena; horren bidez, Bigarren Hezkuntzako Irakasle Kidegoan sartzeko deialdia onetsi da, baita Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoetan sartzeko deialdia ere (guztiak Nafarroako Foru Erkidegoko Administrazioen zerbitzuan). 2008ko urtarrilaren 28ko 13. zenbakiko NAO.
114. Urtarrilaren 21eko 106/2008 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariarena; horren bidez, Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariaren azaroaren 9ko 2520/2007 ebazpeneko II-2 Eranskineko akats materiala zuzentzeko baimena eman da; horren bidez, onetsi egin dira Haur nahiz Lehen Hezkuntzako eta Derrigorreko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi mailetakoko ikastetxeen zonifikazioa, Sailaren mendeko ikastetxeen eta programen langileriak, lanpostuen ezabaketa eskatzeko prozedurak, lanpostu ibiltarietarako atxikipena eta lanpostuak hornitzeko deialdietan zuzkitu beharreko lanpostu hutsak (Hezkuntza Sailak 2007-2008 ikasturtean Nafarroako Foru Erkidegorako deituko dituen Maisu-Maistra lanpostuen hornidura). 2008ko otsailaren 22ko 24. zenbakiko NAO.
115. Otsailaren 25eko 381/2008 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariarena; horren bidez, onetsi egin dira unibertsitatekoak ez diren irakaskuntza-funtzionarioen zerbitzuen (praktiketan eta komisioan) behin-behineko norakoak adjudikatzeko jarraibideak, baita lanaldiaren murriztapena eskatzeko prozedura ere, 2008-2009ko ikasturterako irakasleentzat. 2008ko martxoaren 10eko 32. zenbakiko NAO.
116. HEZKUNTZA SAILA. Irakasle Kidegoetan sartzeko lehiaketa-oposizioa. 2008ko apirilaren 25eko 52. zenbakiko NAO.
117. Apirilaren 11ko 632/2007 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendariarena; horren bidez, erlijio katolikoko irakasleak berrantolatzeko deialdia onetsi da, 2008-2009 ikasturterako. 2008ko maiatzaren 7ko 56. zenbakiko NAO.
118. Ekainaren 6ko 86/2008 FORU AGINDUA, Hezkuntzako Sailburuarena, Hezkuntzako Sailburuaren irailaren 23ko 156/2005 Foru Agindua aldatu duena; horren bidez, Hezkuntza Sailaren zerbitzurako irakasle-lanpostuak aldi baterako kontratazioaren bidez betetzeko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onetsi dira. 2008ko ekainaren 13ko 73. zenbakiko NAO.

1.1.4.5. Irakasleen trebakuntza

119. Azaroaren 21eko 131/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, "Irakasleen Trebakuntza Jardueretarako Banakako Diru-laguntzetarako Deialdia" onetsi da, 2007/2008 ikasturterako. 2007ko abenduaren 7ko 152. zenbakiko NAO.
120. Abenduaren 31ko 227/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, 2008/2009 ikasturterako hamasei Ikasketa Lizentziarako deialdia egin da, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren mendeko irakaskuntzako funtzionarioentzat edo lan kontratu finkoa dutenentzat. 2008ko otsailaren 6ko 17. zenbakiko NAO.

1.1.4.6. Ikasleak/itunpeko unitatea ratioak (ez da araudirik egon)

1.1.4.7. Itun sindikalak (ez da araudirik egon)

1.1.5. Irakaskuntzak

1.1.5.1. Eskolaurrea eta Haur Hezkuntza

121. Nafarroako Gobernuaren ERABAKIA, 2007ko urriaren 15ekoa, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 28/2007 Foru Dekretuari dagokionez egindako errekerimenduari buruz. 2007ko azaroaren 5eko 138. zenbakiko NAO.

1.1.5.2. Lehen Hezkuntza

122. Nafarroako Gobernuaren ERABAKIA, 2007ko urriaren 15ekoa, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 24/2007 Foru Dekretuari dagokionez egindako errekerimenduari buruz. 2007ko azaroaren 5eko 138. zenbakiko NAO.

1.1.5.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

1.1.5.4. Batxilergoa

123. FORU DEKRETUA; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko batxilergo-irakaskuntzen egitura eta curriculuma ezarri dira. 2008ko ekainaren 6ko 70. zenbakiko NAO.

124. Maiatzaren 14ko 66/2008 FORU AGINDUA, Hezkuntza Sailburuarena; horren bidez, batxilergoa ezarri, horren egitura garatu, antolamendua arautu, ordutegia finkatu eta aukerako ikasgaien curriculuma onetsi da, Nafarroako Foru Erkidegoan. 2008ko ekainaren 9ko 71. zenbakiko NAO.

125. Abuztuaren 4ko 119/2008 FORU AGINDUA, Hezkuntza Sailburuarena; horren bidez, Batxilergoko irakaskuntzak ordenatu eta antolatu dira, presentzia-araubidean eta urruneko araubidean dauden pertsona helduentzat, Nafarroako Foru Erkidegoaren eremuan.

1.1.5.5. Lanbide Heziketa

126. Apirilaren 24ko 128/2008 EBAZPENA, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, 2008-2009 ikasturterako, aktiboan dauden langileei zuzendutako lanbide-heziketako eskaintza arautu da, lanbide heziketa espezifikoko tituluak errazago lortu ahal izateko. 2008ko maiatzaren 14ko 60. zenbakiko NAO.

127. Maiatzaren 26ko 54/2008 FORU DEKRETUA; horren bidez, lanbide-heziketak Nafarroako Foru Erkidegoko hezkuntza-sisteman duen antolamendua eta garapena arautu da. 2008ko ekainaren 20ko 76. zenbakiko NAO.

128. Uztailaren 4ko 109/2008 FORU AGINDUA, Hezkuntzako Sailburuarena; horren bidez, Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak arautu dira, Nafarroako Foru Erkidegoan. 2008ko abuztuaren 25eko 104. zenbakiko NAO.

1.1.5.6. Erljioa eta Antolaturiko Hezkuntza-jarduera (ez da araudirik egon)

1.1.5.7. Araubide bereziko irakaskuntzak

129. Abuztuaren 10eko 836/2007 EBAZPENA, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen oinarritzko maila egiaztatzen duen probaren zehaztapenak onetsi dira. 2007ko urriaren 8ko 126. zenbakiko NAO.

130. Irailaren 17ko 13/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen maila ertaina egiaztatzen duen probaren berezitasunak onetsi dira. 2007ko urriaren 19ko 131. zenbakiko NAO.
131. Urtarrilaren 30eko 15/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, euskarazko hizkuntza-irakaskuntzen (martxoaren 19ko 22/2007 Foru Dekretuak araututakoak) maila ertaineko ziurtagiria lortzeko proba homologatuak arautu eta ziurtagiri hori lortzeko 2008ko deialdiak onetsi dira. 2008ko otsailaren 15eko 21. zenbakiko NAO.
132. Urtarrilaren 30eko 16/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, frantsesezko eta euskarazko hizkuntza irakaskuntzen (martxoaren 19ko 22/2007 Foru Dekretuak araututakoak) oinarritzko mailaren ziurtagiria lortzeko proba homologatuak arautu eta ziurtagiri hori lortzeko 2008ko deialdiak onetsi dira. 2008ko otsailaren 15eko 21. zenbakiko NAO.
133. Maiatzaren 7ko 145/2008 EBAZPENA, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, publizitatea eman zaie Nafarroako Goi Musika Eskolarako onesten diren musika-irakaskuntzen goi mailako aukerako ikasgaiei. 2008ko ekainaren 11ko 72. zenbakiko NAO.
134. Ekainaren 2ko 58/2008 FORU DEKRETUA; horren bidez, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen maila aurreratuko curriculuma ezarri da, Nafarroako Foru Erkidegorako. 2008ko ekainaren 25eko 78. zenbakiko NAO.
135. Maiatzaren 28ko 78/2008 Foru Agindua, Hezkuntza Sailburuarena, uztailaren 4ko 88/2007 Foru Agindua aldatu duena; horren bidez, 22/2007 Foru Dekretuan arauturiko araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen oinarritzko eta erdiko mailen antolamendua ezarri da. 2008ko ekainaren 25eko 78. zenbakiko NAO.
136. Uztailaren 1eko 106/2008 FORU AGINDUA, Hezkuntza Sailburuarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko musikak lanbide-irakaskuntzetako aukerako ikasgaiak arautu dira. 2008ko abuztuaren 15eko 100. zenbakiko NAO.

1.1.5.8. Helduen irakaskuntzak (ez da araudirik egon)

1.1.5.9. Eskolatik kanpoko jarduerak eta osagarriak

137. Martxoaren 5eko 88/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, onetsi egin da Haur Hezkuntzako 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Hezkuntzako Nafarroako Foru Erkidegoko Ikastetxe pribatuetakoko Eskolatik kanpoko Jarduerak eta Osagarriak egiteko laguntzetarako deialdia (2008rako). 2008ko apirilaren 11ko 46. zenbakiko NAO.
138. Martxoaren 5eko 92/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, onetsi egin da Haur Hezkuntzako 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Hezkuntzako Nafarroako Foru Erkidegoko Ikastetxe pribatuetakoko Eskolatik kanpoko Jarduerak eta Osagarriak egiteko baliabideak emateko deialdia (2008rako). 2008ko apirilaren 11ko 46. zenbakiko NAO.

1.1.6. Ikasleak

139. Ekainaren 13ko 93/2008 FORU AGINDUA, Hezkuntzako Sailburuarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren

Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari emandako laguntza arautu da. 2008ko uztailaren 30eko 93. zenbakiko NAO.

1.1.6.1. Onarpen-arauak

140. Urtarrilaren 31ko 18/2008 EBAZPENA, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Plastika eta Diseinu Irakaskuntzei dagozkien maila ertaineko eta goi mailako Heziketa Zikloetan sartzeko behar den Arte Gaitasuneko Probarako deialdia egin da. 2008ko otsailaren 20ko 23. zenbakiko NAO.
141. Urtarrilaren 29ko 13/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, fondo publikoekin euskarririko ikastetxe ez-unibertsitarioetako ikasleak onartzeko prozedura arautzeko oinarriak onetsi dira, Nafarroako Foru Erkidegoan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakaskuntzak egiteko, 2008/2009 ikasturtean. 2008ko otsailaren 25eko 25. zenbakiko NAO.

1.1.6.2. Zerbitzuak

1.1.6.2.1. Garraioa.

142. Irailaren 13ko 101/2007 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, baimena eman da ikastetxe publikoen eskola garraioa bederatzi plaza baino gehiagoko ibilgailuekin egiten dituzten enpresen kontratua luzatzeko, 2007-2008 ikasturtean. 2007ko urriaren 19ko 131. zenbakiko NAO.
143. Ekainaren 11ko 190/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, eskola-garraioaren antolamendurako eta funtzionamendurako (2008/2009 ikasturtean) jarraibideak onetsi dira. 2008ko uztailaren 25eko 91. zenbakiko NAO.

1.1.6.2.2. Jantokia (ez da araudirik egon)

1.1.6.3. Sustapen eta laguntza pertsonalak

144. Martxoaren 25eko 6/2008 FORU LEGEA, oinarrizko irakaskuntzako testuliburuak finantzatzeari buruzkoa. 2008ko martxoaren 31ko 41. zenbakiko NAO.
145. Abuztuaren 6ko 808/2007 EBAZPENA, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako testuliburuak (2007/2008 ikasturterako) lortzeko laguntzetarako deialdia onetsi da. 2007ko irailaren 3ko 109. zenbakiko NAO.
146. Uztailaren 12ko 723/2007 EBAZPENA, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Hezkuntza Bereziko Beketarako eta Laguntzetarako deialdia egin da, 2007/2008 ikasturterako. 2007ko irailaren 5eko 111. zenbakiko NAO.
147. Martxoaren 27ko 149/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, behin betiko ebatzi da 2007/2008 ikasturterako Hezkuntza Bereziko Beketarako eta Laguntzetarako deialdia. 2008ko maiatzaren 2ko 55. zenbakiko NAO.
148. Apirilaren 18ko 106/2008 EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, aldatu egin da Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN (2007ko irailaren 3koa, 109. zenbakiduna) argitaraturiko abuztuaren 6ko 808/2007 Ebazpena; horren bidez, 2007/2008 ikasturtean testuliburuak lortzeko laguntzetarako deialdia onetsi da, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako mailetan. 2008ko maiatzaren 26ko 65. zenbakiko NAO.

149. Uztailaren 1eko 234/2008 EBAZPENA, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, 2008/2009 ikasturterako Beketarako Deialdi Orokorra onetsi da, maila ertainetan eta unibertsitatekoetan. 2008ko abuztuaren 27ko 105. zenbakiko NAO.

1.1.7. Gurasoen eta Ikasleen Elkarteak

150. Irailaren 21eko 16/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntza Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, onetsi egin da Nafarroako Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoetako Ikasleen Guraso Elkarteei (IGE) laguntzak emateko prozedura, jardunaldi bakarreko egunetan Jantoki Zerbitzuaren kudeaketa osagarria egiteko, 2007ko irailetik abendura. 2007ko urriaren 19ko 131. zenbakiko NAO.
151. Martxoaren 7ko 102/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntza Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, onetsi egin da Nafarroako Hezkuntza Bereziko Ikastetxe Publikoetako Ikasleen Guraso Elkarteei (IGE) laguntzak emateko prozedura, jardunaldi bakarreko egunetan Jantoki Zerbitzuaren kudeaketa osagarria egiteko, 2007ko urtarriletik ekainera. 2008ko apirilaren 9ko 45. zenbakiko NAO.
152. Martxoaren 5eko 90/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntza Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, onetsi egin da Nafarroako Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako Guraso Elkarteen eta Federazioen aldeko laguntzetarako deialdia (2008rako). 2008ko apirilaren 14ko 47. zenbakiko NAO.
153. Martxoaren 5eko 91/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntza Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, onetsi egin da Nafarroako Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako Guraso Elkarteen aldeko laguntzetarako deialdia (2008rako). 2008ko apirilaren 14ko 47. zenbakiko NAO.
154. Maiatzaren 28ko 79/2008 FORU AGNDUA, Hezkuntzako Sailburuarena; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko Ikasleen Gurasoen Mahaia eratu da. 2008ko ekainaren 25eko 78. zenbakiko NAO.

1.1.8. Ebaluazioa

1.1.8.1. Orokorra

155. Hezkuntza Saileko Eskola eta Lanbide Irakaskuntzetako Zuzendari Nagusiaren ekainaren 1eko 551/2007 Ebazpeneko AKATSEN ZUZENKETA; ebazpen horren bidez, jarraibideak eman dira 2006-2007 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dabiltzan ikasleen Oinarrizko Irakaskuntzako Eskolatze Liburua betetzeko. 2007ko urriaren 12ko 128. zenbakiko NAO.
156. Abenduaren 18ko 216/2007 FORU AGINDUA, Hezkuntzako Sailburuarena; horren bidez, Lehen Hezkuntzan dabiltzan ikasleen ebaluazioa eta sustapena arautu da. 2008ko urtarrilaren 23ko 10. zenbakiko NAO.
157. Abenduaren 18ko 217/2007 FORU AGINDUA, Hezkuntzako Sailburuarena; horren bidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dabiltzan ikasleen ebaluazioa, sustapena eta titulazioa arautu da. 2008ko urtarrilaren 25eko 11. zenbakiko NAO.
158. Ekainaren 12ko 91/2008 FORU AGINDUA, Hezkuntzako Sailburuarena; horren bidez, musikako lanbide-irakaskuntzetan dabiltzan ikasleen ebaluazioa, sustapena eta titulazioa arautu da. 2008ko uztailaren 4ko 82. zenbakiko NAO.
159. Uztailaren 1eko 105/2008 FORU AGINDUA, Hezkuntzako Sailburuarena; horren bidez, musikako maila ertaineko irakaskuntzen lanbide-titulua lortzeko (matrikula askearen modalitatean) prozedura arautu da, Nafarroako Foru Erkidegoan. 2008ko uztailaren 25eko 91. zenbakiko NAO.

1.1.8.2. Sariak

160. Azaroaren 13ko 91/2007 EBAZPENA, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Lanbide Heziketako eta Plastika Arteetako nahiz Diseinuko irakaskuntzei dagozkien Sari Bereziatarako deialdia egin da, Nafarroako Foru Erkidegoan Heziketa Zikloa 2006-2007 ikasturtean amaitu duten ikasleentzat. 2007ko abenduaren 5eko 151. zenbakiko NAO.
161. Martxoaren 5eko 61/2008 EBAZPENA, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Lanbide Heziketako eta Plastika Arteetako nahiz Diseinuko irakaskuntzei dagozkien Sari Bereziatarako adjudikazioa egin da, Nafarroako Foru Erkidegoan Heziketa Zikloa 2006-2007 ikasturtean amaitu duten ikasleentzat. 2008ko apirilaren 9ko 45. zenbakiko NAO.
162. Maiatzaren 23ko 253/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Berrikuntza eta Kalitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, eskolan Osasunaren Sustapenerako berrikuntza-sarietarako deialdia egin da. 2008ko ekainaren 23ko 77. zenbakiko NAO.
163. Maiatzaren 23ko 254/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Berrikuntza eta Kalitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, bizikidetzako berrikuntza-sarietarako deialdia egin da. 2008ko ekainaren 25eko 78. zenbakiko NAO.
164. Ekainaren 27ko 306/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Berrikuntza eta Kalitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Batxilergoko Sari Bereziatarako deialdia egin da, Batxilergoko ikasketak Nafarroako Foru Erkidegoan (2007-2008 ikasturtean) amaitu dituzten ikasleentzat. 2008ko abuztuaren 20ko 102. zenbakiko NAO.

1.1.9. Euskara

165. Urriaren 29ko 176/2007 FORU AGINDUA, Hezkuntzako Sailburuarena; horren bidez, euskararen irakaskuntza-jardueraren garapena (Espainiako 1978ko abenduaren 29ko Konstituzioa argitaratu baino lehen) egiaztatzeko irizpideak onetsi dira, Gizarte Segurantzari kotizaturiko alditzat onartu ahal izateko. 2007ko azaroaren 14ko 142. zenbakiko NAO.
166. Azaroaren 6ko 179/2007 FORU AGINDUA, Hezkuntza Sailburuarena; horren bidez, Nafarroako Euskara Batzordeko kultura-elkarteetan edo gizarte-ekimeneko erakundeetan parte hartzeko prozedura ezarri da. 2007ko azaroaren 23ko 146. zenbakiko NAO.
167. Abenduaren 14ko 193/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berriztapeneko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, erakunde pribatuek eskolan euskara sustatzeko jarduerak egiteko diru-laguntzetarako deialdia egin da. 2008ko urtarrilaren 7ko 3. zenbakiko NAO. 2008ko urtarrilaren 11ko 5. zenbakiko NAO.
168. Urtarrilaren 14ko 1/2008 FORU DEKRETUA, maiatzaren 19ko 162/1988 Foru Dekretua onetsi duena; horren bidez, euskarazko birziklapen-ikastaroak arautu dira, Nafarroako ikastetxe publiko eta pribatu ez-unibertsitarioetako irakasleentzat; halaber, 159/1988 Foru Dekretuko 20. artikuluko 1. ataleko bigarren paragrafoa arautu da, eta, bertan, birziklapen-ikastaroak arauz garatu behar izatea adierazten da. 2008ko urtarrilaren 28ko 13. zenbakiko NAO.
169. Abenduaren 11ko 163/2007 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, aukeraturiko hizkuntzaren eraginez (2007-2008 ikasturtean) lekualdatu behar diren ikasleentzako diru-laguntzak ebazteko eta ordaintzeko baimena eman da, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean ezarritakoaren arabera. 2008ko otsailaren 1eko 15. zenbakiko NAO.
170. Abenduaren 18ko 218/2007 FORU AGINDUA, Hezkuntzako Sailburuarena; horren bidez, Nafarroako Gobernuak Euskararen Gaitasunaren Agiria (EGA) emateko baimena eman da,

- 2007an berori lortzeko probak gainditu dituzten pertsoneri. 2008ko otsailaren 1eko 15. zenbakiko NAO.
171. Urtarrilaren 23ko 7/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, euskarazko birziklapen-ikastaro trinkorako deialdi berezia onetsi da (A modalitateko lan-lizentzia), Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saileko irakasleentzat. 2008ko otsailaren 11ko 19. zenbakiko NAO.
 172. Martxoaren 7ko 103/2008 EBAZPENA, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, enpresa pribatuei eman beharreko diru-laguntzetarako deialdia onetsi da, Nafarroako Foru Erkidegoan honako ikasgai hauetan euskarazko testuliburuak argitaratzeko: Lehen Hezkuntzako Inguruaren Ezaguera, Gizartea eta Kultura, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia. 2008ko apirilaren 18ko 49. zenbakiko NAO.
 173. Apirilaren 14ko 7/2008 EBAZPENA, Euskararen Nafar Institutuko Zuzendari Kudeatzailearena; horren bidez, helduei euskara irakasteko diru-laguntzetarako deialdia onetsi da, eta irakaskuntza hori Nafarroako Foru Erkidegoko erakunde juridiko pribatuetan egiten da (euskaltegi eta gau-eskola pribatuak), 2008ko urtarriletik irailera bitarteko aldiari. 2008ko apirilaren 28ko 53. zenbakiko NAO.
 174. Apirilaren 18ko 9/2008 EBAZPENA, Euskararen Nafar Institutuko Zuzendari Kudeatzailearena; horren bidez, Nafarroako Gobernuaren eta toki erakunde batzuen arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren Berriztapena onetsi da, udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko, 2008an; halaber, hizkuntza-normalizazioko 2008ko urteroko programen (hitzarmen hori aplikatzearen ondoriozko programak, 40002272-73 kontabilitate-esp.) finantziarioa ere onetsi da. 2008ko maiatzaren 12ko 59. zenbakiko NAO.
 175. Maiatzaren 9ko 11/2008 EBAZPENA, Euskararen Nafar Institutuko Zuzendari Kudeatzailearena; horren bidez, Nafarroan euskara garatzeko kultura-jarduera egiteko diru-laguntzetarako deialdia onetsi da, 2008rako (40002893 kontabilitate-esp.). 2008ko maiatzaren 19ko 62. zenbakiko NAO.
 176. Maiatzaren 7ko 10/2008 EBAZPENA, Euskararen Nafar Institutuko Zuzendari Kudeatzailearena; horren bidez, Hezkuntza Sailak Nafarroan euskararen Hizkuntza Ikerketarako diru-laguntzetarako deialdia egin da, 2008rako. 2008ko maiatzaren 23ko 64. zenbakiko NAO.
 177. Euskararen Nafar Institutuaren apirilaren 18ko 9/2008 ebazpeneko akatsen zuzenketa; horren bidez Nafarroako Gobernuaren eta tokiko erakunde batzuen arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren Berriztapena onetsi da, udalerrietan euskararen erabilera normalizatzeko, 2008an; halaber, 2008ko hizkuntza normalizazioko urteroko programak finantzatzeko erabakia onetsi da, eta programa horiek aipaturiko hitzarmena aplikatzearen ondoriozkoak dira. 2008ko ekainaren 25eko 78. zenbakiko NAO.
 178. 2008ko maiatzaren 14ko ERABAKIA, Euskararen Nafar Institutuarena; horren bidez, Funtzionamenduaren Araudia onetsi da. 2008ko abuztuaren 8ko 97. zenbakiko NAO.

1.1.10. Unibertsitateak

179. Azaroaren 13ko 87/2007 EBAZPENA, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Hezkuntza Sailaren Heziketako eta Ikerketa eta Garapeneko (I+G) Laguntzetarako deialdia egin da (2007). 2007ko abenduaren 10eko 153. zenbakiko NAO.
180. Urtarrilaren 31ko 12/2008 EBAZPENA, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailaren arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren testua onetsi da, Nafarroako Foru Erkidegoan ikasketen plan berrietarako proposamenak finantzatzeko, unibertsitateko

- irakaskuntzen antolamendu berriaren esparruan, 2007-2008an. 2008ko otsailaren 27ko 26. zenbakiko NAO.
181. Urtarrilaren 31ko 189/2008 EBAZPENA, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Errektorearena; horren bidez, zientzia, teknika edo arteko lanen kontrataziorako Arautegia onesteko erabakia argitaratzeko agindua eman da, espezializazioko irakaskuntzak edo heziketa-jarduera bereziak garatzeko, Nafarroako Unibertsitate Publikoan (Gobernu Kontseiluaren 2008ko urtarrilaren 29ko akordioaren bidez onetsita). 2008ko otsailaren 29ko 27. zenbakiko NAO.
182. Martxoaren 7ko 68/2008 EBAZPENA, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, 2008rako Lankidetzaren Hitzarmena onetsi da, Hezkuntza Sailaren eta Nafarroako Unibertsitatearen artekoa, Europako Ikasketa Zentroari buruz. 2008ko apirilaren 18ko 49. zenbakiko NAO.
183. Urtarrilaren 31ko 12/2008 EBAZPENA, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako Gobernu Hezkuntza Sailaren arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren testua onetsi da, Nafarroako Foru Erkidegoan ikasketa-plan berrien proposamenak prestatzeko, unibertsitateko irakaskuntzen antolamendu berriaren esparruan (2007-2008). 2008ko otsailaren 27ko 26. zenbakiko NAO.
184. Apirilaren 22ko 125/2008 EBAZPENA, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, luzatu egin da atzerrian bizi diren nafar emigranteen ondorengoentzako ikasketa-laguntzetarako deialdiaren eskabideak aurkezteko epea (2008-2009). 2008ko maiatzaren 2ko 55. zenbakiko NAO.
185. Maiatzaren 15eko 157/2008 EBAZPENA, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako Gobernu Hezkuntza Sailaren arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren testua onetsi da, Jerónimo Ayanz Programa garatzeko (unibertsitatean ikerketa gehiago egiteko programa). 2008ko uztailearen 4ko 82. zenbakiko NAO.
186. Maiatzaren 15eko 158/2008 EBAZPENA, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Zuzendari Nagusiarena; horren bidez, Nafarroako Unibertsitatearen eta Nafarroako Gobernu Hezkuntza Sailaren arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren testua onetsi da, Jerónimo Ayanz Programa garatzeko (unibertsitatean ikerketa gehiago egiteko programa). 2008ko uztailearen 4ko 82. zenbakiko NAO.

Foru Dekretuak

2007ko irailaren 1aren eta 2008ko abuztuaren 31ren artean, Nafarroako Gobernuak 43 Foru Dekretu onetsi ditu Hezkuntza Sailarekin lotuta.

Foru Aginduak eta Ebazpenak:

2008ko irailaren 1etik 2008ko abuztuaren 31ra, Hezkuntza Sailak honako Foru Agindu eta Ebazpen hauek onetsi ditu:

Jatorria	Foru Aginduak	Ebazpenak
Idazkaritza Teknikoa	148	-
Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia	6	866
Ikasketetan Laguntzeko Zentroen Zerbitzua	2	185
Hezkuntza Ikuskapeneko Zerbitzua	4	105
Giza Baliabideen Zerbitzua	5	183

Obra eta Mantenamendu Zerbitzua	-	398
Nomina eta Aurrekontu Kontroleko Zerbitzua	-	15
Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuz. Nagusia	16	617
Antolamendu eta Berrikuntzako Zerbitzua	15	156
Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniz. Zerbitzua	2	95
Kalitate eta Genero berdintasuneko Zerbitzua	3	146
Hizkuntza Planifikazioko Zerbitzua	8	220
Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Zuz. Nagusia	35	477
Arte Irakaskuntzako Atala	4	20
Lanbide Heziketako Zerbitzua	2	269
Irakaskuntza nahiz Hedapeneko eta Ikerketako Zerbitzua	6	188
Euskarabidea	11	33
Hizkuntza Garapeneko Zerbitzua	20	20
Euskararen Aholkularitza eta Ikerketa Zerbitzua	-	13
Giza Baliabideetako Zerbitzua	-	2.763

Iturria: Hezkuntza Saileko Idazkaritza Teknikoa.

1.2. Legegintza-iruzkinak.

1.2.1. Ikaskuntzek Hezkuntzari buruzko Lege Organikoarekiko duten egokitzapena

1.2.1.1. Batxilergoa.

Hiru arau onetsi dira:

- Maiatzaren 12ko 49/2008 Foru Dekretua; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko batxilergo-irakaskuntzen egitura eta curriculuma ezarri dira².
- Maiatzaren 14ko 66/2008 Foru Agindua, Hezkuntza Sailburuarena; horren bidez, batxilergoa ezarri, horren egitura garatu, antolamendua arautu, ordutegia finkatu eta berari dagozkion aukerako ikasgaien curriculuma onetsi da, Nafarroako Foru Erkidegoan³.
- Abuztuaren 4ko 119/2008 Foru Agindua, Hezkuntza Sailburuarena; horren bidez, batxilergoko irakaskuntzak ordenatu eta antolatu dira, presentziako araubidea eta urruneko araubidea duten pertsona helduentzat, Nafarroako Foru Erkidegoan⁴.

Etaparen diseinua

Batxilergoak bigarren hezkuntzako etapa ixten du, eta bere tituluak goi-irakaskuntzak egiteko edo bizitza aktiborako balio du.

Irakaskuntza hauek eta PAUren prestakuntzak balorazio handia dute gizartean; hori agerian gelditzen da ikastetxeen antolamenduan eta hezkuntza-planifikazioan duten lehentasunezko tokian.

Etapamaierakoa izateak nabarmendu egiten du Nafarroan batxilergoaren arauketa HKMren oinarritzko araudira egokitu beharra, baina egindako diseinuak ezaugarri bereziak ditu:

Curriculumari dagokionez:

- Foru Dekretuak Errege Dekretuan gerorako utzitako hezkuntza-gaiak berreskuratzen ditu: etaparen esangura (hitzaurrean) eta metodologiari, orientazioari nahiz tutoretzari buruzko aipamenak (artikuluetan). Gainera, curriculumari buruzko xedapenak berrantolatu eta eskakizun akademikoaren mailak zehazten ditu, helburuak formulatzeko orduan, batez ere hizkuntza-trebetasunen arloko helburuei dagokienez.
- Erljioaren ordezkio ikasgaia eskola-ordutegiaren barruan sartzen da.
- Ikasgaien curriculumei dagokienez, hauxe esan daiteke:
 - Hizkuntzen diseinu komuna; aurreko etapetako planteamenduari eutsi zaio.
 - Eskola Kontseiluan lorturiko akordioa, Mundu Garaikiderako Zientzien diseinuan.

Etaparen egiturari dagokionez:

- Blokeen antolamendua: modalitate berriek arlo guztien manuzko eskaintza egin behar dute. Hala eta guztiz ere, blokeen antolamenduak zentzorei aukera ematen die euren proiektuaren arabera ibilbideak eratzeko.

² Ikusi kapitulu honetako 123. zenb., 1.1.5.4. epigrafea.

³ Ikusi kapitulu honetako 125. zenb., 1.1.5.4. epigrafea.

⁴ 111. zenbakiko NAO, 2008ko irailaren 10ekoa.

- Heziketa komunerako eta espezifikorako irakas-kargaren arteko oreka:
 - o Modalitateko arloetan, gutxi gorabehera, irakas-denbora osoaren erdia sartzen da.
 - o Aukerako arloak, bi ikasturteetan, modalitateko arloen iraupen bera dauka, eta horrek konbinazio eta ibilbide gehiago eskaintzeko aukera ematen du.
 - o Arlo berria sartzearen ondorioz, berregokitu egin behar da beste arlo batzuetarako aldia. Ordu-tegiak esleitzean, aintzat hartu dira curriculum-erdiak; hain zuzen ere:
 - Curriculum eginkizuna gutxieneko irakaskuntzei erantzuna ematea izan arren, arlo guztiek lortu eta, batzuetan, gainditu egiten dute Errege Dekretuko ordu-tegi-karga.
 - Ikastetxearen hezkuntza-proiektua ez da arlo bakoitzak ordezkaturiko indibidualtasunen batuketa izan behar, horien guztien ekarpenei zentzua ematen dien elementua baizik, batxilergoko helburuak lortu ahal izateko.
- HKMk ezarritako errepikapen bereziko araubidearen antolamenduan, ikastetxeek inplikaturiko arloak presentziakoa ez den sistema baten bidez antolatzeko aukera jasotzen da.

Ikastetxeen autonomiaren edukia zehazten da:

- Ikasturte bakoitzean asteko ordu-tegia ikastetxeak askatasunez erabiltzeko moduko orduekin osatzeko aukera.
- Modalitateko arloen blokeak egituratzen dituen hezkuntza-eskaintzaren diseinua.
- Ikasleen beharrezanekin eta itxaropenekin koherenteak diren heziketa-ibilbideak eratzeko aukerako arlo espezifikoen diseinua.
- Hezkuntza-arretaren eta hori gauzatzeko ordu-tegiaren edukiaren diseinua.
- Hezkuntza-komunitateko sektore guztien partaidetza (irakasleak, familiak, ikasleak,...), hezkuntza-prozesuko funtsezko elementutzat.
- Esperimentazioak, lan-planak, antolamendu-moduak edo eskolako ordu-tegiaren luzapena, Hezkuntza Sailak ezarritakoaren arabera.

Egiteko, aztertze eta onesteko prozedura osoak ezin izan du erabili onetsitako estatu-araudirik, irakaskuntza hauei guztiei buruz alde aurretik onetsitakorik.

Hain zuzen ere, arte eszenikoen, musikaren eta dantzaren bidea diseinatzean, HKMk zehaztu barik utzi ditu alderdi garrantzitsu batzuk; adibidez, selektibitatearen arauak eta, beraz, arte eszenikoen bidetari lotuta egongo litzatekeen selektibitate-aukera. Ministerioak, halaber, ez ditu arautu bide horri lotutako arloak emateko baimena duten irakasleen kidegoko espezialitateak.

1.2.1.2. DBHko 4. mailaren berrantolamendua

Nafarroako Gobernuak, 2007ko urriaren 15eko gobernu-erabakiaren bitartez, erabaki zuen DBHko 4. mailako curriculum-aukerak ikastetxeetarako orientagarriak baino ez zirela izango.

Erabaki hori betetzeko, Hezkuntza Sailak apirilaren 4ko 51/2008 Foru Agindua onetsi du; horren bidez, aldatu egin dira Hezkuntzako sailburuaren 52/2007 Foru Agindua eta 53/2007 Foru Agindua (maiatzaren 23a), Nafarroako Foru Erkidegoko itunpeko ikastetxe publikoetan eta pribatuetan emandako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzei buruzkoak (2008-05-09 NAO).

Foru Agindu horretan aldatu egin dira ordu-tegiak, eta, horrela, ikasle guztientzat derrigorrezkoak diren ikasgaiak, DBHko 4. mailan, asteko 2 irakas-ordu izango dituzte, gutxienez.

Foru Aginduak honako ezaugarri hauek ditu:

- Ikasgaiak emateko behar den irakas-karga HKMk ezarritakora egokitzen du (1631/2006 Errege Dekretuko III. eranskina).

- Curriculum-aukerako 3 ikasgaien eta aukerako ikasgaiaren irakas-karga 7-10 irakas-orduko aldiari eratu behar da, ikastetxeko hizkuntza-ereduaren eta bertako Hezkuntza Proiektuan adierazitako irizpideen arabera.
- 51/2008 Foru Aginduan aurkezturiko curriculum-aukerak ORIENTAGARRIAK dira eta EZ manuzkoak ikastetxeetarako; hau da, ikastetxeek eurek erabakiko dute ikasleei aurkeztu beharreko AZKEN eraketa.
- Ikastetxeek eraturiko curriculum-aukerak bermatu egin behar dute ikasleek HLOko 25.2 artikuluan ezarritako 8 ikasgaietako 3 egiten dituztela.
- Ikastetxeak hautaturiko aukerak lotutako ikasgai batekin aurkeztu behar dira, eta horrek 3 orduko irakas-karga izango du.
- Ikastetxeek, behar izanez gero, aukerako ikasgai horrekin osatuko dute curriculum-aukera.
- Euskara eta Literatura, G/A ikastetxeko A ereduko ikasleentzat, aukerakoak izango dira.

Onetsitako araudia Hezkuntza Saileko web orrian argitaratu eta ikastetxeetara bidali zen, hurrengo ikasturteko diseinuan irakaskuntzen antolamendu berriarekin lan egin ahal izateko .

1.2.1.3. Ikasleek proposaturiko aukerako ikasgaiak

Ikastetxeek DBHko 3. nahiz 4. mailatan eta batxilergoan aukerako ikasgaiak eskaini ahal izateko prozedurak ezartzen ditu araudiak.

Ikastetxeek diseinaturiko aukerako ikasgaien eskaintza hauxe da:

DBHko 3. maila

Energia Berriztagarriak	“Pedro de Ursúa”
Teknologia	Plaza de la Cruz; Ibaialde BHI; Toki Ona BHI

DBHko 4. maila

Zientziarekin gidatu	Alhama de Corella
Dietetika eta nutrizioa	Plaza de la Cruz
Antzezpena	Zizur BHI
Ingeleseko kulturak	Iruñeko Vedruna ikastetxea
Erljio-gertaera unibertsala	Santa Catalina-Stmo Sacramento ikastetxea
Osasunerako hezkuntza	Tuterako La Anunciata ikastetxea
Ordag. bidezko argazk. eta diseinua	Tuterako Benjamín BHI
Kultura eta zibilizazioa	Santa Teresa de Jesús ikastetxea
Komunikabideak	Pablo Sarasate BHI
Argazkigintza	Barañain BHI

Batxilergoko 1. maila

Psikologia zinemaren bidez	San Adrián EGA
Egunkaria ikasgelan	Corellako Alhama BHI
Testuak sakondu	Iruñeko Askatasuna BHI
Bizitzarako psikologia	Basoko BHI

1.2.1.4. Hiritarren hezkuntza

Ikasturtearen hasieratik, familia batzuek, kontzientzia-eragozpena gauzatzeko eskubidean oinarrituz, euren eskaera-orrietan aditzera eman dute ezagutzen dituztela hiritarren nahiz giza eskubideen hezkuntzarako eta hezkuntza etiko-hiritarrerako edukiak, horietariko batzuek ez dituztela errespetatzen euren kontzientzia-askatasuna, eta aukerako ikasgaiaren bat ikasteko eskubidea

eskatzen dutela. Horrenbestez, eskaera-orrietan euren seme-alabek halako ikasgaiak ez ikasteko eskubidea izatea eskatu dute, eta horren ordezkariak beste ikasgaiaren bat ikasi ahal izatea.

Ondoren, Nafarroako Justizia Auzitegi Goreneko administrazio-azien salak, 0123/2008 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan eta 0132/2008 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan, emandako autoetan ezarritakoaren arabera, ezin da kautelazko neurririk hartu eragotzitako ikasgaiak ikasi beharra eteteko.

Bestalde, Nafarroako arartekoak maiatzaren 20ko 58/2008 Ebazpenean adierazitakoaren arabera, "Hiritarren nahiz giza eskubideen hezkuntza" ikasgaiko helburuek eta edukiek (lehen aipaturiko foru-dekretuetan adierazitakoak) ez dute urratzen gurasoen askatasun ideologikorako eta erlijiosorako eskubidea, Espainiako Konstituzioak bermatzen duena; beraz, oinarrizko hezkuntzako ikasle guztiek ikasgai hori jaso eta horren klaseetara joan behar dute.

Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusiak, beste alde batetik, ekainaren 4ko 267/2008 Ebazpenaren bidez, ez zuen onartu ikasle batzuk hiritarren nahiz giza eskubideen hezkuntza edo hezkuntza etiko-hiritarra ikastetik salbuetsita gelditzeko eskabidea.

Ebazpen hau, ziurtaturiko postaren bitartez, eskabidea egin duten familia guztiei jakinarazi zaie; datuak honako hauek dira:

- 540 eskabide.
- 188 familia.
- 31 ikaslek esan dute DBHko 3. mailan daudela.
- 34 eskabide ikastetxe publikoetatik egin dituzte.
- 46 kasutan ez da esaten zer ikastetxe den.
- 220 kasutan ez da adierazten ikasturtea edo etapa.

1.2.1.5. Ebaluazio-araudia

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ebaluazio-prozesua arautzen duten arauak onetsi dira:

- Abenduaren 18ko 216/2007 FORU AGINDUA⁵, Hezkuntzako Sailburuarena; horren bidez, Lehen Hezkuntzako ikasleen ebaluazioa eta sustapena arautu dira.
- Abenduaren 18ko 217/2007 FORU AGINDUA⁶, Hezkuntzako Sailburuarena; horren bidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ebaluazioa, sustapena eta titulazioa arautu dira.

Araudi honen diseinuaren lanketa atzeratu egin zen, iraungitako irakaskuntzak HLO berrikoekin lotzeko zailtasunaren ondorioz (ebaluazioa, sustapena, titulazioa,...).

Berritasun nagusiak honako hauek dira:

- Ebaluazio-prozesuak zehazteko baliozkoa izango den kalifikazio-eskala adierazten da.
- Ikasleengan eragina duten erabakiak, gehienbat sustapenari buruzkoak, adostasunez hartzen ditu irakasle taldeak, batik batik tutorearen iritzia kontuan hartuta.
- Familiekiko harremanak sustatzen dira, gutxienez banakako bi elkarrizketa eduki beharra ezarrita, tutorearen eta ikaslearen aitaren, amaren edo legezko ordezkariaren artean.
- Ebaluazio-prozesuko derrigorrezko agiritzat, besteak beste, historial akademikoa agertzen da, Eskola Liburuaren ordezkari.
- Ikastetxe publikoetan eta pribatuetan ebaluazio-agiri guztiak "Educa" aplikazio informatikoaren bidez beteko dira.

Lehen Hezkuntzari dagokionez, hauxe ere adierazi behar da:

⁵ Ikusi kapitulu honetako 156. zenbakia, 1.1.8.1. epigrafea.

⁶ Ikusi kapitulu honetako 157. zenbakia, 1.1.8.1. epigrafea.

- Ikaslea hurrengo ziklora edo etapara igarotzeko bete behar diren baldintzak ezartzen dira.
- Aniztasunaren arretarako neurriak agortu beharra eta etapan beste urtebete egon beharra (hurrengo etapara igaro baino lehen) ezartzen da, baldin eta sustapenerako gutxieneko baldintzak lortu ez badira.

DBHari dagokionez, arauan hauxe ere jasotzen da:

- Hasierako ebaluazioa derrigorrezkoa da, DBHko lehenengo mailan.
- Mantendu egiten da iraileko proba berezia.
- Sustapeneko, errepikapeneko eta titulazioko irizpide berriak zehazten dira.
- DBHko graduatu-titulua lortzeko urteroko probarako deialdia agertzen da, hori bide arruntetik lortu ez duten ikasleentzat.

2. PARLAMENTU JARDUERA

2.1. Hezkuntzari buruzko parlamentu-jarduera, 2007ko maiatzaren 25etik 2008ko maiatzaren 25era bitartekoa.

Unibertsitatekoa ez den hezkuntzaren inguruan sorturiko parlamentu-jarduera, Parlamentuaren sustapen- eta kontrol-jarduerari dagokionez, Hezkuntza eta Kultura Batzordean edo Parlamentuko Osoko Bilkuran bertan garatzen da.

Hezkuntza eta Kultura Batzordeko kideak honako hauek dira:

Eratze-data: 2007ko irailaren 17a

MAHAIA

Mahaiburua: Patxi Telletxea Ezkurra jauna (NABAI)

Mahaiburuordea: Josefina Bozal Bozal andrea (UPN)

Idazkaria: José Luis Izco Biarge jauna (PSN)

MAHAIKIDEAK

UPN	Esteban Garijo Pérez jauna
UPN	Carmen María González García andrea
UPN	Concepción Mateo Pérez andrea
UPN	Sergio Sayas López jauna
NABAI	Paula Kasares Corrales andrea
NABAI	María Luisa Mangado Cortes andrea
PSN	María Victoria Arraiza Zorzano andrea
PSN	Román Felones Morrás jauna
CDN	José Andrés Burguete Torres jauna
IUN-NEB	Ana Figueras Castellano andrea

Egindako bilkurak

Azterturiko gaiak oso anitzak izan dira. Aintzat hartu behar da, Batzordearen izenak dioenez, helburua hezkuntza dela, unibertsitateko hezkuntza barne. Ondoren eskaintzen diren datuak Nafarroako Parlamentuko jardueren memorian jasotakoak dira laburbilduta; VII. legegintzaldiko 2007ko maiatzaren 27tik 2008ko maiatzaren 27ra bitarteko aldiari dagozkio, eta unibertsitatekoa ez den hezkuntzari buruzkoak dira.

Batzordeak **21** bilkura egin ditu.

2.1.1. Parlamentuko osoko bilkuran azterturiko gaiak

Jarduera mota	Kop.
Foru Legeko proposamenak	2
Jabeldurak	1
Mozioak	8
Ahozko erantzuneko galderak	18

Foru Legeko Proposamenak: 2

1. Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburuaren finantziario buruzkoa. Osoko Bilkurak kontuan hartu: 2007-10-25. Bilkura-egunkaria: 7. zenb. NPAO: 24. zenb., 2007-10-31.
2. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5.1.b) artikulua aldatu duena. Ez da kontuan hartu: 08-02-14ko Osoko Bilkura. NPAO: 17. zenb., 08-02-22. Bilkura-egunkaria: 17. zenb.

Jabeldurak: 1.

1. Gobernuak zona mistoko hiritarrei erantzun egokia emateko eta horien eskubideak bermatzeko garatuko duen hizkuntza politikari buruz. Osoko Bilkurako eztabaida: 2007-12-13. Bilkura-egunkaria: 12. zenb.

Moziok. 8

3. Nafarroako Gobernuari 0-3 urte bitarteko haurrei arreta eskaintzeko beste 500 plaza berehala gaitzeko egin zaion eskabideari buruzkoa. Osoko Bilkurako eztabaida: 07-20-25. Bilkura-egunkaria: 7. zenb. Bozketen emaitza: BAI 47; EZ: 0; ABS.: 0. Ebazena: 24. zenb. NPAO, 07-10-31.
4. Nafarroako Gobernuari Foru Erkidegoko eskola publikoetan ingelesaren irakaskuntza ezartzeko berehalako kontratazioa eskatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurako eztabaida: 07-20-25. Bilkura-egunkaria: 7. zenb. Bozketen emaitza: BAI: 37; EZ: 0; ABS.: 9. Ebazpena: 24. zenb. NPAO, 07-10-31.
5. Nafarroako Gobernuari irakaskuntza publikoan IKTak modernatzeko plana ezartzeari buruzkoa, ordenagailuak eskuratuta eta ikasgela guztietan ikus-entzunezko materiala ezarrita. Osoko Bilkurako eztabaida: 2007-10-25. Bilkura-aretoa: 7. zenb. Bozketen emaitza: BAI: 48; EZ: 0; ABS.: 0. Ebazpena: 24. zenb. NPAO, 2007-10-31.
6. Nafarroako Gobernuari, ekainaren amaierarako, Hezkuntza Sailak kontratatu beharreko aldi baterako irakasleen kontratuak formalizatzeko eskabidea egiteari buruzkoa. Osoko Bilkurako eztabaida: 2007-11-23. Bilkura-egunkaria: 11. zenb. Bozketen emaitza: BAI: 46; EZ: 0; ABS.: 0. Ebazpena: 34. zenb. NPAO, 2007-11-30.
7. Nafarroako Gobernuari Nafarroako hezkuntza bereziko araudia garatzeko eskabidea egiteari buruzkoa. Osoko Bilkurako eztabaida: 2008-04-17. Bilkura-egunkaria: 24. zenb. Bozketen emaitza: BAI: 48; EZ: 0; ABS.: 0. Ebazpena: 39. zenb. NPAO, 2008-04-29.
8. Nafarroako Gobernuari, Osasun Sailak irakasleentzako "Ikasgela osasuntsuak, Nerabe trebatuak" material didaktikoa editatzearen kostu ekonomikoa bere gain hartu nahi ez duenez, Hezkuntza Sailak bere gain hartzeko eskabidea egiteari buruzkoa. Osoko Bilkurako eztabaida: 2008-04-17. Bilkura-egunkaria: 24. zenb. Bozketen emaitza: BAI: 48; EZ: 0; ABS.: 0. Ebazpena: 39. zenb. NPAO, 2008-04-29.
9. Nafarroako Gobernuari oinarrizko irakaskuntzarako testuliburuaren finantziarioaren Foru Legeko arauzko garapeneko alderdi batzuk aintzat hartzeko eskabidea egiteari buruzkoa. Osoko Bilkurako eztabaida: 2008-04-17. Bilkura-egunkaria: 24. zenb. Bozketen emaitza: BAI: 46; EZ: 0; ABS.: 0. Ebazpena: 39. zenb. NPAO, 2008-04-29.
10. Nafarroako Gobernuari Irakasleen heziketara zuzendutako Osasunaren gaineko materiala editatzeko eskabidea egiteari buruzkoa, hezkuntzaren arloan bizitza-estilo osasungarriak sustatzeko eta bultzatzeko. Osoko Bilkurako eztabaida: 2008-04-17. Bilkura-egunkaria: 24. zenb. Bozketen emaitza: BAI: 48; EZ: 0; ABS.: 0. Ebazpena: 39. zenb. NPAO, 2008-04-29.

Ahozko erantzuneko galderak: 18

1. Nafarroako Euskararen Institutuaren izenari buruzkoa. Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2007-10-25. Bilkura-egunkaria: 7. zenb.
2. Hezkuntzako Sailburuak euskara hori erabiltzen duten beste lurralde batzuetako erakunde publikoekin hizkuntza horren arloko lankidetzaren harremanak edukitzeko asmoari buruzkoa. Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2007-11-08. Bilkura-egunkaria: 8. zenb.

3. Gobernuak Iruñeko Udalarri Mendillorri BHIko eraikinari dagokionez eskaturiko obra-lizentzien, sailkaturiko jardueraren eta irekieraren datei eta edukiari buruzkoa. Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2007-10-25. Bilkura-egunkaria: 7. zenb.
4. Gobernuko presidentea Hezkuntza Sailerako aurrekontuak igotzearekin eta Nafarroako BPGaren %6ra hurbiltzearekin (legealdi honetan) ados egoteari buruzkoa. Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2007-12-28. Bilkura-egunkaria: 14. zenb.
5. Hezkuntza Sailak ikastetxe publikoek benetako autonomia edukitzeko hartuko dituen neurriei buruzkoa. Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2007-12-28. Bilkura-egunkaria: 14. zenb.
6. Hezkuntzako Mahai Sektorialerako deialdia oraindik egin gabe egotearen zergatiari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 08-01-18.
7. Hezkuntza Sailak haurtzaindegi pribatuen funtzionamendua kontrolatzeko harturiko neurriei buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 08-01-16.
8. Euskararen Nafar Institutuak zuzendari kudeatzailerik ez edukitzeari buruzkoa. Idatzizko erantzuna: 08-01-16.
9. Nafarroako Gobernuak 2007ko urriaren 22an harturiko erabakiari buruzkoa, arte-heziketako beken atzera-eraginezko hedapenari dagokionez. Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2007-12-13. Bilkura-egunkaria: 12. zenb..
10. Hezkuntzaren arloko bitarteko irakasleek eta sindikatuek egindako eskabideei buruz. Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2008-02-28. Bilkura-egunkaria: 18. zenb.
11. Eredu elebiduna ama-hizkuntzaren oinarriko hizkuntza-gaitasunak lortzeko zailtasunak dituzten ikasleentzat egokiena izateari buruz. Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2008-04-17. Bilkura-egunkaria: 24. zenb.
12. Nafarroako ikasleek hizkuntzak ikasteko programaren barruan hizkuntza-gaitasuna indartzearen esangurari buruz. Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2008-05-8. Bilkura-egunkaria: 25. zenb.
13. Hizkuntzen arteko konbinazioak ahalbidetuko dituen eredu bakarrari eta irekiari buruz. Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2008-05-8. Bilkura-egunkaria: 25. zenb.
14. Sailak euskarazko hizkuntza-murgilketako ereduak ematen dituzten zentroei egingo dien eskaintzari buruzkoa (atzerriko hizkuntzak ikasteko eskaintza). Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2008-05-8. Bilkura-egunkaria: 25. zenb.
15. Nafarroako hezkuntza-sisteman British ereduaren ezarkuntzarekin jarraitu ez izanaren zergatiari buruz. Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2008-05-22. Bilkura-egunkaria: 26. zenb.
16. Irakasleei eskainitako heziketa-ikastaroek ikastetxe bakoitzeko ikasketa-proiektuen garapena hobetzea bermatzeari buruz. Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2008-05-22. Bilkura-egunkaria: 26. zenb.
17. Hizkuntzak ikasteko programak emateko irakasleen egiaztapenerako deialdian hizkuntza-mendekotasuneko B2 maila eskatzeko arrazoiari buruz. Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2008-04-3. Bilkura-egunkaria: 22. zenb.
18. Euskararen Nafar Institutua sortu denetik zazpi hilabete igaro ondoren institutu horren gaineko informazioa ematen duen web orri ofiziala gaztelaniaz bakarrik egotearen zergatiari buruz. Osoko Bilkuran emandako erantzuna: 2008-05-8. Bilkura-egunkaria: 25. zenb..

2.1.2. Batzordeak azterturiko gaiak:

Ekimen mota	Kop.
Mozioak	7
Agerraldiak	13
Idatzizko erantzuneko galderak	36

Ahozko erantzuneko galderak	2
Lan-bilkurak	10
Informazioa	17

Batzordean ahozko erantzuna izan duten galderak: 2

1. D ereduko Batxilergoko irakas-orduei buruz. Erantzuna Hezkuntza Batzordean: 2007-11-27. Bilkura-egunkaria: 4. zenb.
2. Hizkuntza Murgilketako Programaren antolamendua eta funtzionamendua arautzeko (ikasle atzerritarrei espainola irakasteko) jarraibideak eman dituen Ebazpenari buruz, eta euskara irakasteko Hizkuntza Murgilketako Programa arautzeko ebazpena aurreikusita egoteari buruz. Erantzuna Hezkuntza Batzordean: 2008-04-15. Bilkura-egunkaria: 9. zenb.

Idatzizko erantzuna izan duten galderak: 36

1. Akatsak edo azpiegitura-gabeziak dituzten Nafarroako Gobernuaren ikastetxeei buruz. Idatzizko erantzuna: 2007-10-9. NPAO: 4. zenb., 2008-01-17.
2. Hezkuntza Sailak Tuterako Virgen de la Cabeza ikastetxean 2007-2008 ikasturtean eskolatik kanpoko jarduerak garatzea aurreikusita edukitzeari buruz. Idatzizko erantzuna: 2007-10-23. NPAO: 19. zenb., 2008-02-27.
3. Hezkuntza Sailaren lehentasunezko helburuen artean Zangotzako ikastetxearen egoera aztertzea egoteari buruz, horrek beharrezko eraikuntza-azpiegitura behar baitu. Idatzizko erantzuna: 2007-10-23. NPAO: 19. zenb., 2008-02-27.
4. Hezkuntza Sailaren eta irakaskuntzako sindikatuen artean lanaldi jarraitua ezartzearen arloan lorturiko betetze mailari buruz. Idatzizko erantzuna: 2007-10-29. NPAO: 19. zenb., 2008-02-27.
5. Virgen de la Cabeza ikastetxearen egoerari eta lanaldi jarraitua hasi ez izanaren zergatiari buruz. Idatzizko erantzuna: 2007-11-2. NPAO: 19. zenb., 2008-02-27.
6. Arte-ikasketak zabaltzeko diru-laguntzei buruz. Idatzizko erantzuna: 2007-11-6. NPAO: 4. zenb., 2008-02-27.
7. Antzerkiko goi-ikasketei buruz. Idatzizko erantzuna: 2007-11-8. NPAO: 21. zenb., 2008-03-4.
8. Udalen eta Administrazioaren artean 0-3 urteko etaparen arloko gauza guztiak kudeatzeko Partzuergoa sortzeari buruz. Idatzizko erantzuna: 2007-10-29. NPAO: 19. zenb., 2008-02-27.
9. Hautaturiko ikastetxean matrikulatu ahal izan den ikasle kopuruari buruz. Idatzizko erantzuna: 2007-11-2. NPAO: 19. zenb., 2008-02-27.
10. Itunpeko irakaskuntza pribatuko irakasleen lan-egoerari buruz. Idatzizko erantzuna: 2007-11-8. NPAO: 21. zenb., 2008-03-4.
11. "Musika Eskolaren" aurrekontu-partidari buruz. Idatzizko erantzuna: 2007-12-7. NPAO: 25. zenb., 2008-03-13.
12. Oinarrizko laguntzako ikastetxeen sarea handitu eta osatu arte eraikitzeko asmoari buruz. Idatzizko erantzuna: 2007-11-27. NPAO: 25. zenb., 2008-03-13.
13. Iruñeko eta horren eskualdeko Haur Hezkuntzako aurretiazko matrikulazioko eta matrikulazioko datuei buruz (2004-05, 2005-06, 2006-07 eta 2007-08). Idatzizko erantzuna: 2007-11-23. NPAO: 25. zenb., 2008-03-13.
14. Hautzaindegietan egiten diren kontrolei buruz. Idatzizko erantzuna: 2007-12-7. NPAO: 25. zenb., 2008-03-13.
15. Nafarroako Gobernuak Leitzako Amazabal institutuaren ondoko eraikinari dagokionez dituen aurreikuspenei buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-01-3. NPAO: 36. zenb., 2008-04-18.
16. Unibertsitate Hedapeneko ikastaroei buruz. Idatzizko erantzuna: 2007-12-19. NPAO: 32. zenb., 2008-04-10.

17. Hezkuntza-sistema publikoan kontrataturiko 50 urtetik gorako irakasleei buruz. Idatzizko erantzuna: 2007-12-19. NPAO: 32. zenb., 2008-04-10.
18. Nafarroako ikastetxeetan matrikulaturiko ikasle atzerritarren ehunekoari buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-02-7. NPAO: 42. zenb., 2008-05-8.
19. Gobernuak San Adrianen 0-3 urteko zikloa martxan jartzeko dituen denbora- eta ekonomia-aurreikuspenei buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-02-29. NPAO: 49. zenb., 2008-05-29.
20. Gobernuak San Adrianen ikastetxe publiko berria eraikitzeke dituen denbora- eta ekonomia-aurreikuspenei buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-02-25. NPAO: 44. zenb., 2008-05-12.
21. Nafarroako Foru Erkidegoko haur-hezkuntzako lehenengo zikloa arautzeari buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-03-12. NPAO: __ zenb., __
22. Hezkuntza Sailak irakurmena sustatzeko programarik edukitzeari buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-03-10. NPAO: __ zenb., __
23. eskola-liburutegiei buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-03-14. NPAO: __ zenb., __
24. Hezkuntza Sailak Nafarroako Goi Musika Eskolan eta Pablo Sarasate profesionalen lan egiteko irakasleen kontratazio-zerrenda bera ez egoteke hartuko dituen neurriei buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-03-14. NPAO: __ zenb., __
25. Hezkuntza Sailak Goi Musika Eskolan lan egiten duten irakasleen kontratua hutsaltzeko prozesuak ekiditeko hartuko dituen neurriei buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-03-14. NPAO: __ zenb., __
26. Hezkuntza Sailak goi musika-irakaskuntzan nazioarteko ikasle-trukeak sustatzeko hartuko dituen neurriei buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-03-27. NPAO: __ zenb., __
27. Nafarroan musikako irakaskuntzen beharrianei erantzun ona emateko organigrama egokitzeari buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-03-27. NPAO: __ zenb., __
28. Nafarroan goi musika-ikasketen curriculumak garatzeko egunari buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-03-27. NPAO: __ zenb., __
29. Nafarroako Goi Musika Eskolaren Klaustroari irakasleriaren egonkortasun egokia emateko egunari buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-03-14. NPAO: __ zenb., __
30. Hezkuntza Sailak Nafarroako Goi Musika Eskolan goi musika-ikasketak ezartzeko egingo dituen jarduketari buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-03-27. NPAO: __ zenb., __
31. Hezkuntza Sailak Hizkuntza Eskola Ofizialean iraileko azterketen deialdia berrezartzeko prest egoteari buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-04-4. NPAO: __ zenb., __
32. Haur-hezkuntzako lehenengo zikloa arautu duen 28/2007 FDari eta arartekoak zaintzaren, egutegiaren, ordutegiaren nahiz kalitate-irizpideen arloan (0-3 urteko ikastetxeetan) emandako gomendioei buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-04-2. NPAO: __ zenb., __
33. Hezkuntza Sailak sustaturiko euskarazko eskola-aldizkaririk egoteari buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-04-4. NPAO: __ zenb., __
34. Hezkuntza Sailak Erkidegoko ikastetxeetan eskolatik kanpoko euskarazko jarduerak garatzeko aurrekontu-zuzkidurarik edukitzeari buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-04-4. NPAO: __ zenb., __
35. 2007-2008 eta 2006-2007 ikasturteetarako tarteen eta hizkuntza-ereduen araberako eskaintza eta eskari zehatzari buruz. Idatzizko erantzuna: 2008-05-9. NPAO: __ zenb., __
36. Nafarroako Gobernuaren eta Burlatako, Corellako, Lizarrako nahiz Iruñeko udalen arteko negoziazioen egoerari buruz (Nafarroako Gobernuaren mendeko 0-3 urteko Haur Eskolen kudeaketa kasuan kasuko udalei lagatzeko negoziazioak). Idatzizko erantzuna: 2008-05-16. NPAO: __ zenb., __

Mozioak: Batzordeko eztabaida: 7

1. Nafarroako Gobernuari Gurasoen Konfederazio Katolikoari idatzia bidaltzeko eta, bertan, Legean jasotako aginduen urraketa ez sustatzea eskatzeko egindako eskabideari buruz.

- Hezkuntza Batzordeko eztabaida: 2007-10-17. Bozketen emaitza: BAI: 1; EZ: 9; ABS.: 3. Ukatuta: NPAO: 21. zenb., 2007-10-26.
2. Nafarroako Gobernuari "Pedro de Ursúa" Institutu Publikoan ikasturte honetarako gaituriko lehenengo fasean dauden arazoak berehala konpontzeko egindako eskabideari buruz. Hezkuntza Batzordeko eztabaida: 2007-11-27. Bozketen emaitza: BAI: 7; EZ: 6; ABS.: 0. Ebazpena: 38. zenb., 2007-12-12.
 3. Nafarroako Gobernuari Nafarroako ospitale publikoetan 0-3 urteko zentroak sortzeko egindako eskabideari buruz. Osasun Batzordeko eztabaida: 2007-11-27. Bozketen emaitza: BAI: 12; EZ: 0; ABS.: 1. Ebazpena: 38. zenb., 2007-12-12.
 4. Nafarroako Gobernuari Gurasoen Mahaiaren eraketa ikasleen gurasoen partaidetzarako kide anitzeko organotzat arautzeko (federazioen bidez) egindako eskabideari buruz. Hezkuntza Batzordeko eztabaida: 2008-02-5. Bozketen emaitza: BAI: 13; EZ: 0; ABS.: 0. Ebazpena: NPAO: 14. zenb., 2007-02-13.
 5. Nafarroako Gobernuari, Antsoaineko Doña Mayor de Navarra ikastetxe berrian, zonarako behar diren D ereduko lerro guztia irekitzeko egindako eskabideari buruz. Hezkuntza Batzordeko eztabaida: 2008-02-5. Bozketen emaitza: BAI: 4; EZ: 6; ABS.: 3. Ukatuta: NPAO: 14. zenb., 2008-02-13.
 6. Nafarroako Gobernuari eskola-zuzkidurak abiatzeko Gida Plana aurkezteko egindako eskabideari buruz. Mahaiko Erab. Ezab.: 2008-03-10. NPAO: 26. zenb., 2008-03-14.
 7. Hezkuntza Sailari atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza ezartzeko plana lantzeari buruz. Hezkuntza Batzordeko eztabaida: 2008-05-15. Bozketen emaitza: BAI: 9; EZ: 0; ABS.: 3. Ebazpena: NPAO: 49. zenb., 2008-05-29.

Gobernuaren agerraldiak batzordeetan: 13

1. Hezkuntza Batzordeak hurrengo lau urteotan garatuko dituen ildo politikoei buruzko informazioa emateko. Agerraldiaren data: 2007-10-4.
2. Hezkuntza Batzordeak Europako Kontseiluko Adituen Batzordearekin egindako bilkuretan (Espainiako estatuak Eskualdeko Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Europako Gutuna betetzen duen ala ez aztertzeko) azaldukoari buruzko informazioa emateko. Agerraldiaren data: 2007-10-17.
3. Hezkuntza Kontseiluak Lehen Hezkuntzako maisuen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen plazak hornitzeko konpromisoari buruzko informazioa emateko. Agerraldiaren data: 2008-02-13.
4. Euskararen Nafar Institutuko zuzendaria den Xabier Azanzak institutu horretan egingo dituen jarduketak azaltzeko. Agerraldiaren data: 2008-02-20.
5. Hezkuntzako Sailburuak Eskola Eraikinen Gida Planaren betetze maila azaltzeko. Agerraldiaren data: 2008-02-26.
6. Hezkuntzako Sailburuak informazioa emateko Sailak ikasleak ikastetxeetan hizkuntzen arabera ez banantzea lortzeko harturiko erabakietarako. Agerraldiaren data: 2008-02-26.
7. Hezkuntza Sailburuak musikaren hiriaren eraikuntza-plana azaltzeko. Agerraldiaren data: 2008-02-13.
8. Hezkuntzako Sailburuak bitarteko irakasleen arazoa konpontzeko hartu behar diren neurriak azaltzeko. Agerraldiaren data: 2008-02-21.
9. Hezkuntzako Sailburuak hizkuntzen tratamendua konbinazio desberdinak ahalbidetzen dituen eredu bakarrean eta irekian oinarritzeko asmoari eta borondateari buruzko informazioa emateko. Agerraldiaren data: 2008-04-15.
10. Hezkuntzako Sailburuak Gida Plan berriaren edukiari buruzko informazioa emateko. Agerraldiaren data: 2008-04-30.
11. Hezkuntzako Sailburuak Irakurketa Plan berriaren edukiari buruzko informazioa emateko. Agerraldiaren data: 2008-04-30.

12. Nafarroako Gobernuak presidenteak Hezkuntza eta Osasun Sailen artean osasunari buruzko eskola-materiala argitaratzeko orduan egon den koordinazio ezari buruzko informazioa emateko. Batz. Ak. Kend.: 2008-05-12.
13. Hezkuntzako Sailburuak eta Osasuneko Sailburuak DBHko ikasleentzako materialaren edukiari eta Osasuneko Sailburuak horren edizioari ezarritako betoari buruzko informazioa emateko. Batz. Ak. Kend.: 2008-05-5.

Lan-bilkurak: 10

1. Liburu-saltzaileen elkarteak eskola publikoan oinarritzko hezkuntzarako testuliburuaren finantzazioari buruzko Foru Legeari buruzko iritzia emateko lan-bilkura. Bilkuraren data: 2007-11-27.
2. Herrikoa Federazioak Gurasoen Mahaia sortzeko proposamena azaltzeko. Bilkuraren data: 2007-11-7.
3. Cormin deritzon arduradunek ezinduen hezkuntzaren arloan dituzten beharri buruzko informazioa emateko eta proposamenak jakinarazteko lan-bilkura. Bilkuraren data: 2008-03-12.
4. Ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako filosofiako irakasleek ikasgaien inguruko kezka eta zalantza azaltzeko lan-bilkura. Bilkuraren data: 2008-02-19.
5. Nafarroako Ikastetxe Zuzendarien Elkarteak euren ikastetxeen egoerari buruzko txostena aurkezteko lan-bilkura. Bilkuraren data: 2008-03-12.
6. Institutuetako eta Bigarren Hezkuntzako Zuzendarien Elkarteak ordezkariek euren ikastetxeetako egoerari buruzko informazioa emateko lan-bilkura. Bilkuraren data: 2008-03-12.
7. Irakaskuntzako mahai sektorialeko sindikatuen ordezkaritzak Nafarroako bitarteko irakasleen oraingo arazoari buruzko balorazioa aurkezteko lan-bilkura. Bilkuraren data: 2008-04-2.
8. Bitartekoen Koordinazio Batzordearen ordezkaritza batek euren oraingo arazoa azaltzeko lan-bilkura. Bilkuraren data: 2008-04-2.
9. 0-3 urteko Plataformaren ordezkaritza batek hezkuntza-etapa honi buruzko informazioa emateko lan-bilkura. Bilkuraren data: 2008-04-2. Ganberako Araudiko 14. artikuluan oinarrituz egindako informazio-eskabidea.
10. Hezkuntza Itunari buruzko informazioa emateko lan-bilkura. Informazio-bidalketa: 2007-09-13.

Informazioa: 17

1. British eredu eskaintzen duten eta frantseseko edo alemanezko irakaskuntza ematen duten ikastetxeei buruz. Informazio-bidalketa: 2007-11-23.
2. Ikasturteko irakaskuntza ez-unibertsitarioekin lotutako zenbait gauzari buruz. Informazio-bidalketa: 2007-12-13.
3. Valle del Ebro institutua eraikitze Gida Planari buruz. Informazio-bidalketa: 2008-02-20.
4. Hezkuntza Sailak toki-erakundeei 2007ko ekitaldiko aurrekontuen kontura egindako transferentzia arruntei eta kapital-transferentziei buruz. Informazio-bidalketa: 2008-03-3.
5. Nafarroako Gobernuak Arturo Campión ikastetxeari dagokionez egindako txostenei buruz. Informazio-bidalketa: 2008-02-25.
6. Hezkuntza Sailak eleaniztasuna indartzeko plan aurrendarirako ikastetxe batzuk izendatzeko izan dituen arrazoiei buruz. Informazio-bidalketa: 2008-02-15.
7. Idazleak eskolan deritzon programari buruz. Informazio-bidalketa: 2008-03-7.
8. Sare publikoko eta itunpeko sareko ikastetxeetan matrikulaturiko ikasle immigrantei buruz. Informazio-bidalketa: 2008-03-11.
9. Eskola-liburutegiei buruz. Informazio-bidalketa: 2008-03-14.

10. Nafarroan hizkuntzak ikasteko programa esperimentalarekin lotutako zenbait alderdiri buruz. Informazio-bidalketa: 2008-04-4.
11. Nafarroan hizkuntzak ikasteko programa esperimentalaren barruan haur- eta lehen-hezkuntzarako idatzitako planteamendu metodologikoari buruz (programa, etab.). Informazio-bidalketa: 2008-04-4.
12. Hezkuntza Saileko Hizkuntza Batzordeari buruz. Informazio-bidalketa: 2008-04-4.
13. Osasun Sailaren eta Hezkuntza Sailaren artean eskolan hezkuntza garatzeko eta osasuna sustatzeko sinaturiko (1994) lankidetzaren hitzarmenari buruz. Informazio-bidalketa: 2008-04-11.
14. Erlijio irakasleen eta Artzapezpikutzaren eta Hezkuntza Sailaren artean harturiko erabakien inguruko zenbait gairi buruz. Informazio-bidalketa: 2008-04-17.
15. Nafarroako Gobernuak ikastetxe pribatuen patronalarekin sinaturiko finantziario-akordioari buruz. Informazio-bidalketa: 2008-04-23.
16. Nafarroako eskola publikoetan eta itunpeko eskoletan eskolaturiko immigrante kopuruari buruz. Informazio-bidalketa: 2008-05-16.
17. British Council itunpeko ikastetxeetan eta ikastetxe publikoetan nahiz pribatuetan ingelesean lorturiko ebaluazio-datuei eta emaitzei buruz. Informazio-bidalketa: 2008-05-21.

3.- ZERBITZU OROKORRAK

3.1. *Administrazioa. Egiturari lotutako alderdiak*

Hezkuntza Sailaren egitura organikoari buruzko araudia:

Irailaren 3ko 122/2007 Foru Dekretua, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa ezarri duena:

- Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusia.
- Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Zuzendaritza nagusia.
- Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia.
- Idazkaritza Nagusi Teknikoa.

Irailaren 10eko 183/2007 Foru Dekretua, Euskararen Nafar Erakundea izeneko erakunde autonomoa sortu duena.

Martxoaren 17ko 17/2008 Foru Dekretua, Hezkuntza Sailaren egitura aldatu zuena, Ikuskapen Tekniko eta Zerbitzuan atal bat sortuta.

50/2008 Foru Dekretua, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa aldatu duena, Ikuskapen eta Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian "Nominak eta Aurrekontu Kontrola Zerbitzua" izeneko beste zerbitzu bat sortuta.

Maiatzaren 26ko 55/2008 Foru Dekretua, Euskararen Nafar Erakundea erakunde autonomoaren izena aldatu duena; erakunde horren izen berria Euskarabidea da.

Ekainaren 30eko 80/2008 Foru Dekretua, Ikuskapen Teknikoa eta Zerbitzuak izeneko zerbitzuaren izena eta funtzioak aldatu dituena; zerbitzu horren izen berria "Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua" da.

Abenduaren 11ko 203/2007 Foru Agindua, Hezkuntzako Sailburuarena; horren bidez, Hezkuntza Saileko negoziatuen atxikipena eta funtzioak ezarri dira.

3.2. Hezkuntza Sistemaren Kalitatea

3.2.1. Ikastetxeak

1. Sareen egitura

Programan parte hartzen duten ikastetxeek egitura hauxe dute, IKKSaren ezarkuntzan duten garapen mailaren eta ematen duten hizkuntza-modalitatearen arabera.

1. laukia - Kalitateko heziketa-sareetan parte hartzen duten ikastetxeak, 2007/2008 ikasturtea								
N1 sarea	N2 sarea	N3 sarea	N4 Cas sarea	N4 Eus sarea	N5 Lizarra sarea	N6 Tutera sarea	N6 Eus sarea	N6 Lekaroz sarea
"Toki Ona" BHI, Bera	"Ibaialde" BHI, LH Burlata	DBHI "Berriozar" Berriozar	"Berriain" HEIPZ, Berriain	"Ezkaba" IP-Antsoain	"Dña Blanca de Navarra" HEIPZ, Lerin	"San Babil" HEIPZ, Ablitas	"Arturo Kampion" IP-Iruñea	"Doneztebe" IP-Donztebe
"Donapea" LEZ, Iruñea	"La Paz" DBHI, Cintruénigo	"Alhama" BHI, Corella	"Otero Navascués" HEIPZ, Cintruénigo	"Alaitz" IP-Barañain	"Martínez Baigorri" HEIPZ, Lodosa	"Alfonso X El Sabio" HEIPZ, San Adrian	"Domingo Bados" IP-Olazti	"Irain" IP-Lesaka
"Julio Caro Baroja" BHI, Iruñea	"Cerro de la Cruz" DBHI, Cortes	"Politeknik." BHI, Lizarra	"San Miguel" HEIPZ, Noain	"Ermitaberri" IP-Burlata	"Sta María" HEIPZ, Los Arcos	"Sta Ana" HEIPZ, Buñuel	"Iruñita Gotzaita" IP-Iruñita	"Landagain" IP-Etxalar
"Donibane" BHI, Iruñea	"Basoko" BHI, Iruñea	"Marqués de Villena" BHI, Martzilla	"Mendillorri" HEIPZ, Iruñea	"Amaiur" Ikastola-Iruñea	"San Fco Javier" HEIPZ, Mendabia	"San Juan de Jerusalem" HEIPZ, Cabanillas	"Julian Gayarre" IP-Erronkari	"Rikardo Baroja" IP-Bera
"Iturrama" BHI-Iruñea	"Virgen del Camino" LEZ, Iruñea	"María Ana Sanz" BHI, Iruñea	"Victor Pradera" HEIPZ, Iruñea	"Elorri" IP-Iruñea	"Las Amescoas" HEIPZ, Zudaire	"Sta Vicenta M ^{ra} " HEIPZ, Cascante	"Luis Fuentes" IP-Lakuntza	"San Fco Javier" IP-Elizondo
"Navarro Villoslada" BHI, Iruñea	"Ribera del Arga" BHI, Peralta	"Ega" BHI, San Adrian	"San Bartolome" HEIPZ, Ribaforada	"Sanduzelai" IP-Iruñea	"Joaquín Romera" DBHI, Mendabia	"Cerro de la Cruz" HEIPZ, Cortes	"Mendigoiiti" IP-Iruñea	"Sunbillako" IP-Sunbilla
"Plaza de la Cruz" BHI, Iruñea	"Sierra de Leyre" BHI, Zangoza		"Lorenzo Goicoa" HEIPZ, Atarrabia	"Virgen Blanca" IP-Uharte	"Elortzibar" DBHI, Noain	"Stos Justo y Pastor" HEIPZ, Fustiñana	"Nta Sra De Oreaga" IP-Garralda	
"Politeknikoa" BHI, Tafalla			Azagrako DBHI	"Atargi" IP-Atarrabia	"Nek. eta Abel." BHI, Iruñea	"Mardones y Magaña" HEIPZ, Murchante	"Otsagi" IP-Otsagi	
"Benjamín de Tudela" BHI			"San Miguel de Aralar II" BHI, Altsasu	"Erreniega" IP-Zizur	"Sanitarioa" BHI, Iruñea	"Virgen de la Cabeza" HEIPZ, Tutera	"San Donato" IP-Etxarri-Aranatz	
"ETI" LEZ, Tutera			"Energia berriztag." LEZ, Imarkoain	"Lekarotz" BHI, Elizondo		"Felix Zapatero" HEIPZ	"San Miguel" IP-Agoitz	
"Valle del Ebro" BHI, Tutera			"Sierra de Leyre" BHI, Irunberri			"Carcastillo" DBHI, Zarrakastelu	"Xabier Zubiri" IP-Zubiri	

Iturria: Hezkuntza Kalitateko Atala

2. “Kalitatea Kudeatzeko Sistemen Zabalkundea” programa

Programa honen helburua Kalitatea Kudeatzeko Sistema ezartzea da, Erabateko Kalitatearen edo Bikaintasunaren bidezko kudeaketa aukeratzen duten ikastetxeen antolamendu eta funtzionamendu mailako beharizantara egokituta.

Hori arautzen duen arauak ikastetxeetako hezkuntza-jarduketaren arlo nagusien kudeaketa sustatzen du, prozesuetan oinarrituriko ikuspegia hartuta. Halaber, Bikaintasunaren barruko zenbait arlo aintzat hartzen dituen kudeaketa-esparrua errazten du; esate baterako, lidergoa, planifikazio estrategikoa, pertsonak, baliabideak, prozesuak, bezeroak eta emaitzak.

Arau honetan adierazitako baldintzak bateragarriak dira beste eredu estandar batzuek ezarritakoekin (adibidez, ISO 9001: 2000 eta EFQM).

3. Kanpoko onarpenak

2007/2008 ikasturtean Hezkuntza Saileko sareak osatzen dituzten ikastetxe batzuei kanpoko onarpenak egin zaizkie. Guztira, 5 ikastetxe izan dira eta ondoren adierazitakoaren arabera banatuta daude:

2. laukia - Ikastetxe publikoek lorturiko kalitateko kanpoko onarpenak, 2007/2008 ikasturtea		
Onarpen mota	Eman duen erakundea	Ikastetxea
“Ikastetxe bikaina” ziurtagiria, 230/2006 Ebazpenaren arabera	Hezkuntza Saila	“Berriozar” DBHI, Berriozar “Marqués de Villena” BHI, Martzilla “Ega” BHI, San Adrian
Europako EFQM Bikaintasuna, (500+ Urrezko Zigilua)	Kalitaterako Nafarroako Fundazioa	“Navarro Villoslada” BHI, Iruñea
Zerbitzu Publikoen kalitatearen saria (2007), brontzezko kategoria	Nafarroako Gobernua	“Iturrama” BHI, Iruñea
Bikaintasunaren Saria Kudeaketa Publikoari	Herri Administrazioen Ministerioa	“Navarro Villoslada” BHI, Iruñea

Iturria: Hezkuntza Kalitateko Atala

Hurrengo taulak onarpena duen ikastetxe kopurua laburbiltzen du

3. laukia -Ikastetxe publikoek 2003tik 2008ra lorturiko kalitateko ziurtagiri kopuruaren bilakaera						
Kanpoko onarpenak	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Europako Kalitatea	5	11	14	14	14	14
ISO 9001 Ziurtagiria		4	4	10	10	10
Europako Bikaintasuna			1	2	2	2
Ikastetxe Bikaina Hezkuntza Saila					18	21

Iturria: Hezkuntza Kalitateko Saila

4. Sareen lana

N1 SAREA, "ADIERAZLEEN KUDEAKETA, II"

N2 sareko ikastetxeen partaidetzarekin handituriko mintegiak jarraitu egin zuen inkestak adostasunez egiteko eta, ondoren, emaitzak tresna informatikoen bidez ustiatzeko lanarekin. Lan hori sareko bilkura guztietan egon da, eta, hortaz, ezin izan da amaitu aurreko ikasturtean egindako lanetik falta ziren adierazleen adostasuna. Interes taldeen poztasunari buruzkoak adostu dira, inkestaren eraginezkoak.

N2 SAREA, "KONPROMISOEN GUTUNA"

Mintegi honen helburuak, izatez ere, konpromisoen gutuna deritzon tresnan trebatzea, horien egitura adostea eta parte hartu duten ikastetxeen behin betiko agiria idaztea ziren.

Mintegi honetan N2 sareko zazpi institutuek hartu dute parte, eta guztiek ere ezarritako epean idatzi dute konpromisoen gutuna. Horrela, N1 eta N2 sareetako 17 ikastetxek dagoeneko argitaratuta dute gutuna, eta, horrela, aurre hartu die Sailari berari eta legez eskaturiko epeei.

N3 SAREA

Sare honetan, mintegiaren helburua parte hartu duten ikastetxeetan kalitatearen kalitate-sistema guztiz ezartzea izan da, Hezkuntza Sailaren Programan ezarritako baldintzen arabera, Sailaren Ikastetxe Bikaina Ziurtagiria lortzeko.

Ikuskapenaren ebaluazioan aurkeztu ziren ikastetxeek ikastetxe "Bikaina" ziurtagiria lortu zuten, eta hori Hezkuntzako sailburuak eman zien uztailaren 10ean. Beraz, horrek agerian jartzen du lan emankorra egin eta finkaturiko helburua lortu dutela.

Gainerako ikastetxeek lan garrantzitsua egin dute ikasturte honetan, eta eurentzat oso positiboa izan da lehenengo barne-auditoria egitea, hori sistema osoari buruzkoa izan ez arren. Orain hobetu dakite euren egoera erreala zein den eta zer hobekuntza egin behar duten 2008-2009ko ikuskapenaren ebaluazioan arrakastaz aurkezteko.

N4 SAREA

Ikasturte honetan irakaskuntza-planifikazioko prozesuak eta estrategikoak osatu dira (Plan Estrategikoa, Urteko Plana), 2006ko IKKS Arautik osatu gabe zeudenak, gainera, aurrerapausoak eman dira neurketan, azterketan eta hobekuntzan, eta, horietan, euskarazko eta gaztelaniazko ikastetxeen sareko homogeneousazioa eta kalibrazioa egin dira.

N5 SAREA

Bigarren urtean, sareak aldaketa batzuekin jardun du. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak osatu eta irakaskuntza-planifikaziokoak hasi dira, hezkuntza-eskaintzaren, aurretiazko matrikularen eta matrikularen publizitate-prozesuarekin. Horien guztien metodologia berbera izan da: ikastetxeen errealitatea dokumentatu, hobekuntzak nahiz adierazleak hautatu (bozketa anizkoitzaren bidez) eta kontrolerako plana egin.

SARE BERRIEN HASIERA

Ikasturte honetan 3 sare berri hasi dira, gehienbat Haur eta Lehen Hezkuntzakoak; horiek Tuterako, Iruñeko eta Lekarozeko ILLen mende daude, eta kalitatea kudeatzeko sistemen diseinuan eta ezarkuntzan egingo dute lan, beste sareek egindako lanaren ildotik.

SAREEN BESTE JARDUERA BATZUK

Sareetan emandako heziketaren osagarritzat, ikastaro eta mintegi monografikoak antolatu dira, sareen barruko zuzendaritza taldeentzat edo ikastetxe horietako irakasleentzat:

1. Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren Barne Auditoriako Mintegia.

Helburua: partaideak barne-auditoriak egiten trebatzea, eta N3 sareko ikastetxeetan halako auditoriak egitea, sailaren ziurtagiria aurkezteko alde aurreko pausotzat.

Iraupena: 10 ordu.

2. Homogeneizazioko eta kalibrazioko mintegia.

Helburua: N4 sareko ikastetxeetan prozesu honen ezarkuntza erraztea.

Iraupena: 10 ordu.

3. Desadostasunak datu-basearen bidez kudeatzeko mintegia.

Helburua: desadostasunen kudeaketa erraztea, tresna informatiko baten bidez.

Iraupena: 10 ordu.

4. Bezeroaren poztasuna neurtzeko mintegia.

Helburua: prozesu horri buruzko hausnarketan sakontzea, ikastetxeen inkestak ikuskatzea nahiz inkesta komuna egitea, eta datuen ustiapena hobetzea.

Iraupena: 20 ordu.

5. Ia zuzeneko den On-Line ikasturtea, ikastetxeetako kalitatea kudeatzeko sistemei buruzkoa.

Kalitatea kudeatzeko sistemak dituzten ikastetxeetako kalitateko zuzendaritza talde guztiei nahiz erantzuleei, ikastetxeetako arduradunei eta halako kudeaketa-sistemak ezagutu nahi dituzten irakasleei zuzenduta.

Iraupena: 35 ordu.

5. Datu orokor interesgarriak

Kalitateko sarearen bilakaera, sortu zenetik honakoa, ondorengo lauki honetan jasota dago:

4. laukia - Ikastetxe publikoen kalitate-sarea datuetan, 2003/2004tik 2007/2008ra bitarteko ikasturteak					
Ikasturteak	2003/2004	2004/2005	2005/2006	2006/2007	2007/2008
Parte hartu duten ikastetxeak	31	54	50	56	81
Emandako heziketa-orduak	441	449	636	891	755
Kalitatearen heziketa-jardueretan parte hartu duen pertsona kopurua	291	187	389	600	450
Sareetako pertsona kopurua	70	112	127	169	318
Jasotako heziketa-orduak	9.578	7.029	12.138	17.441	15.576
Bilera kopurua mailaren arabera:					
N1	7	7	5	23	6
N2	6	11	11	6	9
N3	8	10	11	6	7
N4	7	14	14	13	15
liP ¹	-	-	8	4	-

¹ liP: Inverstors in People.

N5	-	-	-	8	7
N6	-	-	-	-	17
Bilerak guztira	29	42	49	60	61

Iturria: Hezkuntza Kalitateko Atala

3.2.2. Itunpeko ikastetxeak

Ikastetxe pribatuek lorturiko kanpoko onarpenak honako hauek izan dira:

5. laukia - Itunpeko ikastetxeek lorturiko kalitateko kanpoko onarpenak, 2007/2008 ikasturtean		
Onarpen mota	Eman duen erakundea	Ikastetxeak
Nafarroako Saria Bikaintasunari (ETEak)	Nafarroako Kalitaterako Fundazioa	“San Cernin” ikastetxea
Europako 500+ Bikaintasun Zigilua	Nafarroako Kalitaterako Fundazioa	“San Cernin” ikastetxea
Familia Erantzukizuneko Enpresaren Zigilua	Fundazioa +Familia	“San Cernin” ikastetxea
KEI Ereduaren Egiaztapena	HORREUM Fundazioa	Iñigo Aritza ikastola

Iturria: Nafarroako Enpresaburuuen Konfederazioa eta Nafarroako Ikastolen Federazioa.

3.3. *Berdintasuna*

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak, politika publikoen jarduketak gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioa gauzatzeko duen garrantziaz jabetuta, hezkuntzaren arloan esku-hartze globala garatzea erabaki du, bere eskumen-eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna jasotzeko.

Horretarako, 2007an, Berdintasuneko Atala sortu eta horri honako **funtzio** hauek esleitu zitzaizkion:

1. Hezkuntza-sistema berdintasun-printzipiora egokitzeko sustapena ematea, planetan eta programetan baterako hezkuntzaren eta generoaren ikuspegia kontuan hartuta, eta teknikarien eta irakasleen espezializazioa, gaitasuna eta orientazioa bermatuz.
2. Hezkuntza-sisteman berdintasuna integratzearen jarraipenari, ebaluazioari eta hobekuntzari loturiko alderdi guztietan laguntzea, Saileko Zuzendaritza Nagusiekin eta Nafarroako Gobernuarekin nahiz beste administrazio batzuekin koordinatuta.
3. Ebaluazioko tresnak eta adierazleak diseinatzea, eta irizpide eta material orientagarriak garatzea, baterako hezkuntzaren eta generoaren ikuspegia sartzeari buruz.
4. Eskola-komunitatea sentsibilizatzea, arlo guztietan aukera-berdintasunaren alde lan egin behar izateari dagokionez: irakasleak, familiak, ikasleak, ikastetxeak, materialak, etab.
5. Berdintasun-printzipioa unibertsitatearen arloan sartzea, generoko azterketa diziplina guztietan integratuz, batik bat honako arlo hauei loturiko diziplinetan: irakasleen heziketa, graduondoko espezifikoen sorkuntza eta arlo honetako ikerketa espezializatuei buruzko azterlanak egitea.
6. Hezkuntza Sailak egiten dituen estatistiketan eta azterlanetan generoko ikuspegia sartzea.


Funtzio hauek garatzeko, funtsezkoa da lehenengo ikasturte honetan **Diagnostiko eta Planifikazio Estrategikoko Proiektua** garatzea; horrek, Sailaren eta ikastetxeen errealitatean oinarrituz, hurrengo urteotan garatu behar diren ildo estrategikoak eta ekintzak ezarriko ditu.

Plan hori *erreferentziako Esparru Agiria* izango da, *2008tik 2012ra Nafarroako hezkuntza-sisteman berdintasuna integratzeko*.

Txosten honetan emandako informazioa oraindik ere mugatua da, proiektua garapen-fasean baitago; izan ere, lorturiko datuen balioztapena oraindik ez da kontrastatu lan taldeekin.

Diagnostikoko datuek balio estrategikoa izango dute lan taldeek aintzat hartzen nahiz balioztatzen dituztenean eta Sailerako zein ikastetxeetarako hobekuntza-ildo estrategikoak zehazten direnean.

Diagnostikoaren irismen errealak bertatik ondorioztatzen diren proposamen estrategikoak izango dira, eta horiek 2008-2009 ikasturteko lehenengo hiruhilekoan proposatuko dira.



Proiektuaren ikuspegia:

- ▶ **Zeharkakoa**, generoko ikuspegia sartzeari dagokionez; antolamendua aztertu eta jarduketak antolamenduaren sistema formalean nahiz informalean integratuko ditu.
- ▶ **Partaidetzakoa**. Hezkuntza-komunitateko pertsona, eragile eta ordezkari guztien iritzia diagnostikoan integratuko ditu, baita berdintasun-planeko jarduketan zehaztapenean eta proposamenean ere.
- ▶ **Adostua**. Ekintza Planik onena ez, baina adostasun handiko jarduerak dituen plana diseinatu beharko da.
- ▶ **Anitza**, estrategien eta aplikazioen zehaztapenari dagokionez, zer eremutan jardun behar den kontuan hartuta. Alderdi horretatik, inplikaturiko ikastetxeen/zerbitzuen eta eragileen aukeretara egokituak eta anitzak izango dira, edukien eta kudeaketaren ikuspegitik begiratuta.
- ▶ **Prozesu sistematikoen hasierara bideratuta**. Plana eratuko duten jarduketak ez dira finalistak izango, Antolamenduan irauten duten jarduketadun prozesuak baizik.
- ▶ **Ikastetxeen eta Sailaren ebaluazio- eta jarraipen-sistemetan integratuta**. Diagnostikoaren ondoriozko jarduketa planak objektibatu egingo dira, Sailaren kudeaketa-planean eta ikastetxeen ebaluazio- nahiz jarraipen-prozesuetan jasotako zenbakizko adierazleekin.

Koordinazioa eta lankidetzak:

Proiektua Genero Berdintasun eta Kalitate Zerbitzuko Berdintasun Atalak koordinatu du, kanpoko Kontsultoretza baten laguntza teknikoarekin eta bi lan talderen laguntzarekin zein lankidetzarekin; talde horietariko bat irakasleek eta ikastetxeetako zuzendaritzako kideek osatzen dute, eta bestea, berriz, Saileko langileek. Inkestak egiteko eta datuak balioztatzeke zein tratatzeko prozesua 2008ko urtarriletik abuztura bitartean egin da.

Proiektua Saileko pertsona guztiei jakinarazi zaie, Hezkuntzako sailburuaren posta elektronikoko pertsonalizatuaren bidez; horrekin batera, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusiak sinaturiko gutuna bidali da, eta horrek Diagnostikoko Proiektuari eta Genero Berdintasuneko Plana lantzeari (Hezkuntzan) buruzko informazioa ematen du. Ikastetxe guztiek jaso dute informazio hori, Antolamendu, Kalitate eta Berrikuntzako zuzendari nagusiaren eta Unibertsitate eta LHko zuzendari nagusiaren gutunarekin batera.

Saileko eta ikastetxeetako pertsona guztiek parte hartu ahal izan dute, euren iritzia emanaz, Saileko langileentzat, irakasleentzat eta ikastetxeetako zuzendarientzat planteaturiko hiru inkestaren bidez; inkesta horiek on-line edo posta arruntez bete dira.

Saileko langilariaren %100ari jakinarazi zaio, baita Nafarroako ikastetxe guztiei ere (publikoak eta itunpekoak); informazioa langileen artean (irakasleak eta gainerakoak) banatzeko ardura ikastetxe bakoitzak dauka.

Ekintza-proposamenean diagnostikoaren eta balioztapenaren datuak jakinarazteko eta erkatzeko azken fase honetan hezkuntza-komunitateko gainerako gizarte-eragileen eta erakundeen partaidetzarekin jarraituko da, Hezkuntzako Genero Berdintasuneko Planean jaso ahal izateko.

Aztertutako informazioa

Antolamenduaren inguruko informazio kuantitatibo eta kualitatibo garrantzitsua aztertu da, gizonek eta emakumeek bertan duten posizioari, izaerari, egoerari eta inplikazioari buruzkoa.

Langilariaren egoerari buruzko **informazio kuantitatiboa**, sexuaren arabera banandua, Ikuskapen eta Zerbitzuko zuzendari nagusiak eman du; informazio hori barne-kudeaketari buruzkoa izan da, baita honako honen gaineko datuei buruzkoa ere: langilariaren banaketa, langile-mugimenduak, absentismoa, pertsonen familia-erantzukizunak, hautapena, sarrera eta sustapena, heziketa, soldata mailak eta poztasun-indizeak.

Baloraturiko **informazio kualitatiboa** Sailaren eta ikastetxeen barne- eta zerbitzu-prozesuak aztertzeko planteatu da, baita langileek euren lanari dagokionez dituzten iritziak, beharrianak eta pertzepzioak aztertzeko ere; horren helburua hau da:

- Kudeaketa Sistemako arauak, jokabide-jarraibideak eta prozedura formalak nahiz informalak identifikatzea, antolamenduaren barruko nahiz kanpoko jarduerak arautzen dituztenak.
- Emakumeek eta gizonen Enpresaren baliabideak, ondasunak (heziketa, soldatak, irabaziak,...) eta irabaziak nola lortzen, erabiltzen eta kontrolatzen dituzten zehaztea, eta langileen poztasun maila zehaztea ere bai.
- Emakumeek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko moduak identifikatzea (kantitatea eta kalitatea).
- Sailak emandako zerbitzuen genero-eragina ebaluatzea.
- Irakasleen iritziak nahiz jarrerak, proiektuak, jarduketak (ikastetxeetan hasitakoak) eta sentsibilizazio maila identifikatzea, honako honi dagokionez:

Partaidetzaren datuak

- Saila:

Sailaren barruko 490 pertsonetatik, 257k erantzun diote inkestari; hau da, Saileko pertsona guztien %52,45ek hartu dute parte (iritziak emanez) diagnostiko honen lanketan.

Sexuaren arabera, ehunekoak oso antzekoak dira. Emakumeen %52,77k eta gizonen %51,91k hartu dut parte. Horrenbestez, esan daiteke sexuaren araberako ordezkari (inkestako erantzunetan) bermatuta dagoela.

- Ikastetxeak:

Ikastetxeei dagokienez, 1.575 irakaslek erantzun dute; horien artean 1.130 emakumeak izan dira, eta 444 gizonak. Partaidetza, beraz, ez da hain orekatua; hain zuzen ere, emakumeen %71,7koa eta gizonen %28,2koa izan da.

Ikastetxeko zuzendariari zuzendutako inkesta 120 ikastetxek erantzun dute.

3.4. Ikuskapena.

3.4.1. Ikuskapen Teknikoa eta Zerbitzuak izeneko Zerbitzuaren jardueri buruzko txostena, 2007/2008 ikasturtean

Helburu orokorrak eta bereziak:

Ikuskapen eta Zerbitzuko zuzendari nagusiak urriaren 15ean emandako 287/2007 ebazpenean adierazita daude².

Langileria:

Ikuskatzaileen langileriaren bilakaera honako lauki honetan jasota dago:

6. laukia - Ikuskapeneko langileriaren bilakaera, 2003/2004tik 2007/2008rako ikasturteak					
Ikasturtea	2003/04	2004/05	2005/06	2006/07	2007/2008
Lanpostuak	23	23	23	25	25
Okupatuak	21	23	23	25	25

Iturria: Hezkuntza Ikuskapeneko Zerbitzua

3.4.2. Heziketa eta Hobekuntza Plana, 2007/2008 ikasturtea

2007ko iraila – 2008ko ekaina.

7. laukia - Heziketa eta Hobekuntza Nafarroako Ikuskapen Zerbituan, 2007ko irailetik - 2008ko ekainera			
Jardueraren antolatzailea	Jardueraren izena	Ikuskatzaile kop.	Ordu kop.
Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa	Hezkuntza-ikuskapena eta irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuak	3	20
Ebaluazio Ministerioa (HKM)	Itemen azterketa eta TRI	1	30
Extremadurako Batza / Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa	Autonomia Erkidegoetako Hezkuntza Ikuskapeneko Erantzukizunen XIII. Jardunaldiak	1	20
Errioxako Gobernua / Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa	Autonomia Erkidegoetako Hezkuntzako Ikuskapeneko Arduradunen XIV. Jardunaldiak	1	20

² Ikusi 1. kapituluko 1.1.2.3. epigrafeko 7. zenb.

Anie- Hezkuntzako ikuskatzaileen nazio-elkartea	Oinarrizko gaitasunak eta bizikidetzaren ikastetxeetan	3	10
Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua. Nafarroako Gobernua	Funtsezko oinarri juridikoak. 15/2004 Foru Legea	23	12
Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua. Nafarroako Gobernua	Oinarrizko gaitasunak eta diagnostiko-ebaluazioak	23	3
Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua. Nafarroako Gobernua	Kanpoko ebaluazioaren emaitzen interpretazioa	23	4
INAP. Nafarroako Gobernua	EBko hizkuntzen ikastaro trinkoak (ingelesa, frantsesa)	4	72
Nafarroako Kalitate Fundazioa	EFQM modulua: Bezeroaren arreta eta poztasuna	3	8

Iturria: Hezkuntza Ikuskapeneko Zerbitzua

3.5. Orientazioa

3.5.1. Orientatzaileak ikastetxe publikoetan.

8. laukia - Orientatzaile kopuruaren bilakaera ikastetxe publikoetan, 2003/2004tik 2007/2008rako ikasturteetan					
Ikasturtea	2003/04	2004/05	2005/06	2006/07	2007/2008
Orientatzaileak	111	116	120	125	148

Iturria: Eskola Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzua.

Hezkuntza-sareko orientatzaile kopurua handitzen doa oraindik ere. Urte honetan, langileriak %18,4ko hazkundea izan du.

9. laukia - Orientatzaileek ikastetxe publikoetan duten banaketa. 2007/2008 ikasturtea				
Zona	Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoa	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua	Bigarren Hezkuntzako Institutua	Guztira
Iruñea	39	6,5	25,5	71
Lizarra	9	3	5	17
Tafalla	11	1	4	16
Irurtzun	5,5	1	2,5	9
Tutera	14	2	7	23
Elizondo	6		3	9
Zangoza	1,5		1,5	3
Guztira	86	13,6	48,5	148
NHBBZko orientatzaileak				
				1
Ikusmenekoak				1
Entzumenekoak				1
Jarduera eragilekoak				1
Lehen Hezkuntzako psikikoak				2
Bigarren Hezkuntzako psikikoak				1
Euskarako psikikoak				-
Jokabideko psikikoak				2
Laguntza goiztiarreko modulukoak				3
Hezkuntza Bereziko Ikastetxeetakoak				2
Tuterako NHBBZ				0
				13
			Guztira	

Orientatzaileak Eskola Orientazioko UTan	
Negoziatuko buruzagitza	1
Aholkulari teknikoa	1
Bizikidetzak aholkularitza	
Guztira	2
Orientatzaileak guztira	
Zuzeneko laguntza	148
NHBBZ zentroei	13
Orientazioko negoziatua	2
Guztira	163

Iturria: Eskolako Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzua

3.5.2. Orientatzaileak itunpeko zentroetan:

10. laukia - Orientazioaren Bilakaera Nafarroako Itunpeko Ikastetxeetan, 2003/2004tik 2007/2008ra bitartean										
Hezkuntza maila	2003/2004 ikasturtea		2004/2005 ikasturtea ³		2005/2006 ikasturtea		2006/2007		2007/2008	
	Ikast. Kop.	Ordu kop.	Ikast. Kop.	Ordu kop.	Ikast. Kop.	Ordu kop.	Ikast. Kop.	Ordu kop.	Ikast. Kop.	Ordu kop.
Lehen Hezkuntza	45	499	44	501	44	505	48	528	48	536
B. Hezk. (DBH, Batxilergoa)	39	452	38	442	38	442	39	444	39	437
LH eta PIP	5	68	6	69	6	68	6	68	6	73
Guztira	*	1.019	*	1.012	(*)	1.015	(*)	1.040	(*)	1.046

* Ez da ikastetxe kopuru osoa ageri, batzuek irakaskuntzak partekatzen baitituzte (DBH, Batxilergoa, LH eta PIP).

Iturria: Ikastetxe eta Ikasteko Laguntza Zerbitzua.

³ Ez da Baztan ikastola jaso, udal-titulartasuneko. San Agustin ikastetxea desagertu egin da (Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa). LHko Heziketa Politeknikoko ikastetxea agertu da.

3.6. Irakasleei Laguntzeko Ikastetxeak (ILI)

3.6.1. Irakasleen Urteroko Heziketa Plana, 2007/2008 ikasturtea

Irakasleen urteroko heziketa-plana (2007/2008) uztailaren 12ko 749/2007 Ebazpenaren bidez onetsi zen.

3.6.1.1. Helburu orokorrak, jarduketa-ildoak, modalitateak.

Helburu orokorrak:

Ondoren formulatzen diren helburuek Hezkuntza Sailaren iritzia adierazten dute, Heziketa Plan honen proposamenetan dagoen esku-hartze ereduaren ezaugarri nagusiei buruz. Ondoren adierazitakoaren arabera zehazten dira:

- Kalitatea Kudeatzeko sistemak garatzea, ikastetxeetan eta hezkuntza-zerbitzuetan.
- Taldeko lanaren kultura sustatzea, norberaren konturako ikaskuntza, erabaki-hartzeak nahiz partekaturiko akordioak eta lanbide-jardun onen trukea bultzatzeko.
- Metodologia eta antolamendu mailako estrategiak hedatzea, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen hobekuntzarako eta esku-hartzerako, curriculum-arlo eta heziketa-eremu guztietan, gehienbat funtsezko gaitasunak nabarmenduta.
- Ikastetxeko planen diseinua eta gauzapena sustatzea, aniztasunaren tratamendu egokirako eta bizikidetzaren hobekuntzarako.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera sustatzea, curriculum-arloen ikaskuntzan.
- Irakasleei prestakuntza balioanitzea eta malgua eskaintzea, Lanbide Heziketaren arloko eduki berritzaileetarako egokitzapena errazteko.
- Heziketa iraunkorreko prozesuak ebaluatzeko prozedurak eta estrategiak ezartzea, horien egokitzapena eta irakasleen hezkuntza-jarduerarako transferentzia maila kontrastatzeko.

Jarduketa-ildoak:

1. Ikastetxeen autonomia sustatzea, planifikazioa, giza baliabideen nahiz baliabide materialen kudeaketa eta ebaluazioa ahalbidetzen duten programen, kudeaketa-sistemen eta ereduaren aplikazioa erraztuz; horrela, lider pedagogikoek oinarri oineko erabaki zorrotzak hartu ahal izango dituzte.

- “Zuzendaritza Taldeetarako Heziketa” programa indartuta, ikastetxeetako zuzendaritza taldeei ikastetxeko errealitatearen diagnostiko egokia egiteko behar diren trebetasunak, tresnen menderakuntza eta ezagupenak bermatzeko.
- Erdi zuzeneko den modalitatea aukeratuz; modalitate horrek informazio- zein heziketa-jarduerekin, lan pertsonalarekin eta berdinen arteko lankidetzarekin konbinatuko du urruneko heziketa.
- Zuzendaritza-proiektu baten garapena proposatuta, erreferentziako tresna praktikotzat, irakaskuntza-funtzioa hobetzeko erdua izateko.
- “Ikastetxeen Kalitatea Kudeatzeko Sistemen Zabalkundea” Programako sareko lana sustatuz.

2. Ikastetxeen eta Hezkuntza Zerbitzuen heziketa-beharrizanei erantzun egokia ematea (ELO ezartzearen eraginezko beharrizanak).

- Hezkuntzari buruzko Lege berria Etapako Programetan eta Programa Espezifikoetan aplikatzearen eraginezko heziketa-beharrizanei erantzun egokia emanez.
- Ikastetxeek egin eta eurentzat nahiz beste batzuentzat emaitza onak emateko bermeak dituzten berrikuntza-proposamenak sustatuz.
- Hezkuntza Zerbitzuak bultzatuz, ikastetxeen edota didaktika-sailen eskariei erantzun egokia emateko.
- Aniztasunaren arreta, curriculumaren egokitzapenak eta ikaskuntza-zailtasunen prebentzioa sustatuz.

3. Irakaskuntzako oinarrizko gaitasunen esparrua garatzea eta aplikatzea: pedagogia-gaitasuna, arloaren ezagupenekoa eta metodologikoa, eta antolamendu mailako eta pertsona arteko planifikazioa, aplikazioko testuinguru guztiak aintzat hartuta.

- Curriculum berriaren eraginezko jarduketa bakoitzerako eskumen-esparrua ezarrita, Europako erreferentziako esparruaren barruan.
- Irakasleen prestakuntza-beharrizanei erantzun egokia emanez (ikasleek irakurtzeko zein idazteko dituzten gaitasunak hobetzeko planen eraginezko beharrianak).
- Irakasleen prestakuntza-beharrizanei erantzun egokia emanez (arazoak ebazteko gaitasunak hobetzearen ondoriozko beharrianak).
- Ikastetxeek euren irakurketa-plana lantzearen eraginezko prestakuntza-beharrizanak aintzat hartuz.
- Ikastetxeek hizkuntzen tratamendu integratuan (heziketako moduluen eta aholkularitzen bidez) dituzten beharrianak kontuan hartuta.

4. Irakasleen heziketa sustatzea, euren garapen pertsonalerako eta familia inguruaren garapenerako.

- Gaitasun emozionala garatzeko estrategien erabilera prestakuntza sustatuz, gaitasun hori oinarrizkoa baita garapen pertsonalerako eta gizarte garapenerako.
- Balioen hezkuntza garatuz, ikastetxeetan bizikidetzakudeatzeko eskaintza integratua eginda.
- Bide-hezkuntza, osasun-hezkuntza eta genero-berdintasuneko alderdiak garatzeko ekintzak planteatuz.
- Ingurumenari eta hezkuntzari lotutako jarduketak proposatuz.
- Heziketa-ibilbideak sustatuz, familiei zuzendutako baterako ekintzen bitartez.

Helburu guztiak lortzeko, 2007/2008 ikasturteko Heziketa Plana bederatzi programatan egituratu zen:

- 1.- Zuzendaritza Taldeen Heziketa.
- 2.- Kalitatea Kudeatzeko Sistemak.
- 3.- Dimentsio pertsonala eta familia-ingurua.
- 4.- Haur Hezkuntza.
- 5.- Lehen Hezkuntza (irakasle guztientzat eta adituentzat).
- 6.- Bigarren Hezkuntza (DBHko nahiz Batxilergoko arlo eta ikasgai guztietarako).
- 7.- Aniztasunaren eta kultura-aniztasunaren tratamendua (Hezkuntza-beharrizan bereziak, Kultura-aniztasun eta Heziketa iraunkorra).
- 8.- Beste programa batzuk: Teknologia berria, Eskola-liburutegiak, Europako programak, Arriskuen prebentzioa eta Laneko osasuna, Euskararen ikaskuntza eta hobekuntza, Musika-eskolak, Dantza-eskolak, Hizkuntza-eskola ofizialak eta Eskola-orientazioa.
- 9.- Lanbide Heziketa.

Heziketa-modalitateak:

1. Aholkularitza ikastetxeei.

Modalitate honen helburua irakasle taldeei laguntzea da, curriculuma garatzeko prozesuetan: programazio didaktikoak sortzea, garatzea eta ebaluatzea; heziketa-jardueretatik edo material didaktikoetatik sorturiko proposamenak ikasgelan aplikatzea. Jarduera horietariko edozeinetan, ikastetxe bateko irakasleek zalantzak edo zailtasunak izan ditzakete, eta kanpoko aholkularitza eskatu ahal dute, balizko soluzioak aurkitu ahal izateko. Halako egoerei erantzun egokia emateko, modalitate hau hezkuntza maila eta curriculum-arlo guztietan eskaintzen da.

Izaera irekia dutenez, garatu beharreko edukiak ezin dira Planean aurretiaz azaldu; hala ere, irakasle taldeek, eskabidea identifikatu ondoren, heziketa-sarera bideratu ahal izango dute.

Ikastetxeak eskabidea bidezko IIan egin ondoren, erreferentziako aholkularia irakasle taldearekin harremanetan jarri, laneko plana diseinatu, beharrezko baliabideak eman eta taldekide guztien partaidetza arduratsua sustatuko du, talde horrek jarduera gero eta autonomoagoa edukitzeko eta bere lanbide-gaitasuna handitzeko.

2. Heziketa-moduluak.

Moduluena heziketa-modalitate bat da, eta, gehienbat, ikastetxeko, etapako edota Haur nahiz Lehen Hezkuntzako irakasle-taldeei zuzenduta dago.

Modalitate hau irakasle taldeentzat baliozkoa izan daiteke arloetan lan-dinamika jakina hasteko, programazio didaktikoaren diseinurako zein garapenerako funtsezkotzat hartzen den alderdi batean sakontzeko edo lan egiteko modu jakinarekin sentsibilizatzeko. Horretarako, moduluen arreta arlo jakineko eduki berezietara bideratzen da (horien tratamendu didaktikoarekin batera), edo izaera psikopedagogikoa duten gai orokorretara. Jarduera garatzearen helburua, betiere, edukiak kasuan kasuko irakasle taldearen beharizantetara ahalik eta ondoen egokitzea izango da.

Irakasle taldeei zuzendutako modalitatea denez, gauzatzeko ezinbestekoa da ikastetxeko, hezkuntza mailako edo saileko irakasle kopuru ahalik eta handienak parte hartzea. Bata bestetik hurbil dauden eta interes komunak dituzten ikastetxetako bi edo hiru irakasle talde ere bildu ahal dira, baita lan komunean ibilbide luzea duten landa-zona bateko irakasleak ere. Gutxieneko irakasle kopurua talde ertainari dagokiona da, hau da, hamar pertsona ingurukoa.

Zenbait kasutan, modulua jarraipen-fase batekin osatzen da eta horrek bertaraturiko irakasleei aukera ematen die aztertzen diren edukiak gauzatzeko edo ikerketaren bidez sakontzeko.

Ondo ulertu behar da modulua heziketa-ibilbide baten barruan dagoela, eta horren ondorengo heziketa ikastetxeak berak ezarriko duela, Ikastetxeko Mintegietan, lan taldeetan, etab., bertan jasotako heziketan sakondu ahal izateko.

3. Mintegiak.

Mintegietan hezkuntza gai jakinean sakondu eta irakasleen inplikazio maila handiagoa izaten da. Mintegien oinarrizko helburua hobekuntzarako esparruak izatea da, eta, bertan, irakasle talde garrantzitsuak hartzen du parte. Faseka egituratzen dira; faseetariko bat teorikoa da eta kanpoko aholkularitzak euskarritzen du; bestea gehienbat praktikoa da, eta, bertan, partaideek ikasgelan aplikatu ahal izango diren jarduerak egiten dituzte. Modalitate honen ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Lanbide-praktika hobetzea, talde lana eginez, edukiak aztertuz eta beharrezko heziketa planifikatzeko ekimenak proposatuz.

- Hezkuntzako gai jakinen ikerketan sakontzea (partaideen ekarpenetatik sortzen diren gaiak). Lanerako ohiko prozedurak esperientzien trukea eta barruko eztabaida dira.
- Mintegiko partaideen lan-proposamenak zehaztea, jardueraren deialdiak ezarritako edukien eta helburuen zehaztapenean oinarrituz. Jardueraren zuzendaritza eta jarraipena esleituriko aholkulariak egingo ditu, eta taldekide batek koordinatzailetzat jardun dezake.
- Lana ebaluatzea, azken memorian islaturiko taldearen barruan; horrek kideen bertaratzeko iraukorra eta aktiboa, bakoitzak egindako ekarpenak, lorturiko ondorio praktikoak eta landutako materiala jasoko ditu. Material horiek kasuan kasuko ILIn utziko dira, eta Nafarroako Foru Erkidegoko ikastetxeen artean hedatu ahal izango dira, betiere egileen jabetza intelektuala babestuz.

4. Lan taldeak.

Lan taldearen modalitatearen ezaugarri nagusia autonomia mailarik handiena edukitzea da, eta, gainera, ikastetxeetako irakasle taldeen heziketa osagarriko esparrua osatzen du. Modalitate hau maila berdineko edo desberdineko ikastetxe bateko edo batzuetako pertsonen zuzenduta dago; pertsona horiek curriculum-materialak lantzeari edo gai jakinen tratamendu didaktikoari lotutako kezkek partekatzen dituzte.

Lan talde bakoitza, gutxienez, hiru pertsonak osatzen dute, eta horietariko bat taldeko koordinatzailea izango da.

Taldeak laneko plana egin eta bere zonako ILIn aurkeztuko du, kasuan kasuko eredu erabilita. ILIk, bertako pedagogia taldearen bidez, plana ikertu, taldearekin lankidetzan jardun (proiektua zehazteko), horren jarraipena egin eta beharrezko laguntza materialak zein formalak eskainiko ditu, aurreikusitako lana eraginkortasunez egiteko.

Lana amaitu ondoren, taldeak memoria egin eta, bertan, garatu den jarduerari adierazi eta ebaluatuko da.

5. Zientzia eta didaktika gaurkotzeko ikastaroak.

Ikastaro hauek irakasle bakoitzari zuzendutako heziketa-modalitate bakarra osatzen dute. Halako ikastaroen edukia curriculum-arlo bakoitzari dagokion oinarritzko zientzian eta horren aplikazio didaktikoan oinarritzen da; hala ere, zenbait kasutan, gehienbat programa espezifikotara, gaurkotze-ikastaroak ez daude hezkuntzaren arlo edo maila jakinari lotuta.

Heziketa-modalitate honek erantzuna eman nahi dio irakaskuntza-jarduerari ikuskatu behar izateari, jarduerari hori kasuan kasuko hezkuntza mailan dauden aldaketetara egokitzeko. Helburua teoriaren eta praktikaren arteko lotura bermatzea da, irakasleek euren lanbide-jarduerari buruz gogoeta egitean oinarrituz.

6. Beste modalitate batzuk.

Heziketa-jarduerari batzuk aurreko puntuetan jaso gabeko modalitateetan antolatzen dira.

Ikastetxeetako Mintegiak, esate baterako, ikastetxe bateko irakasle taldeak integratzeko eta ikastetxeak heziketa komuneko zatitara adierazitako curriculum-alderdiak lantzeko planifikatzen diren jarduerak dira. Modalitate hau aurreratutzat hartzen da, heziketa-ibilbideen barruan.

Informazio Bilkurak iraupen laburreko jarduerak dira. Oro har, ikasgelako materialak nahiz baliabideak aurkezteko eta horien ahalmen didaktikoak aztertze erabiltzen dira.

Jardunaldiak bi ardatzen inguruan egituraturiko lan-bilkurak dira: alde batetik, curriculum-arloen tratamendu didaktikoko adituen konferentziak, txostenak edo jakinarazpenak dira; bestetik, ikastetxeek, zikloko taldeek eta didaktika-sailek ikasgelako esperientziak aurkezteko egiten dituzten

azalpenak dira (gainerako irakasleek horien berri izateko eta beste ikastetxe batzuetara hedatu ahal izateko).

Ibilbideak ikastetxetik hurbileko inguruan garatzen diren lan-proposamenak dira, eta lan-proiektu zabalagoetan sartuta daude. Ibilbideen helburua ikastetxea ezagutzea eta baliabide didaktikotzat erabili ahal izatea da. Adibidez: inguruaren ezagupena nahiz interpretazioa; ingurumen, gizarte eta teknologia mailako prozesuak eta arazoak; lan-metodologia egokiak eta lanon ikuspegiak, baliabideak aprobeztatzuz; bizikidetzak-ohiturak sustatzen dituzten talde-jarduerak, eta, batez ere, trukeko jarduerak.

Elkarrizketa Taldeak, bestalde, atzerriko hizkuntzetako irakasleak biltzeko guneak dira; horietan, talde txikietan eta kasuan kasuko hizkuntzaren hiztun baten laguntzarekin (ahal izanez gero), hizkuntza hori erabiltzen da, komunikazio-gaitasuna hobetzeko, eta ahozko sorkuntza nahiz jariatortasuna sustatzen dira, baita hizkuntza horren kulturako eta gaurkotasuneko gaien iruzkina ere.

Berrikuntza Proiektuen helburua (heziketa-modalitateetat) curriculum-edukiei, estrategia metodologikoei, baliabide teknologikoei eta antolamendu mailako baliabideei buruzko arakatzeko sistematikoa eragitea da, baita hori guztia gauzatzea ere. Helburua, azken batean, irakasle taldeen protagonismoa sustatzea da, ikerketaren aldeko jarrera sustatzen duten programa berritzaileen diseinuan, garapenean eta aplikazioan, ikasgelako praktikaren eta hori euskarritzen duen teoriaren arteko lotura emankorra ezartzeko, irakaskuntza-funtzioa hobetzeko ezinbesteko elementutzat.

Koordinazioko Mintegiak, azkenik, gehienbat landa-eskoletako eta ikastetxe txikietako irakasleei zuzendutako jarduerak dira, baita euren espezialitatearen eraginez aldi berean bildu beharra duten (ikasgelako jarduerak koordinatzeko) irakasleei zuzendutakoak ere. Zonako ikuskatzaileak bilera horien edukia ezagutu eta kasuan kasuko ILLko talde pedagogikoari jakinarazten dio. Jarduera hauek, heziketa-jarduerak ez direnez, ez dute ziurtagiririk sorrarazten.

3.6.1.2. Heziketa Planaren ebaluazioa.

Heziketa Planaren ebaluazioa horren elementu nagusienetarikoa da. Ebaluazioaren helburua irakasleak ikasitakoaren transferentzia edo erabilera hobeto ezagutzea da, horrek ikasleen ikaskuntzan duen eragina aztertu ahal izateko. Horretarako, erabilitako diseinuak eta garaturiko heziketa-jardueraren ezaugarriak aztertzen dira.

Heziketari irakaskuntza-jardueren barruko aldaketa-eragiletzat ematen zaion balioak eragin garrantzitsua izango du lan honetako helburuen zehaztapenean eta planaren garapenean ebaluazio-xedetzat hartzen diren alderdietan edo dimentsioetan, etorkizuneko planei begira.

Ikuspegi honetatik begiratuta, Heziketa Planaren ebaluazioa baliozkoa izan behar da honako helburu hauek betetzeko:

- Irakaslearen heziketa nola planifikatzen nahiz egiten den eta zer emaitza lortzen diren jakitea.
- Edozein heziketa-jarduerako programa bat garatzean sortzen den barne-dinamika ulertzea, horren jarraipen egokia egin ahal izateko.
- Heziketak hezkuntza-jardueraren eraketan eta gauzapenean duen eragina baloratzea.
- Erabakiak hartzea, programak erkaturiko irizpideen oinarrian egokitu ahal izateko.

Ebaluazioan esku hartzen duten eragileak.

Planaren ebaluazioa abiatutako heziketa-prozesuak hobeto ezagutzeko eta horien garapenari buruzko erabakiak hartzeko (emaitzak hobekitu ahal izateko) aukera ematen duen hausnarketa-prozesutzat hartzen da. Prozesu honetan, Heziketa Planaren planifikazioko eta garapenean edozein unetan parte hartzen duten guztiak (funtzio espezifikoak dituztenak) inplikatu dira.

Ebaluazio-planak kanpoko eta barruko elementuak integratzen ditu prozesuan, Heziketa Sareko kideek lorturiko barne-ikuspegia erabiltzaileen eta Hezkuntza Administrazioi beste zerbitzu batzuen (ikastetxeetan zuzeneko eragina duten zerbitzuak) ikuspegiarekin erkatzeko.

3.6.1.3. Heziketa-jarduerari buruzko oharrak.

Heziketa iraunkorra irakasleen eskubidea eta betebeharra, kalitateko faktorea eta hezkuntza-sistemaren beraren beharrezkoa dela aintzat hartuta, heziketa-jarduerak errazago egiteko neurriak hartzen dira.

Ikastetxeek euren egoeraren diagnostikoa egiten dute, beharrezko heziketa-ekintzak ezarri ahal izateko.

Prozesu hau ikastetxeko planifikazio orokorrean islatuta geldituko da, urteko Planean.

Irakasleen heziketa irakasleen lan-jardueratzat hartzen da, eta, betiere Ikuskapen Teknikoa eta Zerbitzuak izeneko Zerbitzuaren baimenarekin, heziketa eskola-orduetan garatu ahal izango da.

Beste erakunde batzuek antolatutako jardueretan, erakunde antolatzailearekiko hitzarmenik ez dagoenean, horietan parte hartzeko behar den gastua finantzatu ahal da. Halako jardueretarako finantziario-iturri nagusiak Banakako Laguntzak eta Ikasketetarako Lizentziak dira.

Planak ziurtatze-sistema bat ezartzen du.

Planak bere garapenerako neurri bereziak hartzea ahalbidetzen du. Neurri horien artean, aipagarria da eraginkortasuna eta errentagarritasuna bermatzeko gutxienekotzat hartzen den inskripzio kopurura heltzen ez diren ikastaroen ezabaketa.

Planean aztertu gabeko eskariak Irakasleei Laguntzeko Ikastetxeen bidez bideratzen dira; horiek proposamenak baloratu eta, bidezkoa izanez gero, garatu egingo dituzte.

3.6.1.4. Planean jaso gabeko jardueretarako laguntzak.

3.6.1.4.1. Banakako laguntzak.

Heziketa Planetan antzeko jarduerarik ez duten heziketa-ekintzetarako laguntza ematen dute. Horretarako, Irakasleen Heziketa Jardueretarako Banakako Diru-laguntzetarako deialdi publikoa onetsi zen, 2007/2008 ikasturterako, azaroaren 21eko 131/2007 ebazpenaren bidez⁴. Unibertsitatetik kanpoko maila guztietako irakasleei zuzenduta daude (arabide orokorreko eta bereziko irakasleei), baldin eta zerbitzuak ikastetxe publikoetan eta itunpeko pribatuetan ematen badituzte.

Deialdiak bi modalitate eskaintzen ditu:

- Espainian egiten diren jarduerak: gehieneko laguntza 541 euro.
- Atzerriko jarduerak: gehieneko laguntza 962 euro.

⁴ Ikusi 1. kapituluko 1.1.4.5. epigrafeko 119. zenb.

11. laukia - Heziketa-jardueretarako emandako laguntzak, 2003/2004tik 2007/2008ra bitarteko ikasturteak					
(eurotan)					
Eskabideak	2003/04 ikast.	2004/05 ikat.	2005/06 ikast.	2006/07 ikast,	2007/2008
Emandakoak	55	37	44	45	72
B.-behinean emandakoak	11	7	7	14	19
Ukatutakoak	13	4	4	16	2
B.-behinean ukatutakoak	-	-	-	9	-
Adjudikazioa guztira	19.901	12.308	18.000	24.000	24.600

Iturria: Kalitate eta Genero Berdintasuneko Zerbitzua.

3.6.1.4.2. Ikasteko lizentziak.

2007/2008 ikasturterako, ikasteko hamabi lizentziarako deialdia onetsi zen, Eskola eta Lanbide Irakaskuntzetako zuzendari nagusiak apirilaren 19an emandako 379/2007 Foru Aginduaren bitartez; laguntza horiek funtzionarioak edo lan kontratu finkokoak ziren irakasleentzat izan ziren (Hezkuntza Sailaren mendekoak)⁵.

Lizentzia horien modalitateak (2007/2008 ikasturterako) eta eurei dagozkien lizentzia kopurua honako hauek dira:

A modalitatea: ikasketa akademikoak:

A) Ikasketa akademikoak:

A.1) Lehenengo edo bigarren zikloko unibertsitate-karrera bateko azken 36-48 kredituak (edo azken ikasturtea edo gehienez bi ikasgai dituen azken ikasturtea).

A.2) Doktorego-tesia.

A.3) Masterra edo unibertsitateek abalaturiko graduondoko unibertsitate-ikasketak, ematen den arloari edo funtzioa garatzeko arloari lotutakoak.

B) Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuak, gehienbat honako gai hauei buruzkoak:

- Bizikidetzaren errespetu eta elkartzaren balioetan oinarrituriko hezkuntza, ikastetxeetan egon daitezkeen bizikidetzaren gatazka konpontzeko eta horien prebentzioa egiteko.
- Baterako hezkuntzako proposamenak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean aurrerapausoak emateko.
- Irakasleen lan-baldintzak: laneko osasuna eta laneko arriskuen edo lanbideko gaixotasunen prebentzioa.
- Hezkuntza-etapa guztietako irakurmen ulerkorra: oroimeneko prozesuak eta estrategiak (eskola-liburutegiak eta irakurmen-planak).

⁵ 60. zenb. NAO, 2007ko maiatzaren 14koa.

- Atzerriko hizkuntzen didaktika, batez ere Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ingelesa irakas-hizkuntzatat erabiltzeari dagokionez.
- Ikastetxeen antolamendu, metodologia edo ebaluazio mailako proposamenak.
- Ikasleen aniztasunerako laguntza, tutoretza-ekintza eta ikastetxeen hezkuntza-orientazioa sustatuta eta horretan sakonduta.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) aplikazio didaktikoa, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetara, eta esperientzia nahiz metodo berrien ikerketa.
- Ikastetxe iraunkorrak eta Agenda 21.
- Programazio orokorren eta bizkortze-ikasgelaren proiektuak immigranteentzat; ahozko eta idatzizko hizkuntzaren ikaskuntzarekin osatzen dira.
- Arloko edota diziplinen arteko curriculum-proiektuak, ikaskuntzak sustatzeko metodoak, estrategiak eta baliabide berritzaileak eskaini eta, gainera, curriculum-arloen heziketa- zein tresna-izaera lantzen dute, proposamena testuinguruan txertatzeko hezkuntza etapan edo etapetan; horren barruan, balioen hezkuntza sartzen da.

Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen zuzendari nagusiak uztailaren 16an emandako 756/2007 Ebazpenaren bidez, 2007/2008 ikasturterako 12 ikasketa-lizentzia eman ziren, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Sailari atxikitako langile finkoentzat⁶.

Honako laguntza hauek eman ziren:

A modalitatea:

A.1: Laguntza 1.

A.2: 2 laguntza.

A.3: 2 laguntza.

B modalitatea: 7 laguntza.

Guztira, 21 eskabide-espeditante aurkeztu ziren:

- 5 ukatu egin ziren deialdiko oinarriak aintzat hartuta.
- 4 baztertu egin ziren deialdiko oinarriak aintzat hartuta.

⁶ 101. zenb. NAO, 2007ko abuztuaren 15ekoa.

3.6.2. Garaturiko heziketa-jarduerei buruzko datuak:

12. laukia - Programa orokorrak, Irakasleen Heziketarako jarduera kopurua, 2007/2008 ikasturtea						
	Lizarra	Lekaroz	Iruñea	Tafalla	Tutera	GUZTIRA
Haur Hezkuntza (1. zikloa)	7	2	16	10	7	42
Haur Hezkuntza (2. zikloa)	-	-	15	-	-	15
Lehen Hezkuntza	2	1	24	8	20	55
Bigarren Hezkuntza	1	-	70	-	10	81
Lanbide Heziketa	-	-	34	22	-	34
Etapar bitartekoak	18	15	-	-	11	66
Helduen Hezkuntza	-	-	4	-	1	5
Hezkuntza Berezia	-	1	12	-	2	15
Teknologia Berriak	2	4	19	12	8	45
Programa Espezifikokoak ⁷	3	1	73	3	4	84
Araubide Berezia ⁸	-	-	3	-	-	3
ILletako jarduerak	35	7	116	27	12	197
Guztira	68	31	386	82	75	642
Heziketa-orduak guztira	1.523	768	8.744	1.942	1.868	14.845
Etorleak	955	517	7.177	1.509	1.420	11.578
Ziurtagiri kopurua ⁹	632	375	5.939	1.101	1.108	9.155

Iturria: Kalitate eta Genero berdintasuneko Zerbitzua.

⁷ Programa Espezifikokoak atalaren barruan, honako honi lotutako jarduerak sartzen dira: Programa espezifikokoak, Kultura-aniztasuna, Zuzendaritza taldeen eraketa, Eskola-orientazioa, Balioen hezkuntza, Laneko osasuna (arriakuen prebentzioa) eta Eskola-liburutegiak.

⁸ Musika-eskoletarako, dantza-eskoletarako, musikarako eta hizkuntzetarako programak sartzen dira.

⁹ Heziketa amaitu duten irakasleak.

13. laukia - Irakasleen Heziketa Jardueretarako aurrekontu-gastuaren bilakaera, 2004tik 2008rako urteak.					
(eurotan)					
	2004	2005	2006	2007	2008
Irakasleen heziketa-jarduerak (Heziketa Programa Orokorrak)	558.941	516.941	550.000	648.000	712.800
Hezkuntza Berrikuntzako/Berriztapeneko Programak	150.000	63.000	63.000	120.000	90.000
Hizkuntza-irakasleen heziketa (irakasleak hizkuntza modernoetan birziklatzeko programak)	58.000	38.000	38.000	57.040	514.000
Lanbide Heziketako irakasleak hobetzea eta gaurkotzea (Lanbide Heziketako irakasleak birziklatzeko programak)	138.600	131.371	131.271	131.371	147.254
Irakasleak euskararen arloan hobetzea (irakasleak euskararen hobetzeko programak)	54.545	53.700	53.619	55.764	62.505
Irakasleen urruneko heziketa (Teknologia Berrien Programak)	255.000	210.100	210.000	218.400	226.044
Hezkuntzako argitalpenak, ikasketak eta esperientziak	214.000	150.000	150.000	246.000	280.000
Guztira	1.429.086	1.163.112	1.195.990	1.476.575	2.032.603

Iturria: Kalitate eta Genero Berdintasuneko Zerbitzua.

14. laukia - Irakasleen Heziketa Programen laburpena, 2003/2004tik 2007/2008rako ikastaroak				
	Jarduera kopurua	Ordu kopurua	Ziurtagiri kopurua	Aurrekontua (euroak milatan)
2003/2004	388	9.964	5.428	1.423
2004/2005	446	10.330	5.438	1.163
2005/2006	521	12.065	7.953	1.196
2006/2007	604	12.498	8.288	1.476
2007/2008	642	14.845	9.155	2.032

Iturria: Kalitate eta Genero Berdintasuneko Zerbitzua.

3.7. Prestakuntza Sistema Nazionalaren garapena (2007/2008)

Nafarroan lanbide-heziketako irakaskuntza berriak garatzen dituen prozesuak erreferentziako bi ardatz argi ditu. Lehenengoa estatu mailakoa da eta, horren barruko alderdien bidez, Nafarroatik Estatuko arauzko esparrurako laguntza ematen ari da. Esate baterako, energiaren eta uraren sektoreko prestakuntzen diseinua, lanbide-familia horretako lanbide-heziketako tituluen planteamendua, gaitasunak egiaztatzekeo prozedura arautzekeo proposamenak egiten dituzten lan taldeen barruko lankidetzak, lanbide-orientazioa, prestakuntzak ikuskatzeko eta gaurkotzeko metodologiak garatzen dituzten lan-batzordeetako partaidetza, etab.

Erreferentziako bigarren ardatza ekintzak eta proiektuak Nafarroan garatzea da. Bigarren ardatz honek, 2007-2008 ikasturtean eta hurrengo urteotan, protagonismo handia izango du, datozen hamarkadotako lanbide-heziketa eraikitzekeo prozesuan. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da Nafarroako Gobernuak 2005eko apirilaren 4an "Lanbide Heziketa eta Prestakuntza Sistema Nazional berria" deritzonari buruz harturiko Erabakia; horren bidez, Nafarroako Prestakuntza Sistemaren eta Lanbide Heziketaren garapenerako esparrua ezarri da, Prestakuntzei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera. Erabaki horrek, Nafarroako Prestakuntza Sistema ezartzeko eta garatzeko elementu kritikotzat, honako hauek ezartzen ditu: Nafarroan Ikastetxe Integratuak sortzea, Lanbide Orientazioko Integrazio Sarea eta lanbide-gaitasuna egiaztatzekeo prozesuak.

Halaber, Hezkuntza Sailaren ikuspegitik, lanbide-heziketako titulu ofizial berriak onestea garrantzi handiko ekintza da Nafarroako hiritarrentzat eta enpresentzat.

2007-2008an, lau alderdi horietariko bakoitzean emandako aurrerapausoak honako hauek izan dira:

1. Ikastetxe Integratuak.

Nafarroako Gobernuak irailaren 4ko 63/2006 Foru Dekretua onetsi zuen, Nafarroako Foru Erkidegoaren arloan Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuak arautu dituen; Nafarroa arauketa hori egin duen lehenengo Autonomia Erkidegoa da, abenduaren 23ko 1558/2005 Errege Dekretua onetsi ondoren; dekretu horren bitartez, oinarritzko araudiak jasotako lanbide-heziketako ikastetxe integratuen oinarritzko baldintzak arautu dira.

Gero, urriaren 3ko 119/2006 Foru Agindua onetsi zen; horren bidez, izaera esperimentalarekin, lanbide-heziketako ikastetxe publiko batzuk Ikastetxe Integratu Politekniko izendatu ziren; Eskola eta Lanbide Irakaskuntzetako zuzendari nagusiaren azaroaren 14ko 1173/2006 Ebazpenaren bidez, gainera, Ikastetxe Integratu Politeknikoen proiektu aurrerari esperimentalak abiatzeko izendaturiko Lanbide Heziketako ikastetxeei laguntza emateko plana zehaztu eta garatu zen.

Bigarren urte esperimentalean egindako aurrerakuntzen artean, honako hauek aipa daitezke:

- Ikastetxe horietako Gizarte Kontseiluen funtzionamendu-araudia onestea.
- Nafarroako LHko Kontseiluak ikastetxe integratuetarako Jarduketa Plana egitea, Hezkuntza Sailaren laguntzarekin, plan hori kasuan kasuko Proiektu Funtzionaletan jasotzeko.
- Ikastetxe integratuetan, heziketa iraunkorreko eskaintzak zabaltzea.
- Lanbide-heziketak ildo estrategikoetan aurrerapausoak ematea.
- Agintaldia 2007ko ekainean amaitzen duten ikastetxe integratuetako zuzendariak izendatzeko arauketa iragankorra onestea.

2. Lanbide-orientazioko Sare Integratua.

Interneteko atari batean euskarrituriko, Nafarroako Lanbide Heziketako Kontseiluak sustaturiko eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Hezkuntza Sailaren lankidetzarekin garatutako sare horren helburu nagusia kalitatezko informazio- eta orientazio-zerbitzua eskaintzea da, pertsonei laguntza emateko, euren lanbide- eta heziketa-ibilbideen arloan erabakiak hartzen dituztenean; aldi berean, lan-merkatuaren, laneko integrazioaren eta lehiakortasunaren arteko egokitzapena bermatu nahi du.

2007an lanbideko Informazio eta Orientazio Sare Integratuaren egitura garatu eta web atariko edukiak zehaztu dira, Enplegua, Hezkuntza eta Ekonomia zein Gizarte Eragileak kontuan hartuta. Proiektuaren zabalkundearen lorpenetariko bat Lanbide Orientazioko 2007ko Topaketa egitea izan zen (2007ko abenduan); bertan, Nafarroako lanbide- nahiz lan-orientazioko 150 profesional inguruk hartu zuten parte, eta, gainera, 2007an arlo horretan eskuraturiko lorpenak aurkeztu ziren, baita nazioarteko adituek orientazio-eredu askori buruz egindako txostenak ere.

3. Gaitasunaren egiaztapena.

Sistemaren funtsezko elementuetariko bat, besteak beste, ikaskuntza ez-formalen eta informalen eraginezko lanbide-gaitasunak onartzea eta balioztatzea da. Prestakuntzen Nafarroako Erakundea lankidetzan ibili da Estatuarekin, lanbide-gaitasunen ebaluazioan eta onarpenean garatu beharreko prozedurak, baldintzak eta metodologia garatzeko. Une honetan Estatuko araudia lantzen ari dira, eta Nafarroan prozedurari modu esperimentalean aurrea hartzeko oinarriak jartzen ari dira.

4. Lanbide-heziketak titulu berrien diseinua.

Katalogo nazionaleko prestakuntzak oinarritzko erreferentziako lehengaiak dira, Estatuak tituluak diseinatzeko. Lanbide Prestakuntzen Katalogo Nazionala aplikagarria da Estatu osoan; produkzio-sisteman identifikaturiko prestakuntzek eta horiei lotutako heziketak osatzen dute; horrela, lanbide-heziketaren eta produkzio-sistemaren arteko egokitzapena errazten du.

Nafarroako Foru Erkidegoak, Prestakuntzen Nafarroako Erakundearen bidez, zuzeneko partaidetza izan du Lanbide Prestakuntzen Katalogo Nazionalaren lanketan, Energiaren eta Uraren Lanbide Familia garatuta. Prozesu honetan aditu nazionalen, profesionalen, heziketa-adituen eta enpresa-ordezkariren talde bat gidatu du; horiek, gaur egunera arte, eta oraindik azken egokitzapenak egin behar badira ere, honako lanbide-prestakuntza hauek diseinatu dituzte:

URAREN ETA GASAREN ARLOA

- Ur-sareak muntatzea eta mantentzea.
- Gas-sareak muntatzea eta mantentzea.
- Gaserako aparatuak eta instalazio hartzaileak muntatzea, zerbitzuan jartzea, mantentzea eta ikuskatzea.
- Ur- eta saneamendu-sareak, baita instalazioak ere, antolatzea eta kontrolatzea (muntaketa eta mantenamendua).
- Gas-sareen muntaketa eta mantenamendua kudeatzea.

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ARLOA

- Parke eolikoaren muntaketa eta mantenamendua kudeatzea.
- Eguzki-instalazio fotovoltaikoak muntatzea eta mantentzea.
- Eguzki-instalazio termikoak muntatzea eta mantentzea.
- Eguzki-instalazio fotovoltaikoak antolatzea eta proiektuak egitea.
- Eguzki-instalazio termikoak antolatzea eta proiektuak egitea.

ERAGINKORTASUNAREN ARLOA

- Eraikinen energia-eraginkortasuna.

ELEKTRIZITATE SORKUNTZAREN ARLOA

- Eragiketak kudeatzea zentral termoelektrikoetan.
- Eragiketak kudeatzea zentral hidroelektrikoetan.

Une honetan, Hezkuntza Ministerioa Prestakuntzen Katalogo Nazionalaren eraginezko lanbide-heziketako lehenengo tituluak diseinatzen eta onesten ari da. Orain arte, Estatuak lanbide-heziketako 24 titulu berri onetsi ditu, hamabi maila ertainekoak eta beste hamabi goi-mailakoak. Halaber, beste hamahiru titulu (bost maila ertainekoak eta zortzi goi-mailakoak) kontsulta-prozesuko faseetan daude.

Prestakuntzen Nafarroako Erakundeak parte hartu du Energiaren eta Uraren Lanbide Familiako tituluak diseinatzeko lanetan; halaber, adituen partaidetzaren bidez, lagundu egin du beste Lanbide Familia batzuetako tituluak diseinatzen. 2008an Energia Eraginkortasuneko eta Eguzki Instalazio Termikoetako goi-teknikari tituluari buruzko Errege Dekretua onetsi da.

Lehenengo sei tituluaren curriculumaren garapena Nafarroan

Halaber, Hezkuntza Sailak garatu eta Nafarroara egokitu ditu 2008/2009ko ikasturtean nahitaez ezarri behar diren curriculumak; horiek Erkidegoan lehendik garatutako beste batzuk ordeztu dituzte. Hain zuzen ere, honako hauek dira: Sukalde eta Gastronomiako Teknikaria, Mekanizatuko Teknikaria, Haur Hezkuntzako Goi Teknikaria eta Kalitatea Aztertze eta Kontrolatzeko Goi Teknikaria. Titulu horiek honako hauek ordeztu dituzte: Sukaldeko Teknikaria, Mekanizatuko Teknikaria, Haur Hezkuntzako Goi Teknikaria eta Azterketa eta Kontroleko Goi Teknikaria (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorriari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren babesean zehaztutakoak).

Lau titulu horien egitura eta curriculumak irakasle taldeek egindako proposamenetan oinarrituz garatu dira, baita Nafarroan, Estatuan eta Europan gaurkoturiko ikerketa sektorialetan oinarrituz ere.

Era berean, 2008/2009 ikasturtean eskainiko diren bi titulu berriri dagozkien foru-dekretuak ere onesteko prozesuan daude: Osasun Larraldietako Teknikaria (esperientzia duten langileentzako eskaintza) eta Energia Eraginkortasuneko eta Eguzki Energia Termikoko Goi Teknikaria.

3.8. Liburutegiak eta argitalpenak.

3.8.1. Eskola-liburutegien programa. Dokumentazio-zentroa.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoan eskola-liburutegiei ematen zaien garrantzia aurreko tituluari bertan adierazten da; bertan ezarritakoaren arabera, hezkuntzaren helburuetariko bat hau da: *“botere publikoek irakurmena sustatzeari eta eskola-liburutegiak erabiltzeari eskainiko dioten lehentasunezko arreta, irakaskuntzaren kalitatea sustatzen duten faktoretzat”* (113. artikulua). Halaber, *eskola-liburutegiak lagungarriak izango dira irakurtzeko zaletasuna sustatzeko eta ikasleek gainerako arloen nahiz ikasgaien ikaskuntzarako informazioa zein baliabideak lortzeko, baita horien erabilera kritikoan trebatzeko ere* (113. artikulua).

Helburu horiek estu lotuta daude abenduaren 7ko 1513/2006 eta abenduaren 29ko 1631/2006 Errege Dekretuetan ezarritako oinarriko gaitasunak garatzearekin; dekretu horien bidez, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak ezarri dira. Eskola-liburutegia, hain zuzen ere, funtsezko baliabidea da Hizkuntza-komunikazioko gaitasuna lortzeko, Ikasten ikasteko, Informazioaren tratamendurako eta Norberaren autonomiarako nahiz ekimenerako; gainera, baliabide oso erabilgarria da oinarriko gainerako gaitasun guztiak eskuratzeko.

Horrela, mota desberdineko testuak (literaturakoak eta informaziokoak) formatu askotan (inprimatua, ikus-entzunezkoa eta multimedia) irakurtzeko zaletasuna sustatzeko eta lortzeko esparrurik egokiena izateaz gain, eskola-liburutegiaren antolamendua, funtzionamendua eta erabilera funtsezkoak dira informazio-iturriak eraginkortasunez kontsultatzeko, informazioak hautatzeko eta ezagupenaren eraikuntza autonomorako.

Hezkuntza Sailaren eskola-liburutegiak programak ekintza asko sustatu eta koordinatu ditu, ikastetxeek eta irakasleek euren liburutegiak esparru dinamiko bihurtzeko, eta, bertan, informazioko baliabideak eta zerbitzuak eskaintzeko; izan ere, horiek hezkuntza-jarduerak suspertu, bertako errealitatearen arabera irakurketa-planak lantzen lagundu eta baliabide anitz eskainiko dira, ikaskuntza-prozesua gero eta autonomoagoa izateko.

Hezkuntza Sailaren barruan garaturiko jarduerak

Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzuko Dokumentazio Zentroak zerbitzu horretako eta Saileko beste zerbitzu batzuetako bibliografiak lortzen, katalogatzen eta jakinarazten ditu. 2007/2008 ikasturtean, 220 erregistro berriko dokumentu-funtsa lortu du. Halaber, bibliografia-bilaketako eta dokumentu-aholkularitzako zerbitzua ere eskaintzen du.

Era berean, irakurmenari eta eskola-liburutegiei lotutako jarduerak ere egiten ditu, Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioarekin, beste autonomia-erkidego batzuekin eta Nafarroako Gobernuo Kulturaren Sailarekin lankidetzan.

Jarduerarik garrantzitsuenak, HKMrekin lankidetzan, honako hauek izan ziren: Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako eskola-liburutegiak hobetzeko diru-laguntzaren banaketa eta jarraipena (2005ean) eta Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola-liburutegien zuzkidura hobetzeko lankidetzahitzarmena (2006an).

Ordezkaritza-jarduera hauek ere egin ditu:

- HKMk antolaturiko irakurmena eta eskola-liburutegiak (hezkuntza-administrazioek esku hartzeko estrategiak) mintegian parte hartu.
- Eskola-liburutegien programaren aplikazioa (Abies 3) aurkezteko jardunaldian parte hartu.
- Bizkaiko Liburutegiak deritzonoko 40 arduradunei harrera egin (ACCEX programako kideak).

- Eskola-liburutegien Batzorde Teknikoan parte hartu, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialean.
- Ikastetxeetako liburutegiak dinamizatzeko eta berritzatzeko (2008) jardun onen Sariaren ebaluaziorako talde teknikoan parte hartu.
- Kultura Sailarekin lankidetzan jardun, Irakurtzeko zaletasuna duen familia izeneko kanpainan.
- Bilera-egutegia finkatu, Kultura Sailarekiko lankidetzak-hitzarmena idazteko.

Hezkuntza Saileko beste liburutegi batzuekiko jarduerak

Dokumentazio Zentroak harreman estuak ditu Irakasleei Laguntzeko Ikastetxeetako (ILI) liburutegiarekin, Euskarazko Irakaskuntzarako Baliabideen Zentroko (EIBZ) liburutegiarekin eta neurri txikiagoan, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroko (NHBBZ) liburutegiarekin.

Lankidetzak alderdi teknikoetan laguntzean oinarritzen da; esate baterako, Abies 2 programa gaurkotzen, programa hori liburutegietako beharrezanetara egokitzen, antolamenduari nahiz seinaleztapenari buruzko materialak banatzen (SHUren posterrak eta apalategietarako nahiz espazioetarako kartelak) eta bibliografia-agiriak lortzen.

Ikastetxetara bideraturiko jarduerak

- Ikastetxeei egindako zuzeneko aholkularitza

Hezkuntza Saileko Dokumentazio Zentroak hedaturiko liburutegi-eredua aukeratu duten ikastetxe kopuruak gora egitearen ondorioz, kontsulta gehiago egin dira liburutegi-funtzen antolamenduari eta informatizazioari buruz.

2007-2008 ikasturtean, 10 ikastetxerako bisitaldia egin da (Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak).

- Aholkularitza telematikoa

Abies erabiltzen duten ikastetxeek HTBPko eskola-liburutegietako news deritzenen bidez egin ditzakete kontsultak; bestela, Hezkuntza Ministerioak Nafarroako Foru Erkidegoari esleituriko posta elektronikoen helbideetan egin ditzakete; helbideok Abiesen web orrian adierazita daude.

2007-2008 ikasturtean 75 kontsulta egin dira; horiei erantzuna eman zitzaien, eta, euren eraginez, gainera, ikuskatu eta hobetu behar izan ziren 2007-2008ko datu-baseak.

- Eskola-liburutegiak kudeatzeko Abies 2.0 deritzon kudeaketa-programaren mantenamendua.

Ikasturte honetan, programa bitan gaurkotu da, harik eta lanerako orain erabiltzen den bertsiora iritsi arte: Abies 2.0.8.2.

- Eskola-liburutegien web orria.
- Familian irakurtzeko kanpainak.
- Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko sariak.
- Heziketa-jarduerak.

15. laukia - Eskola-liburutegietako heziketa-jarduerak, 2007/2008 ikasturtea	
Jarduerak	Partaidetza - Ziurtagiriak
Eskola-liburutegiak	40 ziurtagiri
Oinarrizko Abiesa	50 ziurtagiri
Abies aurreratua	24 ziurtagiri
Eskola-liburutegien I. jardunaldia	97 irakasle Nafarroako liburutegi publikoen sareko 10 liburuzain
Eskola-liburutegien lan-taldeak	ILI bakoitzeko 2 talde

Iturria: Antolamendu eta Berrikuntzako Zerbitzua

3.8.2. Argitalpenak

Testu eta Material Didaktikoen Negoziatuak honako testu hauek argitaratu ditu 2007ko uztailaren 1etik 2008ko ekainaren 30era.

Nafarroako pertsonaiak.

- *Soy Pablo Sarasate*, Fernando Sesma Urzaiz.

Edukia: Sarasateren bibliografia laburra da; lehenengo pertsonan idatzita dago, bizitasun eta erakarpen handiagoa emateko, eta musikari unibertsal hori Nafarroako ikasleengana hurbiltzeko. XIX. mendeko musika-giroa ere azaltzen du. Bi jarduera ditu. Liburuarekin batera datorren CDan, autoreak berak eta Eduardo Hernández Asiain biolin-jotzaile nafarrak interpretaturiko obrarik ospetsuenak eskaintzen dira.

8.000 ale editatu ziren gaztelaniaz, eta 3.000 euskaraz.

- *Pablo Sarasate naiz*, Fernando Sesma Urdaiz.

Edukia: "Soy Pablo Sarasate" liburuaren euskarazko bertsioa da.

Blitz, liburutegiko saga

- *Para recordar*. Hezkuntza Berrikuntzako eta Curriculum Garapeneko Atala

Edukia: 2007-2008 ikasturterako proposaturiko irakurmen-kanpainarekin (familian irakurri) jarraitzeko orri tolestua da.

Ale kopurua: 20.000 gaztelaniaz; 10.000 gaztelaniaz eta euskaraz.

- *Para recordar / Gogoratzeko*. Hezkuntza Berrikuntzako eta Curriculum Garapeneko Atala

Edukia: Gaztelaniazko eta euskarazko orri tolestu elebiduna da, 2007-2008 ikasturterako proposaturiko irakurmen-kanpainarekin (familian irakurri) jarraitzeko.

- *Nafarroako eskola liburutegiak 1999-2007*. M.^a Antonia del Burgo, Ana Bernal

Edukia: "Las bibliotecas escolares navarras 1999-2006" lanaren euskarazko bertsioa da.

- *Las bibliotecas escolares navarras 1999-2006*. M.^a Antonia del Burgo, Ana Bernal Macaya.

Edukia: zenbaki honetan Nafarroako eskola-liburutegien oraingo egoera aztertzen da; gainera, lorturiko emaitzak 1999ko ikerketaren emaitzekin konparatu eta hurrengo urteotarako hobekuntza-ildoak markatzen dira.

Ale kopurua: 1.000 gaztelaniaz; 400 euskaraz.

- *Con la lectura ganamos altura 2 / Irakurtzen hasi, norbera hazi 2*, Lucía Isabel Coloma Calahorra

Edukia: gurasoei eskabidea egiten zaie, eguneroko bizitzako egoerak familian seme-alabekin irakurtzeko eta idazteko ohitura sustatzeko. Zenbait egoera aurkezten dira: irakurri eta idatzi orientatzeko, bidaiatzeko, komunikatzeko, jateko, gogoratzeko, informazioa bilatzeko, gaurkotasuna jakiteko, jolasteko eta gozatzeko.

Ale kopurua: 1.500 gaztelaniaz eta euskaraz.

- *Bibliotecas escolares de Navarra. I Jornada*. Hezkuntza Garapeneko Atala.

Edukia: Nafarroako eskola-liburutegiei buruzko I. jardunaldiaren programa dauka.

Ale kopurua: 600 gaztelaniaz; 250 euskaraz.

- *La gaceta de las bibliotecas escolares de Navarra*. Hezkuntza Garapeneko Atala. Dokumentazio Zentroa.

Edukia: Nafarroako eskola-liburutegiei buruzko I. jardunaldia dela-eta (Iruñeko ILLn urriaren 23an, 24an eta 25ean egindako jardunaldiak) argitaratu da egunkari hau. Honako honi buruzko informazioa ematen du: 2007, zientziaren urtea; Nafarroako eskola-liburutegiak; argitalpen berriak eta dinamizazioa.

Ale kopurua: 500 gaztelaniaz.

- *El lenguaje científico y la lectura comprensiva en el área de ciencias*. Jesús Amado Moya

Edukia: hizkuntza zientifikoaren ezaugarriak eta terminologia zientifikoaren eraketari buruzko informazioa dauka. Ikasleekin jarduerak egiteko orientazioak eta hizkuntza zientifikoko nahiz zabalkundeko lau testu eskaintzen ditu, eta testuok jarduera-proposamenak dituzte. Halaber, irakurritakoa ulertzeari eta horretarako estrategien irakaskuntzari buruzko hitzaurrea ere badauka.

Ale kopurua: 500 gaztelaniaz.

Txipi-Txapa. Nafarroa ezagutu

- *Los vascones*. Matías Múgica

Edukia: liburuxka honetan Baskoiak agertzen dira, erromatarrak iritsi baino lehenagoko herria; aro aldaketaren garaian, Nafarroako oraingo lurralde osoan bizi ziren, gutxi gorabera: nortzuk ziren, nola bizi ziren, eta ondoko herriekin (zeltak, bardularrak, karistiarrak) zer kultura- nahiz politika-harreman zituzten, gehienbat erromatarrekin izan zituztenak, azken horiek eragin handia izan baitzuten baskoiengan eta euskaran. Iberiar Penintsulako herrien (erromatarrak iritsi baino lehenagoko herriak) irudi eta mapa asko ditu, baita glosarioa, testu klasikoen bilduma eta ikasleentzako jarduerak ere.

Ale kopurua: 4.000 gaztelaniaz, 2.500 euskaraz.

- *Baskoiak*. Matías Múgica

Edukia: *Los vascones* liburuaren euskarazko bertsioa da.

0-3 Bilduma

- *Normativa y contenidos educativos*. Hezkuntza Saila.

Edukia: 28/2007 Foru Dekretua dauka; horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa arautu eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak ezartzen dira, baita ziklo horretako hezkuntza-edukiak ere.

Ale kopurua: 600 gaztelaniaz; 300 euskaraz.

- *Araudia eta hezkuntza edukiak*. Hezkuntza Saila.

Edukia: *Normativa y Contenidos educativos* liburuaren euskarazko bertsioa da.

Hezkuntza Ikuskapeneko Zerbitzuaren argitalpenak

- *Evaluación Internacional PISA 2006. Resultados de Navarra*. Ikuskapen Tekniko eta Zerbitzuko Ebaluazio Arloa.

Edukia: 2006an Zientzietan, Irakurmenean eta Matematikan egindako PISA ebaluazioko datuak aurkezten ditu. Pisa ebaluazioaren ikuspegia eta emaitzak gaitasun/aurrerauntzako eskalen arabera aurkezten ditu, baita ezagupen eremuen, zientziarekiko jarreraren eta beste zenbait aldagairen arabera ere. Irakurmenean eta Matematikan errendimendu orokorra aurkezten da.

Ale kopurua: 1.000 gaztelaniaz.

- *Cuadernillos de evaluación para las pruebas piloto de Inglés, Lectura y Matemáticas. 4º Prim., 2º ESO*. Ikuskapen Teknikoa eta Zerbitzuak.

Edukia: Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleei egin zaien ebaluazio-probarako koadernotxoak dira. Hauxe ebaluatu da: Lehen Hezkuntzako 4. mailan Ingelesa, Gaztelaniazko ulermena (irakurtzen), Euskarazko ulermena (irakurtzen), Matematika gaztelaniaz eta Matematika euskaraz; DBHko 2. mailan Ingelesa, Gaztelaniazko ulermena (irakurtzen), Euskarazko ulermena (irakurtzen), Matematika gaztelaniaz, Matematika euskaraz, Zientziak gaztelaniaz eta Zientziak euskaraz.

Ale kopurua. 300 gaztelaniaz eta 300 euskaraz.

- *PISA 2006 Nazioarteko Ebaluazioa. Nafarroako emaitzak*. Ikuskapen Teknikoa eta Zerbitzuak.

Edukia: Evaluación Internacional PISA 2006. Resultados de Navarra deritzonoko euskarazko bertsioa da.

Ale kopurua: 500 euskaraz.

Curriculumak

- *Curriculumak. derrigorrezko bigarren hezkuntza. 2. liburukia: Hizkuntzen tratamendu integratua*. Hezkuntza Saila.

Edukia: honako hizkuntza hauen tratamendu integratua duen curriculumak dauka: Gaztelania eta Literatura (L1); Euskara eta Literatura. D eredua (L1). A eredua (L2); Ingelesa (I2); Atzerriko Bigarren Hizkuntza: Frantsesa (L3); Atzerriko Bigarren Hizkuntza: Alemana.

Ale kopurua: 500 euskaraz.

- *Curriculumak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 3. liburukia: Aukerako Irakasgaiak*. Hezkuntza Saila.

Edukia: aukerako irakasgaien curriculumak onetsi duen 23ko 53/2007 Foru Agindua. Aukerako irakasgai hauen curriculumak zehazten dira: Literatura Sormena; Literatura Sormena. D eredua; Oinarrizko matematika; Hizkuntza trebetasunak; Hizkuntza trebetasunak. D eredua; Matematika Zabalkundea; Kultura Klasikoa; Geografia Ekonomikoa; Lanbide Hastapena-Helduen bizitzarako trantsizioa. Literatura unibertsala; Matematika Sakontzea eta Fisika eta Kimika Sakontzea.

Ale kopurua: 500 euskaraz.

- *Curriculumak. Haur hezkuntza. 2.º zikloa*. Hezkuntza Saila

Edukia: Haur Hezkuntzako 2. zikloko irakaskuntzen curriculumak ezarri duen martxoaren 19ko 23/2007 Foru Dekretua dauka. Halaber, honako ikasgai hauen curriculumak ere badu: Norbere buruaren ezagupena eta norbere autonomia; Inguruaren ezaguera; Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena.

Ale kopurua: 600 euskaraz.

- *Curriculumak. Derrigorrezko bigarren hezkuntza. 1. liburukia*. Hezkuntza Saila.

Edukia: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma ezarri duen martxoaren 19ko 25/2007 Foru Dekretua. Etapako oinarritzko gaitasunak eta honako ikasgai hauen curriculumak ditu: Natura Zientziak; Soin Hezkuntza; Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia; Hiritar Hezkuntza eta giza eskubideak; Plastika eta Ikus Hezkuntza; Informatika; Latina; Matematika; Musika; Teknologiak eta Erljioen historia eta kultura.

Ale kopurua: 500 euskaraz.

- *Curriculum. Lehen hezkuntza. 2. liburukia: hizkuntzen tratamendu integratua.* Hezkuntza Saila.

Edukia: Lehen Hezkuntzan ematen diren hizkuntzen curriculumak dauka: Gaztelania eta Literatura (L1); Euskara eta Literatura. D eredua (L1); Euskara. A eredua (L2); Ingelesa (L2).

Ale kopurua: 500 euskaraz.

- *Curriculum. Lehen hezkuntza. 1. liburukia.* Hezkuntza Saila.

Edukia: Lehen Hezkuntzako curriculumak ezarri duen martxoaren 19ko 24/2007 Foru Dekretua dauka jasota. Honako ikasgai hauen curriculumak garatzen du: Natura, gizarte eta kultura inguruaren ezaguera; Arte hezkuntza; Soin hezkuntza; Hiritar eta giza eskubide hezkuntza eta Matematika. Halaber, oinarritzko gaitasunak ditu.

Ale kopurua: 600 euskaraz.

- *Currículo. Bachillerato. Vol. 2: Materias optativas.* Hezkuntza Saila.

Edukia: Batxilergoa ezarri eta Nafarroako Foru Erkidegoko aukerako irakaskuntzen curriculumak onetsi duen maiatzaren 14ko 66/2008 Foru Agindua dauka. Eranskinetan, modalitate guztietako aukerako irakasgai komunak eta modalitate bakoitzeko irakasgai espezifikoak curriculumak garatzen da.

Ale kopurua: 1.500 gaztelaniaz.

- *Currículo. Bachillerato. Vol. 1: Materias comunes y de modalidad.* Hezkuntza Saila.

Edukia: Nafarroako Foru Erkidegoko batxilergoko irakaskuntzen egitura eta curriculumak ezarri dituen maiatzaren 12ko 49/2008 FDa dauka. Eranskinetan, materia komunak curriculumak adierazten dira, baita modalitate hauen curriculumak ere: Arteen Modalitatea, Zientzien eta Teknologiaren Modalitatea, eta Humanitateen eta Gizarte Zientzien Modalitatea.

Ale kopurua: 1.500 gaztelaniaz.

Bizikidetzarako hezkuntza

- *Quitate la venda.* Bizikidetzak eta Balioen Hezkuntzako Negoziatua.

Edukia: 2006-2007an bullingaren aurka egindako kanpainaren inprimatze berria da. Kartelak gaztelaniaz eta euskaraz inprimatu dira, diptikoa euskaraz irakasleentzat, liburuxka euskaraz irakasleentzat eta liburuxka euskaraz familientzat.

Ale kopurua: 500 kartel gaztelaniaz; 500 euskaraz. 1.000 diptiko euskaraz. 500 liburuxka euskaraz.

- *Desarrollo de conductas responsables de 3 a 12 años.* M.^a Asunción Fernández; José Luis Idoate Iribarren; M.^a Carmen Izal

Edukia: haurrei jokabide arduratsuei buruzko aholkuak eta gurasoei seme-alabak arduraz hezteko jarraibideak eskaintzen dizkie. Haurren bilakaera-alderdiei buruzko informazioa ematen du, 3 urte dituenetik 12 urte dituenera; gainera, galdeketak ditu gurasoentzat eta seme-alabentzat. Laugarren edizioa da.

Ale kopurua: 3.000 gaztelaniaz.

- *Aquí hay buen rollo.* Bizikidetzak eta Balioen Hezkuntzako Negoziatua.

Edukia: 2007-2008 ikasturterako eskola-bizikidetzako kanpainaren barruan dago. Orri tolesgarriak ez ezik, 2.000 kartel egin dira gaztelaniaz eta 1.000 euskaraz; 2.000 egutegi gaztelaniaz eta 1.000 euskaraz, eta 7.000 megaorrialde gaztelaniaz eta 3.000 euskaraz. Web orri bat ere gin da.

Ale kopurua: 20.000 gaztelaniaz eta 6.000 euskaraz.

- *Hemen Bai Giro*. Bizikidetzeta eta Balioen Hezkuntzako Negoziatua.

Edukia: "Aquí hay buen rollo" izeneko eskola-bizikidetzako kanpainaren euskarazko bertsioa da.

Euskara

- *Araungintza Ikastaroa*. EIBZ

Edukia: irakasleen euskarazko hezkuntza-ikastaroetan erabilitako agiri guztien bilduma da. jarduerak euskarri digitalean daude, eta, gainera, inprimaturiko koadernotxoan proposaturiko lanak, aurkibidea eta CDa erabiltzeko gida ageri dira.

Ale kopurua: 500 euskaraz.

- *Irakurketarekin Gozatuz*. EIBZ

Edukia: ikasleen irakurmen egokirako (irakurritakoa ulertu) eta autoebaluaziorako ariketak eskaintzen ditu. Inprimaturiko testuan proposaturiko ariketetariko batzuk eta narrazio bakoitzaren sekuentzia didaktikoak ageri dira, baita proiektuko lan-metodologia ere.

Ale kopurua: 500 euskaraz.

Irakasleen prestakuntza

- *Plan de Formación del Profesorado 2007-2008*. Irakasleen Prestakuntza Atala.

Edukia: 2007-2008 ikasturterako antolaturiko irakasleen prestakuntzako jarduera guztiak ditu.

Ale kopurua: 7.000 gaztelaniaz eta 3.700 elebidunak.

- *Plan de Formación del Profesorado 2007-2008 / Irakasleentzako prestakuntza plana 2007-2008*. Irakasleen Prestakuntza Atala.

Edukia: *Irakasleentzako prestakuntza plana 2007-2008* izenekoaren edizio elebiduna. Irakasleen prestakuntzarako jarduera guztiak ditu, 2007-2008 ikasturterako programaturikoak.

- *Biribilka/En espiral*. 5. zenb. Consuelo Allué (koordinatzailea)

Edukia: *Biribilka/ En Espiral* deritzonaren 5.zenbakia baterako hezkuntzari buruzko zenbaki monografikoa da; bertan, Irakasleei Laguntzeko Ikastetxe guztietako irakasleek hartzen dute parte.

Ale kopurua: 1.200 gaztelaniaz.

Lanbide Heziketa. Lan Zentroetako Heziketa

- *FCT Formación en Centros de Trabajo*. Lan Zentroetako Heziketaren Negoziatua.

Edukia: Erdi eta Goi Mailako heziketa-zikloetan ematen den Lan Zentroetako Heziketa moduluen jarraipenerako materialak dira.

Ale kopurua: zenbait material.

Ikasketa Gida

- *ESO, una nueva etapa*. Testu eta Material Didaktikoen Negoziatua.

Edukia: hezkuntza-etapa honi buruzko informazioa eskaintzen du: hiru hizkuntza-ereduen materialak eta ordutegiak, derrigorrezko eta aukerako irakasgaiak, 4. mailako curriculum aukerak, ebaluazioa, sustapena eta iraupena, titulazioa eta ondorengo balizko ikasketak.

Ale kopurua: 6.000 gaztelaniaz eta 2.000 euskaraz.

- *DBH, Beste urrats bat*. Lan Zentroetako Heziketaren Negoziatua.

Edukia: *ESO, una nueva etapa* deritzonaren euskarazko bertsioa.

- *Bachillerato LOE*. Lan Zentroetako Heziketaren Negoziatua.

Edukia: Batxilergoari buruzko informazioa eskaintzen du: hezkuntza-sistemaren barruan duen egoera, ikasturteak eta irakasgaiak, Batxilergoko modalitateak, Arteen Modalitatea, Zientzien eta Teknologiaren Modalitatea, Humanitateen eta Gizarte Zientzien Modalitatea, ebaluazioa, sustapena, titulazioa eta ondorengo balizko ikasketak.

Ale kopurua: 5.000 gaztelaniaz eta 1.500 euskaraz.

- *Batxilergoa LOE*. Lan Zentroetako Heziketaren Negoziatua.

Edukia: *Bachillerato LOE* liburuxkaren euskarazko bertsioa da.

- *Guía de Estudios. Formación Profesional, Artes Plásticas y Diseño*. Lan Zentroetako Heziketaren Negoziatua.

Edukia: Lanbide Heziketako eta Plastikako eta diseinuko irakaskuntzei buruzko informazioa dauka: Heziketa Zikloek Hezkuntza Sistemak duten egoera; Lanbide Heziketa Espezifikoaren egitura; Erdi Mailako Heziketa Zikloak; Goi Mailako Heziketa Zikloak eta ziklo horietatik Unibertsitaterako sarrera.

Ale kopurua: 4.700 gaztelaniaz eta 1.200 euskaraz.

- *Lanbide Heziketa, Arte Plastikoak eta Diseinua*. Testuen eta Material Didaktikoen Negoziatua.

Edukia: Lanbide Heziketa, Plastika eta Diseinua deritzonaren euskarazko bertsioa da.

Instrumenta

- *Plastika Hezkuntza*. José Luis Valenciano-Plaza

Edukia: Lehenengo zatian, Plastika Hezkuntzako Irakasleak ikasgelan erabili ahal dituen material guztiak aurkezten dizkigu: marrazketa, pintura, estanzazioa, grabatua, eskultura, komikia, etab. Bigarren zatian, teknika horiek Lehen Hezkuntzan eta DBHn duten aplikazioa zehaztu eta unitate didaktikoak nahiz ariketak proposatzen dira.

Ale kopurua: 500 euskaraz.

Lenarriak

- *Lenarriak VII*. Zenbait autore

Edukia: Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek honako arlo hauetan egin eta saria jaso duten lanen bilduma da: idatzitako bertsoa, irakurmena eta deklamazioa, irrati-gidoia, etnografia eta euskarazko literatura (ipuingintza eta olerkia). Ahozko lanak jasotzen dituen DVDa dauka.

Ale kopurua: 1.200 euskaraz.

Irakurmen-plana

- *La evaluación, un compromiso para la mejora*. Hezkuntza Saila (Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzua) eta Ikuskapen Zerbitzua.

Edukia: "*La evaluación, un compromiso para la mejora*" jardunaldirako landutako materialen bilduma; jardunaldi hori Iruñeko Planetarioan egin zen, 2008ko martxoaren 4an.

Ale kopurua: 300 gaztelaniaz.

- *Proyecto para la mejora de las competencias implicadas en la lectura*. Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzua eta Ikuskapen Teknikoa eta Zerbitzuak.

Edukia: DBHn irakurmen- eta idazmen-gaitasuna hobetzeko proiektua da. Ikasleek menderatzen dituzten eta menderatzen ez dituzten gaitasunetan oinarritzen da; gero, irakurmen- eta idazmen-

planeko helburuak proposatzen dira. Irakurmen- eta idazmen-planaren oinarriak azaldu eta jarraibideak ematen dira ikastetxe bakoitzak bere plana sortzeko.

Ale kopurua: 1.500 gaztelaniaz.

- *Irakurketan inplikaturiko gaitasunak hobetzeko proiektua*. Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzua eta Ikuskapen Teknikoa eta Zerbitzuak.

Edukia: Irakurmenean inplikaturiko gaitasunak hobetzeko Proiektuaren euskarazko bertsioa da.

Ale kopurua: 600 euskaraz.

- *Diez años leyendo juntos*. Mendillorri ikastetxe publikoa.

Edukia: Mendillorri ikastetxe publikoak bere hamargarren urteurrena ospatzeko editaturiko aldizkaria da. Ikastetxeak irakurmena sustatzeko egin dituen ekintza guztiak biltzen ditu, baita horietan laguntza eman duten autoreen esku-hartzeak ere.

Ale kopurua: 1.000 gaztelaniaz.

- *La lectura y la sociedad del conocimiento*. José Antonio Millán

Edukia: liburutxo honetan, José Antonio Millánek dio irakurmena ezagupenaren giltza dela informazioaren gizartean. Izan ere, gizarte digitalean irakurmen-trebetasun aurreratuak behar dira web orrialdeek gure esku jartzen duten informazio kantitate itzela kontsultatzeko, integrazteko eta barneratzeko.

Ale kopurua: 5.000 gaztelaniaz.

Berrikuntzako sariak

- *Las profesiones*. Teresa de Andrés Urtasun eta M.^a José Marqués Malumbres

Edukia: Haur eta Lehen Hezkuntzan lanbideak eta ogibideak lantzeko programa elkarreragilea.

Ale kopurua: 500 gaztelaniaz.

- *Bodas de Sanchicorrota y Jazmín*. Ana Isabel Simón Cornago eta beste batzuk

Edukia: hezkuntza-esperientziaren deskribapena da, El bandolero Sanchicorrota irakurtzean oinarrituz. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago.

Ale kopurua. 500 gaztelaniaz.

- *Camino de Santiago: quiero ser peregrino*. Carlos Argüello Vicente eta M.^a Carmen Pérez de Albéniz López

Edukia: Nafarroako Done Jakue bidean oinarrituz, astebeteko hezkuntza esperientzia aurkezten digu. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago.

Ale kopurua. 500 gaztelaniaz.

Beste batzuk

- *Instrucciones de organización y funcionamiento de los centros docentes públicos*. Antolamendu Akademiko Atala.

Edukia: ekainaren 29ko 695/2007 ebazpena dauka; bertan, ikastetxeen jarraibideak ezartzen dira, 2007-2008 ikasturterako.

Ale kopurua: 1.100 gaztelaniaz.

- *Guía de Publicaciones. Edición 2007*. Testu eta Material Didaktikoen Negoziatua.

Edukia: gida honetan Hezkuntza Sailak 1996tik 2007ra argitaraturiko material guztia dago bilduta. Gai-bloke eta bilduma handietan antolaturik dago; goiburukoan sarrera orokorra dago eta, ondoren, kronologikoki antolatuta, argitalpenak ageri dira. Bakoitzak bere datu teknikoak eta edukiaren aipamentxoak dauka. Gidaren barruan, gainera, 204 argitalpenen PDFak dituen DVDa dago.

Ale kopurua: 1.600 gaztelaniaz.

- *VI Certamen interdisciplinar Petilla de Aragón, un enclave Navarro para conocer e investigar*. Testu eta Material Didaktikoen Negoziatua.

Edukia: Petilla de Aragoneko Udalak urtero antolatzen duen diziplina anitzeko lehiaketarako deialdiaren oinarriak jasotzen ditu; lehiaketa hori Santiago Ramón y Cajal jaunari buruzkoa da.

Ale kopurua. 1.400 gaztelaniaz.

- *Unidad Educativa hospitalaria*.

Edukia: "Virgen del Camino" ospitalean dauden haurren eta gazteen hezkuntza-laguntzari buruzko informazioa duen orri tolesgarria da. Ospitalean dauden haurren familiei zuzenduta dago.

Ale kopurua: 1.100 gaztelaniaz eta euskaraz.

- *Itinerarios culturales por Navarra*. Iñigo Arista Kultura Taldea

Edukia: Nafarroako monumentu eta eskualde ospetsu askoren irudia eta datuak biltzen dituen orri tolesgarria da. Kultura-bisitaldiak egiten dituzten ikasleek erabiltzeko pentsatuta dago. Alde batean, Nafarroako Foru Erkidegoaren mapa ageri da, eta, bertan, azalduetako monumentuen kokalekua dago adierazita.

Ale kopurua: 15.000 elebidunak.

2008ko irailean editatzeko tramitatzen ari diren argitalpenak:

- Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko kanpaina: irakurmen-baimena.
- Irakurtzeko zaletasuna sustatzeko kanpaina: gazteak eta irakurmena.
- Ikasturtea hasierako jarraibideak.
- Oinarrizko gaitasunak hobetzeko plana.
- Irakurtzea eta idaztea Interneten aroan (Eskola Liburutegien bilduma, Blitz horia edo gorria).
- Irakurri, ulertu eta jardun. Hizkuntzaren erabilera funtzionalerako proposamenak.
- Ostalaria. Eskola-antzerkiko esperientzia.
- Curriculum. Batxilergoa. 1. liburukia.
- Curriculum. Batxilergoa. 2. liburukia.

IKASGELA azoka bateko partaidetza

2008ko apirilaren 1etik 6ra, IKASGELA deritzon Hezkuntza Azoka egin zen. Urtero bezala, Hezkuntza Ministerioak saltokiak instalatzeko eremu komuna jarri zuen autonomia-erkidegoetako Hezkuntza Sailburuen esku. Hezkuntza Sailak Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzuaren bidez hartu zuen parte azokan.

Aipagarriak dira "Aquí hay Buen Rollo" bizikidetzak-kanpainak gainerako erkidegoetan sortu duen interesa, irakurmen-gaitasuna hobetzeko plana eta, beti bezala, Hezkuntza Sailaren argitalpenen kalitate nahiz aniztasun oso handia.

3.9. Nafarroako arartekoak hezkuntzaren arloan egindako jarduketak

3.9.1. 2007an aurkezturiko kexak

Erakundearen urteroko txostenean jasotakoaren arabera, 2007an Nafarroako arartekoak hezkuntzari buruzko hemezortzi kexa jaso ditu, hain zuzen ere, kexa guztien %4,3.

Hezkuntzaren arloko kexak gero eta urriagoak izan dira azken bi urteotan; izan ere, 2005eko %10,6tik 2006ko %5,68ra eta 2007ko %4,3ra igaro dira.

Hezkuntzaren arloko kexen edukia zergati anitzen eraginezkoa da.

0-3 urteko ikastetxeei buruzko kexak gurasoek seme-alabak halako ikastetxeetan eskolatzeko ordaintzen dituzten tarifei buruzkoak izan dira; plazen eskariari eta eskaintzari buruzko kexak gutxiago izan dira.

Lehenagoko txostenetan, Erakundeak ikastetxeok bete behar dituzten gutxieneko baldintzak aipatu ditu, baita horien jardueran ezarri beharreko kontrola ere; alderdi horiek martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak arautu ditu, eta, dekretu horren bidez, haur-hezkuntzako lehenengo zikloa arautu eta ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak ezartzen dira, baita zikloaren hezkuntza-edukiak ere.

Haur-hezkuntzako bigarren zikloari dagokionez, eskolatzeko irizpideei buruzko kexak planteatu ziren, gehienbat Nafarroako Foru Erkidegoko itunpeko ikastetxeetan sartzeko zailtasunaren ondorioz (irizpide osagarriak aplikatzen baitira). Beste kexa batean zalantzan jarri zen haurrak eskolatzeko ezarritako zona-banaketa.

Eskolatzeari buruzko kexetariko bat taldekoa izan zen, eta, bertan, familiako eskolatzeari eskatzen zen, hau da, ikastetxeetatik kanpokoak. Kexa hori Hezkuntza Sailari bidali zitzaion, baina Nafarroako arartekoak halako hezkuntzaren aurkako jendaurreko adierazpenak egin zituen, hezkuntza mota hori ez baita legezkoa.

Era berean, jantoki-zerbitzu osagarriaren finantziarioari buruzko kexak ere aurkeztu ziren, hain zuzen ere, horretarako diru-laguntzak ukatzeari buruzkoak.

Azkenik, kexa batean selektibitateko datak zehaztean malgutasun handiagoa eskatu zen, hautagaiek deialdi bakarrerako adierazitakoak ez diren beste data batzuetan egin ahal izateko probak, justifikaturiko zergatiren bat emanez gero.

Eduki zehatzari dagokionez, arloen aurkibidea hauxe da:

Haur-hezkuntzako lehenengo zikloko ikastetxeak (0-3 urte):

- 0-3 urteko ikastetxeei aplikaturiko tarifekiko desadostasuna.
- 0-3 urteko udal-ikastetxe batean ordutegi osoko tarifa ordaindu behar izatearekiko desadostasuna, ordutegi murriztua erabiltzen denean.
- 0-3 urteko ikastetxe baten zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratuaren enpresa adjudikaziodunaren aldaketa, gurasoei hori alde aurretik jakinarazi gabe.

Haur-hezkuntzako bigarren zikloa eta derrigorrezko irakaskuntzak:

- Eskolako jantoki-zerbitzuaren finantziario urria.
- Eskola-jantokiko zerbitzurako laguntzaren ukapena.
- Entzumen urritasun larria duen semea beste autonomia-erkidego bateko ikastetxe batera eramatearen (Nafarroako Foru Erkidegoan ezintasun hori duten haurrentzako ikastetxerik ez baitago) eraginezko gastuak ordaintzeko diru-laguntzaren ukapena.

- Itunpeko ikastetxeetan eskolatzeko irizpide osagarriak aplikatzearekiko desadostasuna, batez ere antzinako ikasleen irizpidea aplikatzeari dagokionez.
- Eskolatzeko ezarrirako zona-banaketarekiko desadostasuna.
- Eskolatzeko irizpideekiko desadostasuna.
- Etxean eskolatzeko eskabidea.
- Hezkuntza planifikatzeko irizpideekiko desadostasuna, ikastetxeetan hizkuntza-ereduak aukeratzearen arloan.

Lanbide Heziketa:

- Lanbide-heziketa ikasteko plazak erreserbatzeko eskabidea, unibertsitateko titulua duten langileentzat.

Unibertsitatean sartzeko proba:

- Ikasle bati selektibitateko probaren eguna aldatzeko malgutasun eza; izan ere, familiako bat hil zaionez, ikasle hori ezin da ezarrirako egunean aurkeztu.

EGA:

EGA lortzeko probaren eguna aldatzeko malgutasun eza.

3.9.2. 2007an emandako ebazpenak.

Onarturiko ebazpenak

06/130 espedientea, unibertsitatekoa ez den irakaskuntza-funtzio publikoan sartzeko sistemarekiko desadostasunari buruzkoa; hain zuzen ere, DBHko lehenengo zikloan eskola emateko kontratatu diren irakasleengan dituen ondorioak aintzat hartuta.

06/356 espedientea, funtzionarioei eta horien familiei tasak salbuestearekiko desadostasunari buruzkoa (Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean eta Urruneko Hizkuntza Eskola Ofizialean).

07/183 espedientea, eskolatzeko ezarrirako zona-banaketarekiko desadostasunari buruzkoa; batez ere, Iruñeko 2. zonan (mendebaldeko sektorea) eta horren Zizurreko eskualdean.

Onartu gabeko ebazpenak

2007ko abenduaren 31n ez zegoen ezein gomendio ukatuta.

3.9.3. 2007ko abenduaren 31n erantzun barik zeuden ebazpenak:

07/259 espedientea, zerbitzuko langileentzat zerbitzuak emateko (familia-beharrizanetarako) deialdia ez egitearekiko desadostasunari buruzkoa.

Espedientea: 07/317, zerbitzu-emateak ukatzeari buruzkoa.

3.9.4. 2006ko abenduaren 31n erantzun barik zeuden ebazpenak:

Onarturiko ebazpenak

05/360 espedientea, hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleentzat interpretea behar izateari buruzkoa.

3.9.5. Hezkuntza-arloan 2007an egindako gomendio eta iradokizun bereziak:

Atal honetan egindako lege-betebeharren (ofiziozkoak edo hiritarrek eskatutakoak) gomendio, iradokizun eta oroitzapen nagusiak biltzen dira.

Hezkuntza Sailari:

Eskola-curriculumean nutrizioari eta dietetikari buruzko eduki praktikoak sartzea, haurren eta gazteen artean elikadura-ohitura osasuntsuak sustatzeko eta elikadura-arazoaren ondoriozko gaixotasunei aurrea hartzeko.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 86.1 artikuluan ezarritakoa betetzeko, udalerrri edo lurralde berezko ikastetxe publikoetarako eta itunpeko ikastetxe pribatueterako eragin-eremu berberak ezartzea, eta, beraz, Zizur Iruñeko eskualdearen eragin-eremu batean sartzea. Onartuta.

Iruñeko Hizkuntza Ofizialean ingeleza eta frantsesa ikasteko eskariari aurre egiteko neurririk egokienak (planifikaziokoak, baliabideen antolamendukoak eta kudeaketakoak) ikertzea eta hartzea; halaber, norbere konturako azterketarako plaza kopurua ez mugatzea, Hizkuntza Eskola Ofizialean baliabiderik ez egotearen eraginez.

16. laukia - Nafarroako arartekoari hasitako, tramitaturiko eta amaitutako keak, hezkuntzari eta irakaskuntzari buruzkoak, 2005etik 2007ra			
Arloak	Hasitakoak	Tramitean	Amaitutakoak
2005	43	0	43
2006	27	0	27
2007	18	0	18

Iturria: Nafarroako Arartekoaren Bulegoa

3.10. Compto-en Ganberaren txostena

2007/2008 ikasturtean, erakunde horrek ez du Nafarroako hezkuntzarekin lotutako alderdiei buruzko txostenik idatzi.

4.- ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK

4.1. Bekak. Nafarroako Gobernuaren Deialdi Orokorra. Testuliburuak lortzeko laguntzak. Beste deialdi batzuk

4.1.1. Nafarroako Gobernuaren laguntza osagarri orokorrak

17. Iaukia - Bekak. Nafarroako Gobernuaren Deialdi Orokorra Erdi eta Goi Mailako Ikasketetarako, 2003/2004tik 2007/2008ra bitarteko ikasturteak					
Ikasturtea	2003/04	2004/05	2005/06	2006/07	2007/2008 ¹
1. ESKABIDE KOPURU OSOA (ikasleak)	5.878	6.004	5.638	5.446	5.580
2. EMANDAKO BEKA KOPURU OSOA	3.884	3.619	3.402	3.364	3.238
2.1 Unibertsitatekan kanpoko mailetan	1.449	1.412	1.279	1.261	1.222
2.2 Unibertsitateko mailetan	2.435	2.267	2.123	2.103	1.987
2.3. Masterreko ikasketetan					29
3. EMANDAKO ZENBATEKO OSOA	5.721.374	5.501.468	5.279.392	5.347.848	5.346.948
3.1 Unibertsitatekan kanpoko mailetan	1.107.143	1.109.467	1.015.887	1.014.339	1.047.721
3.2 Unibertsitateko mailetan	4.614.231	4.392.001	4.263.505	4.333.509	4.225.830
3.3 Masterreko ikasketetan					73.395
4. ORDAINDUTAKO ZENBATEKO OSOA	3.345.667	3.119.070	2.840.831	3.062.052	2.801.656
4.1 Unibertsitatekan kanpoko mailetan	526.737	541.827	447.966	496.773	463.224
4.2 Unibertsitateko mailetan	2.818.931	2.577.243	2.392.865	2.565.280	2.288.545
4.3 Masterreko ikasketetan					49.887
5. BEKA KOPURUA UNIBERTSITATEKAN KANPOKO MAILETAN					
5.1 IRAKASKUNTZA					
Beka kopurua	246	182	143	137	153
Zenbatekoa	66.688	48.948	37.383	37.589	44.542
5.2 GARRAIOA					
Beka kopurua	1.030	991	915	902	858
Zenbatekoa	444.915	445.982	417.210	406.095	387.142
5.3 JANTOKIA					
Beka kopurua	7	17	17	19	21
Zenbatekoa	2.722	5.834	5.996	6.659	7.117
5.4 EGOITZA					

¹ 2008ko abuztuko datuak. Amaitu gabeko deialdia.

Beka kopurua	348	362	317	313	313
Zenbatekoa	581.716	600.544	551.670	556.661	598.457
5.5 BEREZIA					
Beka kopurua	15	11	5	10	13
Zenbatekoa	11.102	8.159,30	3.628	7.335	10.464
UNIB. KANPOKO ZENB. GUZTIRA (*)	1.107.143	1.109.467	1.015.887	1.014.339	1.047.722
6. UNIBERTSITATEKO BEKA KOPURUA KONTZEPTUEN ARABERA					
6.1 IRAKASKUNTZA					
Beka kopurua	2.404	2.221	2.093	2.046	1.945
Zenbatekoa	2.686.024	2.530.330	2.420.921	2.436.610	2.333.942
6.2 GARRAIOA					
Beka kopurua	375	399	340	403	343
Zenbatekoa	115.212	137.714	135.917	170.794	140.672
6.3 JANTOKIA					
Beka kopurua	145	186	186	217	185
Zenbatekoa	38.962	49.606	52.375	66.743	56.699
6.4 EGOITZA					
Beka kopurua	1.169	1.095	1.036	993	970
Zenbatekoa	1.763.596	1.663.692	1.639.530	1.642.181	1.679.111
6.5 BEREZIA					
Beka kopurua	11	10	13	14	12
Zenbatekoa	10.436	10.670	14.762	17.181	15.407
UNIBERTS. ZENB. GUZTIRA ²	4.614.231	4.392.001	4.263.505	4.333.509	4.225.830
7. MASTERREKO IKASKETETAKO BEKA KOPURUA					
7.1. IRAKASKUNTZA					
Beka kopurua					29
Zenbatekoa					49.930
7.2. GARRAIOA					
Beka kopurua					8
Zenbatekoa					5.728
7.3. JANTOKIA					
Beka kopurua					3
Zenbatekoa					931
7.4. EGOITZA					

² Zenbateko hauek 3. atalean emandako zenbateko osoa baino handiagoak dira; izan ere, zenbait kasutan, kontzeptu-batuketara honi %65, %60, %80 edo %70 gehitzen zaio, ikasketa mailaren eta kasuan kasuko deialdiaren arabera (2001/02 ikasturtea baino lehenagokoak), emandako zenbatekoa kalkulatzeko.

ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK

Beka kopurua					10
Zenbatekoa					16.807
MASTERREKO IKASK. ZENB. GUZTIRA					73.395

Iturria: Ikastetxe eta Ikasketa Laguntzako Zerbitzua

4.1.2. Testuliburuak lortzeko laguntzak

18. Iaukia - Nafarroako Gobernuak "Testuliburuak lortzeko" emandako laguntzak, 2003/2004tik 2007/2008rako ikasturteak												
	Aurkezturiko eskabide kopurua			Emandako laguntza kopurua			Ukaturiko laguntza kopurua			Emandako zenbatekoak		
	L. Hezk.	DBH	Guzt.	L. Hezk.	DBH	Guzt.	L. Hezk.	DBH	Guzt.	L. Hezk.	DBH	Guzt.
2003/2004	9.953	5.508	15.461	5.583	3.121	8.704	4.370	2.387	6.757	291.315	238.251	529.566
2004/2005	9.859	5.165	15.024	6.453	3.421	9.874	3.406	1.744	5.150	331.612	253.707	585.319
2005/2006	10.440	5.152	15.592	6.640	3.409	10.049	3800	1.743	5.543	324.060	259.449	583.509
2006/2007	11.092	5.260	16.352	8.183	3.978	12.161	2.909	1.282	4.191	423.518	315.476	738.994
2007/2008	12.346	5.806	18.152	8.988	4.409	13.397	3.358	1.397	4.755	545.621	405.159	950.780

Iturria: Ikastetxe eta Ikasketa Laguntzako Zerbitzua

4.1.3. Hezkuntza Berezirako laguntzak.

19. Iaukia - Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Berezirako emandako bekak eta laguntzak, 2007/2008 ikasturtea			
	Eskabideak	Emandakoak	Emandakoa guztira (euroak)
Haur Hezkuntza	47	13	11.591,00
Lehen Hezkuntza	83	32	38.613,00
Hezkuntza Berezia	90	74	72.451,50
DBH	22	12	13.085,50
Guztira	242	131	135.741,00

Iturria: Dibertsitatearen, Kultura Aniztasunaren eta Immigrazioaren Laguntza Zerbitzua. NHBBZ

20. laukia - Irakaskuntzako banakako laguntzak, ezintasun sentsoriala edo eragilea duten ikasleentzat, edo etxean luzaro daudentzat, Derrigorrezkoaren osteko Bigarren Hezkuntzako mailetan, 2007/2008 ikasturtea

	Eskabidea	Emandakoak	Zenbatekoa (euroak)
GMHZ	2	2	1980,00
EMHZ	3	3	3744,00
Batxilergoa	8	8	16.282,00
Guztira	13	13	22.036

Iturria: Dibertsitatearen, Kultura Aniztasunaren eta Immigrazioaren Laguntza Zerbitzua. NHBBZ

4.1.4. Estatuko laguntzak

21. laukia - Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren laguntzak (HKM)

Liburuak lortzeko

Ikasturtea	2003/2004	2004/2005	2005/2006	2006/2007	2007/2008
Eskabide kopurua	13.307	11.955	11.673	13.063	14.228
Emandako laguntza kop.	5.775	6.303	7.508	8.367	8.048
Laguntzaren zenbatekoa	450.450	526.300	606.995	753.030	764.560

Haur Hezkuntza

Eskabide kopurua	803	864	455	-	-
Emandako laguntza kop.	581	436	178	-	-
Laguntzaren zenbatekoa	133.165	99.961	40.798	-	-

Hezkuntza Beharrian Bereziak

Eskabide kopurua	255	237	249	313	293
Emandako laguntza kop.	167	169	200	222	215
Laguntzaren zenbatekoa	173.158	186.170	222.833	243.152	259.086

Iturria: Ikastetxe eta Ikasketa Laguntzako Zerbitzua

ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK

22. laukia - HKMren beken eta ikasteko laguntzen bilakaera, deialdiaren arabera				
Ikasturtea	Guztira ⁽¹⁾		HKM	
	Bekadunak	Zenbatekoa (€ak milatan)	Bekak	Zenbatekoa (€ak milatan)
1996/97	887.242	595.945	793.878	559.001
1997/98 ⁽²⁾	816.449	537.091	724.599	499.592
1998/99 ⁽²⁾	655.525	555.290	566.967	517.210
1999/00 ^{(2) (3)}	550.694	546.805	469.542	513.146
2000/01	546.408	627.536	468.449	593.321
2001/02	554.065	663.344	480.799	629.944
2002/03	515.543	662.342	443.001	626.334
2003/04	522.549	677.411	436.598	637.654
2004/05 ⁽⁴⁾	522.965	753.445	428.161	711.531
2005/06 ^(p)	514.513	767.086	412.336	718.994
2006/07 ^(p)	556.633	856.866	450.374	806.179
2007/08 ^(e)	627.592	1.047.591	517.345	990.589

Iturria: Datuak eta zifrak. 2007/2008 ikasturtea. HKM

¹ HKMren bekek eta laguntzak ez ezik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak emandakoak ere sartzen dira, horrek bekek emateko eskumena baitauka transferituta.

² Bekadun kopuruaren eta beken zenbatekoaren murriztapena, neurri handian, derrigorrezko irakaskuntza (doakoa) hedatzearen eraginezkoa da, DBHko 2. zikloa ezarri baita.

³ Ikasturte honetatik aurrera, bekadunen zifretan eta beken zenbatekoan unibertsitate-mugikortasuneko bekek ere sartzen dira.

⁴ Ez daude jasota HKMk Prestigeren hondamenaren eraginpeko ikasleei emandako laguntzak, laguntza bereziak baitira.

^p Behin-behineko zifrak.

^e Kalkulatoriko zifrak.

Oharrak:

- Serieetan ez daude zenbatuta testuliburuak eta material didaktikoa eskuratzeko laguntzak, ezta hiru seme-alabako familiei prezio akademikoetan egindako salbuespena ere.
- Azken ikasturteetako datuetan aintzat hartu behar da Haur Hezkuntzako bigarren zikloa doakoa izatearen eraginez bekek murriztearen eta hezkuntza-itunak hedatzearen ondorioa.

4.2. Dibertsitateerako laguntza.

Dibertsitateak beharizan handiak ditu eta horiek, aldi berean, hezkuntza-erantzun anitzak behar dituzte, irakaskuntza eta ikaskuntza bertara ondo egokituta egoteko.

Ekitateak kalitatezko aukera-berdintasuna bermatzen du, nortasuna hezkuntzaren bitartez erabat garatu ahal izateko.

Ikasleen irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua normalizazioko eta integrazioko printzipioek gidatuko dute, eta ikasle guztiek laguntza egokia jasotzeko duten eskubidea bermatuko dute.

Dibertsitatearen Laguntza Plana (DLP). Hori ikastetxe guztietan egiteko orientazioak.

Ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza taldea eta irakasle taldeak Dibertsitatearen Laguntza Plana egitearen garrantziaz eta beharizanaz jabetu behar dira; plan horrek dibertsitatearen laguntzarako hezkuntza-neurrien urteroko planifikazioa gidatuko du, Urteko Programazio Orokorren esparruan.

Kalitateko hezkuntzarako banakako eskubidea bermatzeko, Dibertsitatearen Laguntza Planak aintzat hartuko ditu jarduketak, curriculum-egokitzapenak, antolamendu-neurriak, laguntzak eta indargarriak, ikastetxeko ikasle guztien hezkuntza-beharrizanetarako erantzunik egokienak emateko diseinatzen, hautatzen eta gauzatzen dituztenak.

Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzuak ikastetxe bakoitzean plana egiteko ildo orokorrak, irizpideak eta prozedura eskaintzen ditu, "Dibertsitatearen Laguntza Plana: ikastetxeetan egiteko orientazio orokorrak" agirian.

Agiri honetan eta beronen eranskinetan, irakasle taldeen hausnarketan eta erabaki-hartzean kontuan hartu behar diren funtsezko alderdiak daude bilduta.

Ikastetxeek, zuzendaritza taldeak sustatuta, Dibertsitatearen Laguntza Plana errazago egitea eta ikastetxe guztietarako oinarritzko eskema komuna bermatzea da helburua. Horretarako, DLPa egiteko prozedura ezarri eta azpiprozesuko lanak adierazten dira:

- hezkuntza-komunitatearen sentsibilizazioa
- beharizanen detekzioa eta balorazioa
- dibertsitatearen laguntzarako neurrien proposamena
- beharrezko baliabideak
- harturiko neurrien aplikazioa
- ebaluazioa eta jarraipena

Eta jarduera horietariko bakoitzean hauxe adierazten da:

- helburuak,
- jarduketak,
- erantzuleak,
- kudeaketarako baliabideak,
- prozedurak eta egutegia.

Plana jasotzen duten ikasleak.

Oro har, Dibertsitatearen Laguntzarako Planak (DLP) ikasle guztien eta bakoitzaren dibertsitateari eman beharreko laguntza hartu behar du aintzat.

Hain zuzen ere, DLPk dena delakoagatik irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuetan garapen egokia izateko zailtasunak dituzten ikasleak hartu behar ditu kontuan; izan ere, ikasle horiek laguntza eta baliabide bereziak beharko dituzte jarduerarik arruntenak egin ahal izateko.

Ikasle horien artean, hezkuntza-beharrizan bereziak, iragankorrak edo iraunkorrak dituzten ikasleak daude:

- Egoera sozioekonomiko edo soziokultural txarra duten ikasleak.
- Ikasle atzerritarrak, hizkuntza ezagutzen ez dutenak, edo oinarrizko ezagupenetan curriculum mailako desfaseak dituztenak.
- Adimen-gaitasun handiko ikasleak.
- Ezintasun fisikoari, psikikoari nahiz sentsorialari edo nortasun- zein jokabide-arazo orokor larriei lotutako hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak.

Dibertsitatearen Laguntza Planaren helburua.

Ikastetxeari laguntzak planifikatzea eta antolatzea errazten dion tresna izatea; gainera, baliabide pertsonalak lehenestea erraztu behar dio, baliabide horiek halako neurriak behar dituzten ikasleen taldeko edota banakako beharrizantara egokitu ahal izateko.

Dibertsitatearen hezkuntza-erantzuna ikasgela barruan eta bertatik kanpo lehenesteko irizpideen zehaztapenean gidatzea, honako hauen arteko ekintza koordinatuaren bidez: orientazioa, tutoretza-ekintza, tutore diren irakasleak, arloko irakasleak eta irakasle arrunten nahiz espezializatuen laguntzak.

Ikasle immigranteak edo egoera soziokultural txarrean daudenak hartzeko edo jasotzeko neurriak eta jarraibideak ezartzea, irakasle taldeak adosturiko Harrera Planaren barruan.

Ikasturtean sor daitezkeen beharrizan berriekiko aldaketak sartzeko aukera ematen duen planifikazioa aurreikustea; antolamendu mailako neurri malguak erabiltzea, irakasle arrunten eta adituen esku-hartzeak berregokitu ahal izateko.

Dibertsitatearen Laguntzaren eraginkortasunaren barne-ebaluazioa gidatzea, ikasturte bakoitza amaitzean, eta hurrengo urtean hobetu behar diren alderdiak identifikatzea.

Hezkuntza Beharrizan Bereziak.

Ezintasunari lotutako hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzea.

Ezintasun psikikoari, sentsorialari eta eragileari lotutako hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko jarraitu beharreko prozedurak adierazten duenaren arabera, hartzen diren erabakien helburua ikasleen ezaugarrietarako hezkuntza-erantzunik egokiena testuinguru ahalik eta normalizatuenaren barruan egitea da.

Arau orokortzat, ikastetxe arrunteko eskolatzea proposatuko da ikasleen HBBak ikastetxeen ohiko baliabideen bidez zaindu ahal direnean (eskola-orientatzailea, pedagogia terapeutikoko irakaslea, entzumeneko nahiz hizkuntzako irakaslea eta, behar izanez gero, zaintzailea, fisioterapeuta eta NHBBZren kanpoko laguntzak).

Ikasleen HBBek banakako laguntza iraunkorra eta ikastetxeak eskaini ezin dituen jarduketak bereziak behar dituztenean, Hezkuntza Bereziako Ikastetxean eskolatzea proposatuko da. Egokitzapen bereziak behar dituzten ikasleak dira, euren adinari dagokion curriculum ofizialeko ikasgaietan, bestela euren gizarteratzearen eta ikastetxe arrunteko ikaskuntzetako aurrerapenen maila oso urria izango bailitzateke.

Eskolatzeko-modalitateak. Antolamendu-aukerak.

Bi eskolatzeko-modalitate daude, curriculumerako egokitzapen mailaren eta ikasleak behar duen laguntza mailaren arabera:

1.- Ikastetxe arruntean eskolatzeko modalitatea/Antolamendu-aukerak:

- Gabezia eragileak eta entzumenekoak dituztenen lehentasuneko ikastetxea.
- Garapen Arazo Orokorrak (GAO) dituzten ikasleentzako ikasgela bereziak
- Curriculum Bereziko Unitateak (CBU)
- Lanbide Hastapen Bereziko Programak (LHBP) ikastetxe arruntean
- Hasierako Lanbide Prestakuntza Bereziko Programak (HLPBP)

2.- Hezkuntza Bereziko Ikastetxean eskolatzeko modalitatea/Antolamendu-aukerak:

- Hezkuntza bereziko ikasgela landa-inguruan
- Eskolatzeko konbinatuko programa: hezkuntza bereziko ikastetxea/ikastetxe arrunta
- Lanbide Hastapen Bereziko Programak (LHBP) hezkuntza bereziko ikastetxean
- Helduen Bizitzara Igarotzeko (HBI) heziketa programak

Eskolatzeko-modalitatea aukeratzeko irizpideak.

Hezkuntza-beharrizan bereziak ikastetxeetako orientatzaileek identifikatu eta baloratuko dituzte; horiek, kasu bakoitzean, eskolatzeko-modalitateko proposamena eta jarduketako-planak ezarriko dituzte, ikasle bakoitzaren beharrezkoak direnak.

Ebaluazio psikopedagogikoan oinarrituz, ikasleak segurutzat beharko dituen egokitzapenen, baldintzen eta laguntzen (espezializazio maila handiagokoak edo txikiagokoak, eta, beraz, ohikoagoak edo bereziagoak) mota eta maila aurreikusi behar da; hain zuzen ere, horixe zehazten du eskolatzeko modalitatearen eta horren antolamendu-aukeren proposamenak.

4.2.1. Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan dibertsitatearen laguntzarako dauden baliabide arruntak.

Haur eta Lehen Hezkuntza.

Etapa hauetan laguntza eta sustapena eman nahi da garapen fisikorako, moralerako eta adimen nahiz gizarte mailako garapenerako. Aldi erabakigarria da pertsonaren heziketan; izan ere, etapa hauetan, zenbait arlotako (hizkuntza, kalkulua eta atzerriko hizkuntza) oinarrizko trebetasunen ikaskuntzaren oinarriak ezartzeaz gain, lanerako, irakurtzeko, bizikidetzarako eta gainerako errespeturako ohiturak ere eskuratzen dira, bizitza osorako.

Ikaslea, oro har eta ohiko ikasgelen aldi osoan, murgilketa eta laguntza normalizatuko prozesu batean sartzen da; horrela, neurri osagarriren behar izanez gero, hori bere taldearen barruan gauzatu eta aldi baterakoa izango da.

Lehen Hezkuntzan, oro har, eta hasierako ebaluazioa ikusita, ikasturte bateko desfase orokorra duen ikasle hasiberriak adinez dagokiona baino urtebete beheragoa den mailan sartuko da. Curriculum-desfasea ziklo batekoa baino gehiagokoa bada, beheko mailan sartzeaz gain, bere beharrezkoen

araberako laguntzak emango zaizkio. Ikasleak, ahal izanez gero, euren taldeko ikasgelaren barruan egongo dira, eta ikasgelako curriculum-alderdiak hartuko dituzte erreferentziazat.

Bigarren eta hirugarren zikloetan, ohiko ikasleak, lehentasunez eta dibertsitatearen laguntzarako esleituriko orduetan, beharrezko ahalegin guztiak egingo ditu ikasle atzerritarrentzat; hain zuzen ere, harrera- eta komunikazio-hizkuntzako irakaskuntza-programak garatu eta curriculum desfasea gainditzeko laguntzak emango ditu.

Bigarren Hezkuntza.

Etaparen helburua anitza da eta zailtasunez beteta dago; izan ere, alde batetik, kulturaren oinarriko elementuen transmisioa egin behar da, eta, bestetik, ikasteko eta lan egiteko ohiturak finkatu behar dira, ikaskuntza autonomoa lortzeko; halaber, hiritartasunerako eta laneratzeko gaitasunak eta erantzukizunak garatu behar dira.

Ikastetxeek ohiko baliabide eta neurri orokorrak edukiko dituzte, etapa honetan dibertsitatearen laguntza gauzatzeko; horretarako, ordutegia luzatu egingo dute. Zuzendaritza taldeek bermatu egingo dute ikasle atzerritarrei eta egoera txarrean dauden ikasleei laguntzeko programak gauzatzen direla.

Laguntzako neurrien artean, aukerako irakasgaien eskaintza sar daiteke; horrela, curriculumaren tresnazko arloak indartu eta, aldi berean, ikasleen interesei, motibazioei nahiz gaitasunei arreta egokia eskainiko zaie.

Ikasle atzerritarrak eta egoera txarrean daudenak etapako azken ikasturteetan aurreikusitako neurri berezietan sartu ahal izango dira (Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak, Egokituriko Curriculumeko Programa, Curriculum Dibertsitateko Programak); horien helburua Bigarren Hezkuntzako Graduatu Titulua lortzea da.

Hain zuzen ere, hezkuntza-sistemako DBH etapan hizkuntza ezagutu barik sartzaren diren ikasle atzerritarrek komunikazioko hizkuntza eta harrerako kultura ikasteko, konpentsazio-ekintza guztiak gauzatu behar dira, Hizkuntza Murgilketako Programak antolatuta, Sailaren irizpideen eta balorazioaren arabera.

Ikasleen matrikula ECUan³, CDan⁴ eta CBUean⁵, Nafarroako ikastetxe publikoetan.

23. Iaukia - Matrikula ECUn, Dibertsifikazioan eta CBUn, ikastetxe publikoetan, 2007/2008 ikasturtean								
Herria	Ikastetxea	Mod.	ECU		Dibertsifikazioa		CBU	
			AI	Tald.	AI	Tald.	Ikas.	Tald.
Alsasua	San Miguel de Aralar I BHI	D	7	1	13	2	3	1
Azagra	Azagra DBHI	G			17	2	3	1
Barañain	Barañain BHI	G			12	1	3	1
Barañain	Alaiz BHI	D			6	1	3	1
Bera	Toki-Ona BHI	D			8	1	6	1
Berriozar	Berriozar DBHI	G			20	2		
Burlata	Ibaialde BHI	G			11	1	4	1
Zarakastelu	Carcastillo DBHI	G			10	1		
Cintruénigo	La Paz DBHI	G			11	1	2	1
Corella	Alhama DBHI	G			13	2	5	1
Cortes	Cerro de la Cruz DBHI	G			7	1		
Doneztebe	Mendaur DBHI	D			5	1	3	1
Lizarra	Tierra Estella BHI	G	12	1	18	2		
Uharte	Uharte BHI	G	8	1	12	2	4	1
Leitza	Amazabal BHI	D			17	2	11	2
Lekaroz	Lekarotz BHI	D			7	1		
Lodosa	Pablo Sarasate BHI	G	8	1	21	2		
Irunberri	Sierra de Leyre BHI	G			10	1	2	1
Martzilla	Marqués de Villena BHI	G	10	1	24	2		
Mendabia	Joaquín Romera DBHI	G			7	1		
Noain	Elortzibar DBHI	G			13	1		
Iruñea	Eunate BHI	D			16	2		
Iruñea	Iturrama BHI	D			8	1	3	1
Iruñea	Basoko BHI	G			5	1		
Iruñea	Biurdana BHI	D			6	1	5	1

³ Egokituriko Curriculumeko Unitateak.

⁴ Curriculum Dibertsifikazioa.

⁵ Curriculum Bereziko Unitatea.

ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK

Iruñea	Julio Caro Baroja BHI	G			19	2				
Iruñea	Navarro Villoslada BHI	G			23	2	5	1		
Iruñea	Moret-Irubide BHI BHI	G			11	1	7	1		
Iruñea	Plaza de la Cruz BHI	G			20	2	8	2		
Azkoien	Ribera del Arga BHI	G			22	2	2	1		
San Adrián	Ega BHI	G	9	1	20	2	6	1		
Zangoza	Sangüesa BHI	G			8	1	3	1		
Tafalla	Sancho III el Mayor BHI	G			13	1	5	1		
Tutera	Benjamín de Tudela BHI	G			24	2	11	2		
Tutera	Valle del Ebro BHI	G			20	2	10	2		
Viana	Del Camino DBHI	G			5	1				
Zizur Nagusia	Zizur BHI	G			23	2	8	1		
Guztira					54	6	505	55	126	28

Iturriak: datuak NHBBZtik eta Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzutik lortu ditu CBUK.

24. laukia - Matrikula ECUn, Dibertsifikazioan eta CBUn, itunpeko ikastetxeetan, 2007/2008 ikasturtean								
Herria	Ikastetxea	Mod.	ECU		Dibertsifikazioa		CBU	
			Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.	Ikas.	Tald.
Burlata	Amor de Dios-Regina Pacis	G					4	1
Lizarra	Mater dei-Puy-Anderaz	G	7	1	24	2	3	1
Mutiloabeiti	Luis Amigó	G	6	1				
Iruñea	Calasanz	G			11	1		
Iruñea	Hijas de Jesús	G	9	1	21	2	7	1
Iruñea	La Compasión-Escolapioak	G			12	1	6	1
Iruñea	Santa Catalina-Santisimo Sacramento	G			25	2		
Iruñea	Salestarrak	G	10	1			6	1
Iruñea	Santo Tomás (Domingotarrak)	G					7	1
Iruñea	San Ignacio (Jesuitak)	G					6	1
Iruñea	Santa Catalina	G					6	1
Tutera	San Francisco Javier	G					2	1
Guztira			32	4	93	8	47	9

Iturriak: datuak NHBBZtik eta Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzutik lortu ditu CBUK.

25. laukia - Ikasleen matrikula ECU, irabazi asmorik gabeko erakundeetan, 2007/2008 ikasturtean				
Herria	Ikastetxea	Mod.	ECU	
			Ikasleak	Taldeak
Berriozar	Lantxotegi	G	8	1
Cascante	La Ribera IP	G	14	2
Ilundain	Haritz Berri	G	17	3
Iruñea	Etxabakoitz	G	18	2
Gares	Puente ikastetxea	G	14	2
Tutera	El Castillo	G	8	1
Guztira			79	11

Iturria: Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzua.

26. laukia - CBUko unitateen eta ikasleen bilakaera, 2002/2003tik 2007/2008ra bitarteko ikasturteetan						
	CBUko unitate kop.		Ikasle kop.		CBUko unitate guztiak	CBUko ikasle guztiak
	Publik.	Itunpekoa	Publik.	Itunpekoa		
2003/04	13	7	51	37	20	88
2004/05	14	9	61	47	23	107
2005/06	22	9	93	49	31	142
2006/07	25	9	109	44	34	153
2007/08	28	9	125	41	37	173

Iturria: Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzua.

27. laukia - ECUko eta Dibertsifikazioko matrikularen bilakaera, ikastetxeen titulartasunaren arabera, 2003/2004tik 2007/2008ra bitarteko ikasturteetan										
	2003/2004		2004/2005		2005/2006		2006/2007		2007/2008	
	Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.	Ikasl.	Tald.
Ikastetxe publikoak	289	30	268	28	275	28	397	40	559	61
Itunpeko ikastetxeak	225	23	1904	205	191	21	182	19	125	12
Guztira	514	53	458	48	466	49	579	59	684	73

Iturria: Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzua.

4.2.2. Ikasle atzerritarrentzako laguntza.

Gure hezkuntza-sisteman sartzeko prozesua.

1. Ikasle immigranteentzako informazio-gida.

Gidak hezkuntza-sistema eta horren ezaugarriak deskribatu, ikastetxeen antolamenduko alderdi batzuk azaldu, ikasleen eskubideak zein betebeharrak adierazi eta ikasleentzat edota horien familientzat interesgarriak diren beste datu batzuk eskaintzen ditu.

Agiri honen helburua Nafarroara eskolatzeko adinean dauden seme-alabekin heltzen diren familiei laguntzea da, Foru Erkidegoak eskaintzen dizkien aukera guztiak ezagutzeko eta, horrela, erabaki egokia hartu ahal izateko.

Zenbait hizkuntzatan editatuta (euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, errusiera, bulgariera, arabiera), familiei ikastetxeetan eta Eskolatzeko Toki Batzordeetan eskaintzen zaien lehenengo laguntza azaltzen du.

2006/07 ikasturtean gaurkotu egin zen ikasle immigranteen harrerarako gida; hori Hezkuntza Saileko web orrian jarrita dago ikastetxeek, Toki Batzordeek eta kontsultaren bat egin behar duten guztiek erabili ahal izateko.

2. Eskolatzeko Toki Batzordeak.

Atzerritarrak iristeak aldaketa nabaria ekarri du Nafarroako gizartera, herrietara nahiz hirietara eta ikastetxeetara. Testuinguru horretan, garrantzi handikoa da dibertsitateko bizikidetzarako balioen hezkuntza sustatzea, gizarte anitzean, errespetuzkoan eta tolerantean.

Hezkuntza Sailak, ikastetxeetan aniztasun horren presentzia sustatzeko eta ikasgeletan ikasle guztiak hartzeko (kudeaketa eta aprobetxamendu egokiarekin), Eskolatzeko Toki Batzorde izeneko "harrera-puntuak" sortzea erabaki du.

Toki Batzordeak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saileko Eskolatzeko Batzorde Nagusiaren mende daude.

Toki Batzordeen helburuak

- Nafarroako ikastetxeetako hizkuntza-sistemari eta eskolatzeko-prozesuari buruzko informazioa ematea.
- Eskolatzeko-proposamena handitzea, kasuan kasuko lekuko familien eskariak eta ikastetxeen aukerak kontuan hartuta.
- Gurasoek ikastetxea aukeratzeko eskubidea babestea.
- Ikasleen banaketa orekatua sustatzea, ikastetxe guztien artean.
- Familientzat proposamen orientagarria eta ikastetxeentzat manuzko proposamena eskaintzea.
- Ikasleen eskolatzearen jarraipena egitea.

Hezkuntza Sailak 2007/08rako ikastetxeetan hutsik dauden postuak eskaini zizkien Eskolatzeko Toki Batzordeei. Neurri hori lagungarria izan da matrikulazio-aldi arruntetik kanpo iritsi diren ikasleak eskolatu ahal izateko. Kasu batzuetan, eskolatzeko hori Eskolatzeko Toki Batzordeak bildu barik egin zen.

Batzordeen funtzionamenduaren balorazioa.

Egindako bilera guztietan, kide guztien inplikazio handia egon da. Oro har, kiderik gehienak joan dira Batzordeak antolatu eta egin dituen bileretara.

Azterapen akademikoarekin iritsitako ikasle immigranteen kopuru handiaren eraginezko zailtasunak sortu dira, eta horrek zaildu egiten du euren adinaren araberrako maila akademikoaren esleipena.

Batzordeari diru-esleipena egin beharko litzaioke, udalen batek egindako eskabidetik ondorioztatzen denez.

Koordinazioa, antolamendua eta funtzionamendua Udalaren esku daude, eta ikastetxeetako ordezkariak euren lana utzi behar dute Batzordearen lanei kasu egin ahal izateko.

Batzordeko kideen funtzioetan errotazioa egon beharko litzatekeela uste dugu.

Ikastetxe batzuetan ikasturte batzuetan ez dago plazarik hutsik, eta horrek zaildu egiten du ikasleen banaketa orekatua eta bidezkoa.

Eskola-garraioan zailtasunak daude, ibilbide batzuetan plazarik ez dagoelako, eta horrek eragina dauka sasoikako langileen seme-alabengan.

3. Ikasle immigranteen harrera-programa

Ikastetxeek ikasle immigranteak iritsi baino lehen egokitu eta sistematizatu behar dute euren hezkuntza-erantzuna.

Ikasle immigranteen zailtasunen artean, aipatzekoak dira:

- Ama-hizkuntza ez den beste hizkuntza bat ikastea eta egunero bizitzan eta irakaskuntza-prozesu osoan erabiltzea.
- Beste kultura-erreferentzia batzuk: eskolan eskaintzen dena eta etxekoa; bi horiek bizitzeko eta jarduteko bi ulermen desberdinen araberakoak izaten dira.
- Maila akademiko desberdinak. Ikasle batzuek ikasturte bateko edo batzuetako atzerapena dute curriculumean, euren adinari dagokionez.
- Auzora edo herrira egokitzeko zailtasunak, sozializazioa baldintzatzen dutenak: ikasleek, zenbaitetan, ez dute lagunik izaten, edo euren naziotasuneko haurrekin baino ez dute harremanik edukitzen.
- Gizarte-erreferentzia eta erreferentzia afektibo asko galtzea; horrek desoreka emozionala eragiten du.
- Kolokatasun ekonomikoaren, langabeziaren, etxebizitza-baldintzen eta halako beste faktore batzuen eragina.

Harrera Programaren helburu nagusia ikasle guztiak barneratzea da, ikastetxeko hezkuntza-lanean parte hartzen duten kide guztien partaidetzaren eta konpromisoaren bidez. Lehenengoz sartzen den ikasleari harrera ona eginez, bere garapenerako esparrua eskaintzen zaio (garapen pertsonala eta kultura nahiz gizarte mailakoa), ikastetxeek eskainitako balioak trukaturata eta sustatuta.

Ikastetxe bakoitzaren Harrera Programa egiteko gidoitzat eta laguntzat erabiltzeko, 2007-2008 ikasturtean "Ikasle Immigranteentzako Harrera Programa" (IIHP) garatu da; horren helburua irakasleak orientatzea da, programa lantzeko edo gaurkotzeko orduan, baita inplikaziorik zuzenena duten arduradunak eta pertsonak zehaztea ere, kasuan kasuko helburuak zehaztu ondoren.

Proposamen hori Dibertsitatearen Laguntza Planean sartu behar da nahitaez.

Programak honako alderdi hauek garatzen ditu:

- Hezkuntza Komunitatearen sentsibilizazioa, kultura arteko hezkuntzan.
- Familiari ikastetxean harrera egiteko orientazioak.
- Hasierako ebaluaziorako eta taldearekiko atxikipenerako orientazioak.
- Ikaslearen harrera ikasgelan.
- Curriculumean sartzea.
- Antolamendua eta funtzionamendua.

- Kultura arteko eskumenen garapena.
- Estrategia metodologikoak.
- Harrera Programaren autoebaluazioa.

Harrera Programa web orrialdean jarrita dago, ikastetxeek erabili ahal izateko, eta ikastetxeok aldatu egin ahal dute, programa hori lantzeko edo ikuskatzeko ardura duen irakasle taldeak erabakita.

4. Hasierako ebaluazioa Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Hizkuntza eta Matematikako Ebaluazio Protokoloak.

Ebaluazioa prozesu jarraitua da; egoeraren diagnostikoarekin hasten da, **hasierako ebaluazioarekin**; lankidetzako behaketarekin eta hausnarketarekin hobetzen da, **ebaluazio jarraituarekin**, eta **azken ebaluazioarekin** amaitzen da; horren ondorioek hezkuntza-prozesu osoaren atzera elikadurako eta hobekuntzako prozesuari berriro heltzeko aukera ematen dute.

Helburua irakaskuntza-prozesua ikasleen hezkuntzaren ezaugarrietara nahiz beharrianetara egokitzen dela egiaztatzea da, baita irakaskuntza-jardueran bidezko hobekuntza guztiak egitea ere, izaera jarraituarekin eta hezitzailearekin.

Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzuak **Hasierako Ebaluazioko Protokoloak** eskaintzen ditu, ikastetxeei ikasleen (Lehen Hezkuntzan eta DBHn hasten diren ikasleak) gaitasunak nahiz ezagupenak ebaluatzeko tresna eskaintzeko, eta, horrela, hezkuntza-prozesua bermeekin garatzeko, banakako egokitzapenak aurreikusteko eta eskola-atzerapenak konpontzeko.

Agiriak hasierako ebaluazioko 16 koaderno dira, Matematikako eta Hizkuntzako curriculum-arloetarako, Lehen Hezkuntzako 2., 3., 4., 5. nahiz 6. mailetan eta DBHko 1., 2. zein 3. mailetan. Argitalpen horren helburua irakasleei ikastetxe, ikasgela, talde eta ikasle bakoitzari egokitzeko moduko proba-eredua eskaintzea da.

Koaderno bakoitzean hauxe dago jasota: proben helburuak, edukiak, eduki-blokeak, aplikazioko jarraibideak eta ebaluazio egokirako irizpideak, hizkuntzako eta matematikako curriculum-arloei dagokienez; halaber, curriculum-gaitasunen adierazleen laukia, taldearen erregistroa eta hasierako ebaluazioaren eskala bat ere bai.

Ikasturte honetan, hasierako ebaluazioko protokoloetan proposaturiko adierazleak lantzen jarraitu dugu. Gainera, Matematikako Hasierako Ebaluazioko Protokoloak euskarara itzuli dira, eta horiek guztiak (euskaraz eta gaztelaniaz) Kultura Aniztasunaren web orrian ikus daitezke.

5. Lehen Hezkuntzako ikastetxeei laguntza emateko programa berezia, ikasle atzerritarren eta egoera soziokultural txarreko ikasleen hezkuntzan laguntzeko.

Ikasle atzerritarrei eta egoera soziokultural txarreko ikasleei laguntzeko neurriek osatu egiten dituzte dibertsitatearen laguntzarako ohiko neurriak; neurriok halako ikasleen beharrian berezi aniztetatik sortu dira.

Hezkuntza-baliabide hau Hezkuntzako sailburuaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduan jasota dago; agindu horren bidez, Nafarroako Foru Erkidegoko Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen dibertsitatearen laguntza arautu da.

Hezkuntza Sailak irakasleak eman dizkie Haur eta Lehen Hezkuntzako zenbait ikastetxeri, ikastetxeok ikasle atzerritarren eta egoera soziokultural txarreko ikasleen kopuru handia baitute; ikasleok laguntza emango diete irakasle arruntei, curriculum-desfase handia duten eta gaztelaniaz ez dakiten ikasleei eskaini beharreko arretan.

28. laukia - Lehen Hezkuntzako ikastetxeei laguntzeko irakasleak, 2007/2008 ikasturtea						
Zonak	Ikastetxe publikoak			Itunpeko ikastetxeak (1)		
	Herriak	Ikastetxeak	Irakasleak	Herriak	Ikastetxeak	Irakasleak
Iruñea	10	24	36	2	2	2
Elizondo	1	1	1			
Lizarra	7	7	9			
Irurtzun	2	2	2			
Zangoza	2	2	2			
Tafalla	9	9	16,5			
Tutera	10	13	19			
Guztira	41	58	85,5			

Iturria: Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzua.

(1) 2007/2008 ikasturtean, itunpeko ikastetxeek astero laguntzako 162 ordu izan zituzten, Haur eta Lehen Hezkuntzako etaparako, egoera soziokultural txarreko eta berandu sartutako ikasleei zuzenduta; horiek ondoren adierazitako herrietan eta zonetan banatu dira:

Laguntzako orduak Lehen Hezkuntzan			
Zonak	Itunpeko zentroak (1)		
	Herriak	Ikastetxeak	Orduak
Iruñea	4	19	105
Elizondo	1	1	2
Lizarra	2	3	12
Irurtzun	2	3	13
Zangoza	0	0	0
Tafalla	1	1	16
Tutera	1	3	14
Guztira	11	30	162

Programaren ebaluazioa

Ikasleak

Lagundutako ikasle kopuru osoa 1.538koa da, eta ikasle/irakaslearen batez besteko ratioa 18,07 izan da.

Irakasleek Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako ikasleei ematen diete laguntza. Ikasturte honetan, programa 85 irakaslek garatu dute, 58 ikastetxetan eta 41 herritan.

Irakasleak

Irakasleek ikasle immigrantei eta egoera soziokultural txarreko ikasleei laguntzen diete, hasierako ebaluazioaren ostean beharrezkotzat jotzen diren dibertsitatearen laguntzarako neurrien bidez;

ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK

gainera, asteroko koordinazioa dute, Hezkuntza Laguntzako Unitatearen esparruan, tutoreekin, orientatzailearekin eta zuzendaritza taldearekin.

Balorazioa

Lan handia eta garrantzitsua egin da; hala eta guztiz ere, kalitatea hobetu egin daiteke, baldin eta laguntza ikasgela barruan eta, lehentasunez, adinik txikienetan gauzatu ahal bada.

Hobekuntza-arloak

Harreman estuagoa izan behar da programa garatzen duten ikastetxe guztiekin, eta, batez ere, programa lehenengoz garatzen duten ikastetxeekin, irakasleek garaturiko lanaren jarraipen handiagoa egiteko.

Irakasle horien esku-hartze irizpideak argitaratu behar dira.

Programarako baliabideak ikuskatu, egokitu eta zabaldu egin behar dira, bidezkoa izanez gero.

6. Espainolaren irakaskuntza bigarren hizkuntzatzat (EL2), Lehen Hezkuntzan

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe ia guztietan, gaztelania laguntzako irakasleek irakasten dute, bigarren hizkuntzatzat.

Irakasle horien heziketari garrantzi handia eman behar zaio, bai curriculum-alderdien irakaskuntzari eta bai hizkuntzaren jarraipenari dagokienez. Halaber, erakundeekin, GKEekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzat garatu behar da, ikasle batzuen absentismoari soluzioa emateko eta eskola-laguntzako programan lan egiteko.

Ikastetxerik gehienetan, laguntzako irakasleek curriculum-desfasea duten ikasleei laguntzen diete, Hizkuntzako eta Matematikako arloetan, eta, horrela, tutorearen lana osatzen dute.

Curriculum-desfase horietarako laguntza, talde ia guztietan, ikasgelatik kanpo ematen da. Beharrezkoa da ikasle horien laguntza ikasgela barruan sustatzea, HLOk ezarritako integrazio-helburuak landu ahal izateko.

7. Eskola-laguntzako eta indartzeko nahiz laguntzeko programak, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan

Lehen Hezkuntza:

29. laukia - Eskola-laguntzako programa, Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, 2007/2008 ikasturtean				
Herria	HZMren hitzarmeneko ikastetxeak	CANen hitzarmeneko ikastetxeak	Ikasle kopurua	Taldeak
Arguedas		Sancho Ramírez IP	11	1
Azagra	Francisco Arbeloa IP		13	1
Barañain	Los Sauces IP		20	2
Berriozar		Mendialdea IP	13	1
Burlata		Hilarión Eslava IP	16	1
Caparroso		Virgen del Soto IP	19	2
Carcar		Virgen de Gracia IP	10	1
Cascante	Santa Vicenta María IP		11	1
Cintruénigo		Otero de Navascues IP	24	2
Corella		José Luis Arrese IP	10	1
Lizarra		Remontival IP	23	2

Fitero		Juan de Palafox IP	12	1
Funes		Elías Teres IP	12	1
Lodosa		Angel Martínez Baigorri IP	15	1
Milagro		Ntra. Sra. del Patrocinio IP	13	1
Iruñea		Ave María IP	10	1
Iruñea		Cardenal Ilundain IP	12	1
Iruñea	Ermitagaña IP		12	1
Iruñea		García Galdeano IP	13	1
Iruñea		Jose M ^a Huarte IP	12	1
Iruñea		Nicasio de Landa IP	13	1
Iruñea	San Francisco IP		15	1
Iruñea	San Jorge IP		49	4
Iruñea		Vázquez de Mella IP	12	1
Iruñea		Víctor Pradera IP	26	2
Azkoien	Juan Bautista Irurzun IP		12	1
Ribaforada	San Bartolomé IP		12	1
San Adrián	Alfonso X el Sabio IP		10	1
Tafalla		Marqués de la Real Defensa IP	10	1
Tutera	Elvira España IP		18	2
Tutera		Griseras IP	10	1
Tutera	Virgen de la Cabeza IP		12	1
Valtierra		Félix Zapatero IP	15	2
Alesbes	El Castellar IP		13	1
Atarrabia	Lorenzo Goikoa IP		11	1
Guztira	13	22	519	45

Iturria: Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzua.

Bigarren Hezkuntza

30. laukia - Eskola-laguntzako programa Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, 2007/2008 ikasturtea				
Herria	HZMren hitzarmeneko ikastetxeak	CANen hitzarmeneko ikastetxeak	Ikasle kopurua	Taldeak
Berriozar	Berriozar DBHI		31	2
Burlata	Ibaialde BHI		32	2
Lizarra	Tierra Estella BHI		13	2
Iruñea	Padre Moret-Irubide BHI		12	2
Tafalla	Sancho III el Mayor BHI		11	2
Guztira	5 ikastetxe		99	10

Iturria: Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzua.

ZERBITZU ESPEZIFIKOAK ETA BESTE PROGRAMA BATZUK

31. laukia - IES - PROA BHI - IOLPei Indarketa eta Orientazioa emateko Programa, 2007/2008			
Helburua	Herria	Ikastetxeak	Irakasleak
Curriculum-desfaseak dituzten ikasle baztertuen eta immigranteen laguntza.	Azagra	Azagra DBHI	1
	Barañain	Barañain BHI	1
	Iruñea	Julio Caro Baroja BHI	2
	Iruñea	Padre Moret BHI	1
	Azkoien	Ribera del Arga BHI	1
	San Adrián	Ega BHI	1
	Tutera	Valle del Ebro BHI	1
	6 herri	7 ikastetxe	8

Iturria: Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzua.

Programen ebaluazioa

Irakasleek, ikasleek eta familiek programen balorazio oso positiboa egin dute, oro har. Ondoren, lorpenetariko batzuk adieraziko ditugu, honako honi dagokionez:

Ikastetxea: handitu egin da Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora sustaturiko ikasle kopurua. Programak garatzen dituzten BHiek hobetu egin dituzte ikasleen emaitza orokorrak. Ikastetxeen giro orokorrak hobera egin du.

Ikasleak: hobetu egin dira euren emaitza akademikoak, batez ere tresnazko arloetan. Autoestimua hobetu egin da, baita ikasgelaren edota taldearen barruko integrazioa ere. Hobetu egin da ikasteko tekniken eta kontsultako materialen erabilera.

Familiak: oro har, harreman urriak zituzten ikastetxearekin, eta harremanok hobetu egin dira kasurik gehienetan.

8. DBHn eskolaturiko ikasle atzerritarrei komunikazioko hizkuntza irakasteko hizkuntza-murgilketako programa

32. laukia - Hizkuntza Murgilketako Programak, 2007/2008 ikasturtea			
Zona	Hizkuntza-murgilketako programak dituzten ikastetxeak	Irakasle kopurua	Ikasle kopurua
Sare publikoan			
Iruñea eta Iruñerria	Burlata: Ibaialde BHI Uharte: Uharte BHI (aula 14 urtetik gorakoen ikasgela) Iruñea: Basoko BHI Iruñea: Julio Caro Baroja BHI Iruñea: Padre Moret-Irubide BHI Iruñea: Plaza de la Cruz BHI	6	72
Nafarroako gainerako lekuak	Zarakastelu: Carcastillo DBHI Lizarra: Tierra Estella BHI Martzilla: Marqués de Villena BHI	7	76

	Azkoien: Ribera del Arga BHI Tafalla: Sancho III el Mayor BHI Tutera: Benjamín de Tudela BHI Tutera: Valle del Ebro BHI		
Itunpeko sarean			
Iruñea eta Iruñerria	Iruñea: Hijas de Jesús IIP Iruñea: Salestarrak IIP	2	22
13 ikastetxe publiko eta itunpeko 2 ikastetxe		15	170

Iturria: Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzua.

- Programan lagundutako ikasle kopuru osoa: 170.
- Talde kopurua: 15
- Programa ezarri duen ikastetxe kopurua: 15 (13 institutu eta itunpeko 2 ikastetxe).

Programa zonako baliabidea da.

Ikasleak 21 ikastetxetan dauden eskolatuta:

- 16 BHI/DBHI publiko
- Itunpeko 5 ikastetxe

33. laukia - Hizkuntza Murgilketako programaren ebaluazioa, 2007/2008 ikasturtea.		
Ikasleak		
Inskribaturiko ikasle kopurua: 170		Ikasleak/taldeak ratioa
1. lauhilekoa: 145	127 ikastetxe publikoetan	1. lauhilekoa: 9,06
	18 itunpeko ikastetxeetan	
2. lauhilekoa: 100	75 ikaslek 1. lauhilekotik jarraitu dute	2. lauhilekoa: 6,25
	25 berriak dira	

Iturria: Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzua.

Balorazioak

Programaren emaitzak onak izan dira; hain zuzen ere, 170 ikasletik 126 GAI kalifikazioa lortu dute. Hau da, lagundutako ikasle guztien %74 hezkuntza-sisteman sartu dira 2007/08 ikasturtean. Emaitza horiek Programak aurreko ikasturtean lorturikoen antzekoak dira, baina iazkoak baino apur bat hobeak dira (2006/07 %66, 2005/06 %73 eta 2004/05 %72); 2003/04 ikasturtean ehunekoa %28 izan zen, ikasturte horretan ez baitzegoen programarik.

34. laukia - Ikasle atzerritarrei eta egoera soziokultural txarreko ikasleei laguntzeko ikastetxeetarako programen laburpena. Lehen Hezkuntza eta DBH.			
	Programa		2007/2008
L. Hezk.	ETIL	Egoera Txarreko Ikasleei Laguntzeko Ikastetxeak	58
	LPL	CANen Hitzarmeneko Laguntza Programa Lehen Hezkuntzarako	22
	MLPL	HKMren Hitzarmeneko Laguntza Programa Lehen Hezkuntzarako	13
B. Hez.	HMPA	Hizkuntza Murgilketako Programa Atzerritarrentzat	15
	LIPB	HKMren Laguntza eta Indartze Programa Bigarren Hezkuntzarako	7
	MLPB	HKMren Hitzarmeneko Laguntza Programa Bigarren Hezkuntzarako	5

Iturria: Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzua.

9. Portugaleko Kultura eta Hizkuntza Programa.

Portugaleko Kultura eta Hizkuntza programa honako ikastetxe hauetan ari da Nafarroan garatzen: "Ave María" nahiz "Patxi Larrainzar" ikastetxe publikoetan eta "Nuestra Señora de la Compasión" itunpeko ikastetxean (hirurak iruñekoak); eta Azagrako "Francisco Arbeloa" ikastetxe publikoan eta institutuan. Programak, ikasturte honetan, portugeseko irakaslea dauka.

Aipaturiko hitzarmenaren helburuak, besteak beste, honako bi hauek dira:

- Portugaleko ikasleen integrazioa sustatzea, hezkuntza-sisteman.
- Portugaleko kulturaren eta hizkuntzaren ezagupena nahiz errespetua sustatzea.

Ikastetxe hauetan, Programaren onuradunak ikasle guztiak dira; izan ere, irakasleok laguntza ematen diote tutoreari, ikasle portugaldarrei eta gainerako ikasleei zuzendutako lanetan.

4.2.3. Aldi baterako ikasleak

35. laukia - Aldi baterako ikasleak, 2007/2008 ikasturtea				
Udazkeneko kanpaina 2007 (mahats-biltzea)				
Herria	Ikasgelak	Ikasleak	Laguntzako irakasleak	
Mendabia	2	37	2	
2008ko udaberriko kanpaina (zainzuria)				
Herria	Ikastetxea	Ikasleak	Jatorria	Laguntzako irakasleak
Villatuerta	"San Veremundo" IP	14	Andaluzia	1
Allo	"La Cruz" IP	9	Andaluzia	0,5
Murieta	Murieta IP	8	Andaluzia	0,5

Iturria: Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzua.

Programaren helburua Nafarroako nekazaritza-kanpainetara (mahatsa eta zainzuria) datozen sasoikako langile-familietako seme-alaben hezkuntza-beharrizanetan laguntzea da.

Balorazioa

Ikasle anitza denez (batzuk curriculum-desfase handikoak), ikastetxe batzuetan irakasleak inplementatu behar dira. Horrela, Mendabiako mahats-biltzeko kanpainarako bi irakasle esleitu ziren; eta, zainzuriaren kanpainarako, irakasle bat Villatuertarako eta beste bat Alloko nahiz Murietako ikastetxeetarako.

Hobekuntza-eremuak

Udalekin harremanetan jartzea, ikasleak ikastetxeetara joateko. Horretarako, koordinazio handiagoa behar da Gizarte Zerbitzuekin.

Ikasleen jatorrizko ikastetxeekin harremanak izatea, horien hezkuntza-prozesua ezagutzeko; halaber, kanpaina amaitu ondoren itzultzen direnean, informazioa eman behar zaie.

4.2.4. Ospitalean sarturiko ikasleak. 2007/2008 ikasturtea

36. laukia - Ospitalean sarturiko ikasleak, 2007/2008 ikasturtean				
	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH	Guztira
Ospitaleko laguntzak	188	289	69	546

Iturria: Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzua.

4.2.5. Egoera txarreko ikasleak dituzten ikastetxe publikoei eta itunpekoiei emandako diru-laguntzak.

37. laukia - Egoera txarreko ikasleen laguntzarako diru-laguntzak, 2007/2008 ikasturtean					
Aldia/Xedapena Ebazpena	Ikastetxe onuradunak		Ikastetxe onuradunak		Zenbatekoa guztira
	H. Hezkuntza + L. Hezkuntza	B. Hezk.	H. Hezkuntza + L. Hezkuntza	B. Hezk.	
17/2007 Ebazpena Ikastetxe publikoak	115	43	2602	1017	118.817
150/2007 Ebazpena Itunpeko ikastetxeak		44		1453	436.713
39/2008 Ebazpena Itunpeko ikastetxeak		14		49	17.150
159/2008 Ebazpena Itunpeko ikastetxeak		16		57	19.100
Laguntzak guztira	232 ikastetxe eta 5.178 ikasle onuradun				591.780

Iturria: Dibertsitate, Orientazio eta Kultura Aniztasuneko Zerbitzua.

4.2.6. Gizarte Bazterkeriaren aurkako Borrokarako Plana Nafarroan.

Hurrengo laukian 2001/2002tik honako emaitza akademikoak daude jasota, talde arrunteko 1., 2., 3. eta 4. maila dagozkienak. Laukian maila batetik hurrengora igaro diren ikasleen ehunekoa adierazten da, maila bakoitzean matrikulaturiko ikasle kopuru osoari dagokionez.

172. laukia - Ikasle guztien bilakaeraren ehunekoa, DBHko mailak igarotzeari/titulazioari dagokionez (2001/2002tik 2006/2007rako ikasturteak)⁴⁴

	1999/2000	2000/2001	2001/2002	2002/2003	2003/2004 ⁴⁵	2004/2005	2005/2006	2006/2007
DBH 1	d.e.	d.e.	d.e.	d.e.	88,3	89,4	87,9	89,8
DBH 2	88	88	89	87,5	84,8	90,8	87,8	87,2
DBH 3	83	82	84	83,8	81,2	80,7	76,9	84,4
DBH 4	85	83	85	84,3	85,0	85,7	86,5	88,5

DBHko maila-igarotzearen / titulazioaren bilakaera



DBHko ikasleek 1999/2000tik hona izandako bilakaeraren datuak aintzat hartuta ikusten denez, maila batetik bestera igarotzen duten eta titulazioa lortzen duten ikasleen ehunekoa nahiko antzekoa da aldi horretan, DBHko 3. mailako igarotzearen kasuan izan ezik, horrek serieko ehunekorik baxuena baitauka beti (kasu batzuetan, beste mailetan baino ehuneko 10 puntu baxuagoa). Serie osoko emaitzarik txarrenak 2005/2006 ikasturteko hirugarren mailan daude.

Ikusten denez, azken hiru urteetan DBHko igarotze-ehunekoak goranzko joera izan du. 2006/2007ko titulazioaren ehunekoa (%88,5) azken zortzi urteetan lorturiko emaitzarik onena da, baina oraindik ere Lehen Hezkuntzako baino txikiagoa da (%95 inguru).


⁴⁴ 2001/2002 ikasturteko eta hurrengo ikasturteetako ehunekoa kalifikaturiko ikasle kopuru osoa aintzat hartuta kalkulatu da; horren barruan, aurreko ikasturteetan ez bezala, DBH honako honetan egin duten ikasleak sartu dira: Egokituriko Zikloko nahiz ECUko eta Curriculum Dibertsifikazioko ikasleak.

⁴⁵ Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 350/2004 Foru Aginduak (2005/1/10eko 4. zenbakiko NAO) konparazioa zaildu duten aldaketak sartu ditu. Bestalde, zenbakizko kalifikazioak aurreko ikasturteetan baino adierazgarriagoak dira, eta horien emaitzak honako kalifikazioekin adierazita daude: Gutxiegi, Nahiko, Ondo, Oso Ondo eta Bikain. Bestalde, irakasgai bakoitza ageri da, eta ez arloa.

173. Iaukia - DBHko talde arruntetako igarotze-baldintzen/titulazioaren bilakaera, 2002/2003tik 2006/2007rako ikasturteetan

	2002/2003				2003/2004				2004/2005				2005/2006				2006/2007			
	1.a	2.a	3.a	4.a	1.a	2.a	3.a	4.a	1.a	2.a	3.a	4.a	1.a	2.a	3.a	4.a	1.a	2.a	3.a	4.a
Igaro diren guztiak	e.d.	87,5	83,8	84,3	88,3	84,8	81,2	85	89,4	90,8	80,7	85,7	89,9	87,8	83	86,5	89,8	87,2	84,4	88,5
Irakas. guzt. gaindituta	e.d.	54,1	46,3	47	73	62	55,7	66,1	68,2	65,4	54,6	63,6	67,9	64,9	56,7	63,8	70,8	66,6	60,3	68,3
Kalifikazio negatiboekin	e.d.	33,4	37,5	37,3	15,3	22,8	25,5	18,9	21,2	25,4	26,1	22,1	22	22,9	26,3	22,7	19	20,6	24,1	20,2
Igaro ez direnak	e.d.	12,5	16,2	15,7	11,7	15,2	18,8	15	10,6	9,2	19,3	14,3	12,1	12,2	17	13,5	10,2	12,8	15,6	11,5

Igarotze-baldintzen/titulazioaren bilakaera DBHko 4. mailako talde arruntetan



Ikasturte guztietan igarotzen diren ikasleen ehunekoak nahiko antzekoak izan arren (4. mailan %88,5; 3. mailan %84,4; 2. mailan %87,2; 1. mailan %89,8), desberdintasunak ikusten dira ikasle horiek igarotzeko baldintzetan:

1., 2., 3. eta 4. mailatan kalifikaturiko ikasle guztietatik, irakasgai guztiak gaindituta igaro direnen ehunekoa murriztu egin da, apurka-apurka, hirugarren mailara arte; halaber, 4. mailan ehuneko 8,5 puntuko gorakada handia izan du.

1., 2., 3. eta 4. mailatan kalifikaturiko ikasle guztietatik, kalifikazio negatiboko irakasgaiekin igaro direnen ehunekoak gora egin du, apurka-apurka, lehenengo hiru ikasturteetan, eta 4. mailan behera egin du.

2000/2001 ikasturteari dagokionez, hobekuntza garrantzitsua eta adierazgarria egon da igarotze-baldintzetan, irakasgai guztiak gaindituta igarotzen diren ikasleen ehunekoaren ondorioz (4. mailan %68,3 2006/07 ikasturtean, eta 2000/01 ikasturtean %44). Era berean, gainditutako irakasgaiekin igaro direnen ehunekoak behera egin du.

Orokorrean, igaro diren ikasleen ehunekoa hobetu egin da; horrela, 2006/2007 ikasturteko ehunekoa (%88,7) serie osokorik onena da.

Dibertsitaterako laguntza jaso duten talde arruntetako ikasleak. Oharra: Informazio-iturria Teknika eta Zerbitzu Ikuskapenaren "Nafarroako emaitza akademikoen ikerketa. 2006-2007 ikasturtea" izan da; bertan esaten denez, edizio honetan ezin izan da dibertsitatearen laguntzari buruzko datu fidagarririk lortu, arazo informatikoak egon baitira. Erreferentea ez galtzeko, eta kontuan hartuta aurreko datuak ulertzeko lagungarriak diren datu osagarri garrantzitsuak direla, hemen jaso ditugu 2005/2006 ikasturteko ikerketako datuak eta iruzkinak.

Talde Arrunteko dibertsitatearen laguntzarako neurriak honako honi buruzkoak dira: Curriculum Egokitze Adierazgarria, Bilketa Espezifikoak eta Hezkuntza Indargarria.

Neurri hauetan lagundutako ikasleen ehunekoa, matrikulaturiko guztiei dagokienez, ondoren adierazitakoa da:

174. laukia - Talde arruntetako antolamendu-neurrietan lagundutako ikasleen ehunekoa, 2002/2003tik 2005/2006 ikasturteetara⁴⁶											
	2002/2003			2004/2005				2005/2006			
Ordena	2.a	3.a	4.a	1.a	2.a	3.a	4.a	1.a	2.a	3.a	4.a
Curr. Egok. Adieraz.	4,6	2,3	2,8	1,64	1,53	0,76	0,11	2,1	1,2	0,7	0,1
Curriculum Egokitz.	7,4	6,2	4,7	3,85	3,47	3,4	1,79	3,7	2,5	3,7	2,6
Hez. Ind. A-B taldeak	7,2	6,0	3,2	7,4	8,59	8,53	3,91	7,6	7,4	7,8	3,5
Guztira	19,2	14,5	10,7	12,89	13,59	12,69	5,81	13,4	11,1	12,2	6,2

2004/2005 ikasturteari dagokionez, curriculum-neurriak edo curriculum-egokitzapenak behar dituzten ikasleen ehunekoak beherakada nabaria izan du bigarren mailan, eta lehenengo mailan ere beherakadaxoa izan du; hirugarren mailan, berriz, gorakadaxoa izan du, eta laugarren mailan gorakada handia.

Hala ere, Bilk. Esp. (A-B taldeak) behar dituzten ikasleen ehunekoak beherakada handia izan du 2., 3. eta 4. mailetan, eta 1. mailan, berriz, gorakadaxoa izan du.

Egokituriko Curriculum Unitatea – Curriculum Dibertsifikazioa

175. laukia - ECUtik Curriculum Dibertsifikaziora igarotzen diren ikasleen eta Curriculum Dibertsifikazioko titulua lortu dutenen ehunekoa, 2006/2007. ikasturtea (ECUko edo Curriculum Dibertsifikazioko ikasle kopuru osoari dagokionez)						
	Igaro direnak	Igarotzeko baldintzak				Igaro ez
		0 Gutx.	Gutx. 1	2 Gutx.	>2 Gutx.	
ECU	80.93	60.17	5.08	3,39	12.29	19.07
CD	85.94	78.13	6.25	0	1.56	14.05

⁴⁶ Egok. Curr. Adieraz.= Egokitzapen Curricular Adierazgarria; Hez. Ind. A-B taldeak: Hezkuntza Indargarria. Aldi baterako bilketa espezifiko homogeneoak.

176. laukia -ECUko eta Curriculum Dibertsifikazioko kalifikazio positiboen ehunekoa. 2006/2007 ikasturtea										
	PRAK.		ZIEN./MAT.		H/G		SH		ERLIJIOA	
	ECU	CD	ECU	CD	ECU	CD	ECU	CD	ECU	CD
Gai ez	27.97	26.3	37.29	32.3	34.75	25.5	25.42	9.7	26.05	10.9
Gai	72.03	73.7	62.71	67.7	65.24	74.5	74.58	90.3	73.95	89.1

177. laukia - ECUko eta Curriculum Dibertsifikazioko igarotzearen/titulazioaren bilakaera, 2001/2002tik 2006/2007ra bitarteko ikasturteetan ⁴⁷						
Ikasturtea	2001/2002	2002/2003	2003/2004	2004/2005	2005/2006	2006/2007
ECU ⁴⁸	37	51	50	66,5	52,5	80.93
Curriculum Dibertsifikazioa	81	81,4	81,8	85,1	84,6	85.94

Aurreko tauletako datuak aztertuta, honako ondorio hauek ateratzen dira:

Ikasturte honetako igarotze-indizeak serieko onenak dira, bai ECUen eta bai CDn; hala ere, aipagarria da ECUen indizea: ikasturte honetara arte ez zen %70era heltzen, eta orain %81ekoa da.

Curriculum Dibertsifikazioko igarotze-indizea (%86) talde arruntetako DBHko indizetik hurbil dago.

7.9.1.3. Batxilergoa

Ekaineko deialdi arrunta + Iraileko deialdi berezia. 1. eta 2. mailetako emaitza akademiko konparatzaileak, ikastetxeen titulartasunaren eta ikasleen hizkuntza-ereduaren arabera (2005-2006 ikasturtea).

178. laukia - Batxilergoko 1. mailan igaro diren eta 2. mailan titulazioa lortu duten ikasleen konparazio-datuak (2006/2007 ikasturtea)					
	I. publikoak	I. pribatuak	I. publikoak	I. publikoak	Guztira
	G+A eredu	G+A eredu	B+D eredu	B+D eredu	
1.a	81,88	89,12	80,32	95,06	84,35
2.a	76,67	84,94	76,71	93,48	79,70

⁴⁷ Ikasle hauek honelaxe igaro dira: ECUko ikasleak Curriculum Dibertsitateko igaro dira. Curriculum Dibertsitateko ikasleak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulura igaro dira.

⁴⁸ ECU= Egokituriko Curriculumeko Unitatea; Curr. Diberts.= Curriculum Dibertsitatea.

179. laukia - Batxilergoan igarotzeko/titulaziorako baldintzak, ikastetxearen titulartasunaren eta hizkuntza-ereduaren arabera, 2006/2007 ikasturtean								
Titulartasuna/Eredua	Batxilergoko 1.a				Batxilergoko 2.a			
	Igaro direnak			Igar. ez	Titulua lortu	Titulua ez		
	0 gutx.	Gutx. 1	2 gutx.	>2 gutx.	0 gutx.	Gutx. 1	2 gutx.	>2 gutx.
G+A Ered. I. publikoak	52.88	16.42	12.58	18.12	76.67	2.93	5.10	15.31
B+D Ered. I. publikoak	57.92	14.08	8.32	19.68	76.71	1.37	5.63	16.29
G+A Ered. I. pribatuak	67.35	12.00	9.77	10.88	84.94	1.03	1.77	11.96
B+D Ered. I. pribatuak	77.78	8.64	8.64	4.94	93.48	0	1.22	5.30

Ikasleentzat irakasgairik zailenak hurrengo laukian adierazitakoak dira (irakasgai komunak, eredu guztietakoak eta aukerakoak).


180. laukia -Batxilergoko ikasleentzat zailenak eta errazenak diren irakasgaiak				
Ordena/Maila	Zailenak		Errazenak	
	1. maila	2. maila	1. maila	2. maila
Lehenengo	Mat. GZ	Filosof. Hist.	Erlj.	2. hizk. ingelesa
Bigarren	M. Art.	Mekanika	2. hizk. ingelesa	2. hizk. alemana
Hirugarren	Ingelesa	Elektroteknia	2. hizk. alemana	2. hiz. frants.
Laugarren	M. Gar. Hist.	Plastika	S. Hezk.	Lit. Esp. eta Unib.
Bosgarren	Mat.	Elektronika	2. hiz. frants.	Frantsesa

181. laukia - Batxilergoko ikasleen igarotzearen/ez igarotzearen/titulazioaren bilakaera, 1999/2000tik 2006/2007rako ikasturteak													
Maila	Suspentso kop.	1999/2000		2002/2003		2003/2004		2004/2005		2005/2006		2006/2007	
1.a	Dena gaituta	80	55	85	61	85	60	86	61	85	60	84	59
	Suspentso 1		14		13		14		14		14		14
	2 suspentso		11		11		11		11		11		11
	> 2 sus. (igar. ez)		20		15		15		14		15		16
2.a	Dena gaituta	73	73	80	80	79	79	80	80	79	79	80	80
	susp. 1 (tit. ez)		1		2		2		2		2		2
	2 sus. (tit. ez)		4		5		4		4		4		4
	> 2 sus. (tit. ez)		22		13		15		14		15		14

Nafarroako emaitza akademiko orokorren bilakaera Batxilergoko 1. eta 2. mailetan. Deialdi arrunta eta berezia.

182. laukia - Batxilergoko 1. eta 2. mailetan igarotzea/titulazioa lortu duten ikasleen ehunekoaren bilakaera, 1999/2000tik 2006/2007rako ikasturteetan ⁴⁹							
	1999/2000	2001/2002	2002/2003	2003/2004	2004/2005	2005/2006	2006/2007
Batzilergoko 1.a	80	86	85	85	86	85	84
Batzilergoko 2.a	73	77	80	78	80	79	80

Batzilergoko sustapenaren/titulazioaren bilakaera



Datu horietatik haxe nabarmendu ahal da:

Batzilergoko 1.a

Igarotzearen ehunekorik altuenak eta horren baldintzarik onenak B+D ereduko ikastetxe pribatuetan egon dira (%95,06 inguruko igarotzea, eta, horietatik, irakasgai guztiak gaindituta). Gero, G+A ereduko ikastetxe pribatuak datoz (%89,12ko arrakasta); ondoren, G+A ereduko ikastetxe publikoak, eta, azkenik, B+D ereduko ikastetxe pribatuak.

Aurreko urteari dagokionez, aipagarriak dira B eta D ereduko ikastetxe publikoetan izandako emaitza txarragoak.

Batzilergoko 2.a

Titulazioa lortu duten ikasleen ehunekorik handienak honako hauek dira, ordenan adierazita: B+D ereduko ikastetxe pribatuak, G+A ereduko ikastetxe pribatuak, B+D ereduko ikastetxe publikoak eta G+A ereduko ikastetxe publikoak. Ikasturtea gainditu gabeko irakasgai 1ekin, 2rekin edo gehiagorekin amaitu duten ikasleen ehunekoan ere ordena bera mantendu da.

⁴⁹ Ez dago 2000/2001 ikasturteko daturik.

Aurreko ikasturteari dagokionez, hobekuntza txiki bat egon da G+A ereduiko ikastetxe publikoetan titulua lortu dutenen ehunekoan, eta B eta D ereduiko ikastetxe pribatuetan titulua lortu dutenen ehunekoak, berriz, txarrera egin du apur bat; bi aldaketak ehuneko 3 puntukoak dira.

Titulua lortu duten Batxilergoko bigarren mailako ikasle kopuruaren bilakaera orokorrean hazkunde oso positiboa lortu da sareko lehenengo hiru urteetan (7 puntu). Hala ere, hurrengo urteetan ehunekoa egonkortu egin da.

7.9.1.4. Lanbide Prestakuntza Berezia

Nafarroako emaitza akademiko orokorrak, Lanbide Prestakuntza Bereziko zikloetako ikasleei dagokienez, 2006/2007 ikasturtean. Deialdi arrunta + berezia.

183. laukia - Maila ertaineko eta goi mailako prestakuntza-zikloetako ikasleen emaitza akademikoak, iraupenaren arabera, 2006/2007 ikasturtean⁵⁰						
	1.a errep.	2.a errep.	2.era ig.	LZP ig.	1.a utz.	2.a utz.
Maila Ertaineko Prestakuntza Zikloak (iraupenaren arabera)						
<1700 h. arrunt	30,41			62,37	7,56	
2000 h. arrunt	12,97	14,09	66,34	66,23	11,59	2,23
Goi Mailako Prestakuntza Zikloak (iraupenaren arabera)						
<1700 h. arrunt	11,89			89,51	1,40	
2000 h. arrunt	11,01	10,22	79,45	67	7,25	2,09
Plastika Arteak eta Diseinua (Maila Ertaina eta Goi Maila)						
M. Ertaina <1000 h.	38,59			4,57	5,56	
M. Ertaina 2000 h.	14,29	22,22	57,14	44,44	0	0
Goi Maila 2 ikasturte	20,93	28,57	73,26	51,43	5,81	0

⁵⁰ Errep. = Errepikatu; Ig. = Igaro; LZP = Lan Zentroetako Prestakuntza. Utz. = Utzi

Titulazioa lortu duten heziketa-zikloetariko bakoitzaren ehunekoak, kopuru osoari dagokionez.

184. laukia -Titulazioaren/uzteen ehunekoa Heziketa Zikloetan, modalitate arruntean eta Plastika Arteetan nahiz Diseinuan, 2006/2007 ikasturtean⁵¹		
	Titulazioa	Uztea
ME arrunta <1700 h.	62,37	7,6
ME arrunta 2000	86,2	11,6
GM arrunta <1700	89,5	1,4
GM arrunta 2000	67	7,3
Plastika Arteen ME 2000	44,44	0
Plastika Arteen GM, 2 ikasturte	51,43	5,8

Hortik honako ondorio hauek ateratzen dira:

Maila Ertaineko eta Goi Mailako Plastika Arteetan eta Diseinuan heziketa-zikloak egiten ari diren ikasleek modalitate arrunteko heziketa-zikloetako ikasleek baino ehuneko apur bat baxuagoan lortzen dute titulua.

7.9.1.5. Lanbide Hastapeneko Programa (LHP)

185. laukia - Gaitasun-ziurtagiria lortzen duten ikasleen ehunekoa, LHPen eta horren iraupenaren arabera, 2006/2007 ikasturtean⁵²			
	Urt. 1eko iraup.	2 urt. iraup.	3 urteko iraupena
Ziurtagiria lortu	50,33	58,42	92,16
1. mailan utzi	26,16	17,48	5,56
2. mailan utzi	-	13,86	0
3. mailan utzi	-	-	0

Ziurtagirietan ehunekorik txikiak urtebeteko iraupeneko ikastaroetan lortzen dira. Gainerako modalitateetako ziurtagiri kopurua apur bat altuagoa da; hain zuzen ere, %58,42koak bi urteko ikastaroetarako, eta %92,16koak 3 urteko LHP berezikoak.

⁵¹ Ordu kopurua ziklo osoari buruzkoa da; hau da, 1.000 edo 1.700 ordutik eta 2.000 ordutik beherakoa. "Plast.Art./Dis" erreferentziak esan nahi du Plastika Arteetako eta Diseinuko Zikloa dela, eta ziklo arruntetik bereizten dela.

⁵² Urtebeteko iraupena duten ikastaroetan, bildu egin dira Egokituriko Lanbide Hastapeneko ikastaroak, Oinarrizko Lanbide Hastapeneko ikastaroak eta Lanbide Lantegiak. Bi urteko iraupeneko ikastaroetan, Oinarrizko Lanbide Hastapena eta Lanbide Lantegiak bildu dira. Hiru urteko iraupenekoetan, Lanbide Hastapen Berezikoak daude bilduta.

7.9.2. Hezkuntza-sistemaren emaitzak Estatuko testuinguruan.

Ondoren datozen datuek aukera ematen dute Nafarroa Espainiako testuinguruan kokatzeko, emaitzei buruzko faktore batzuk aintzat hartuz.

186. laukia - Egokitasun-tasak, 2005/2006 ikasturtean ⁵³				
	12 urte %	15 urte %	% tituluarekin	
			BHko graduata %	2. mailako Batxilergoa %
Guztira	84,2	57,7	72,3	72,4
Andaluzia	82,7	51,5	69,2	71,1
Aragoi	84,6	59,0	75,0	77,0
Asturias	84,5	62,4	85,4	74,3
Balearrak	76,1	51,3	68,6	66,3
Kanariak	76,4	50,8	67,3	64,9
Kantabria	84,3	57,2	77,9	69,0
Gaztela eta Leon	83,6	58,2	76,2	68,5
Gaztela-Mantxa	82,1	53,5	69,2	73,2
Katalunia	90,4	68,5	74,8	73,1
Valentziako Erkidegoa	86,6	55,7	65,8	76,5
Extremadura	83,3	51,7	68,3	68,8
Galizia	83,2	58,3	75,0	70,4
Madril	84,3	59,3	74,8	73,7
Murtzia	79,1	54,6	71,7	70,6
Nafarroa	85,4	66,6	82,9	79,0
EAE	87,9	71,1	83,4	79,4
Errioxa	88,5	58,9	72,4	75,1
Ceuta	72,5	43,0	49,2	62,1
Melilla	80,7	48,7	65,2	65,7

Iturria: HKM: Espainiako hezkuntzako zifrak. Estatistika eta adierazleak. Aurrerapen-datak, 2008ko edizioa.

⁵³ Egokitasun-tasek eskolatzean aurrerakuntza egokia duten ikasleak adierazten dituzte (euren adinari dagokion ikasturtea egiten duten ikasleak).

187. laukia - Bigarren Hezkuntzako Bigarren Etapan eta Goi Hezkuntzan sartzeko tasa gordina, 2005/2006 ikasturtean ⁵⁴				
	Batxilergoa	LHko eta Plastika Arteetako eta Diseinuko Maila Ertaina	Gizarte Bermeko Programak ⁵⁵	LHko eta Plastika Arteetako eta Diseinuko Goi Maila
GUZTIRA	57,1	28,3	8,5	24,3
Andaluzia	45,9	28,9	6,0	20,9
Aragoi	61,2	31,0	14,6	27,3
Asturias	68,2	32,2	8,9	31,0
Balearrak	47,9	21,7	7,2	12,0
Kanariak	52,4	30,4	9,6	24,7
Kantabria	61,9	36,8	6,7	29,3
Gaztela eta Leon	67,4	30,9	15,7	27,5
Gaztela-Mantxa	56,8	22,0	7,9	15,1
Katalunia	60,4	32,5	6,9	27,8
Valentziako Erkidegoa	53,0	29,8	4,9	23,6
Extremadura	55,2	25,3	6,6	15,6
Galizia	64,7	32,3	8,6	30,2
Madril	63,8	19,8	9,1	22,1
Murtzia	54,9	22,8	15,4	20,0
Nafarroa	61,8	26,6	12,1	26,5
EAE	74,7	33,0	14,0	45,4
Errioxa	59,4	33,5	13,1	26,8
Ceuta	49,1	27,4	46,6	30,6
Melilla	56,0	36,1	17,4	23,8

Iturria: HKM: Espainiako hezkuntzako zifrak. Estatistika eta adierazleak. 2008ko edizioa.

⁵⁴ Arloak ez dira baztertzailak, eta ikasle batzuek irakaskuntza horietariko bat baino gehiago egiten dute eskolatzeko-aldian.

⁵⁵ Andaluziarako, Kataluniarako eta Valentziako Erkidegorako kalkulaturiko zifrak.

7.9.3. Unibertsitatean sartzeko probak.

188. Iaukia - NUPeko Selektibitateko Probak. Aukeren araberrako kalifikazioen laburpena. 2007. urtea												
Aukera	Ikasleak		Ehunekoak		Proben b.b.		Espedientearen b.b.		Gainditu dutenak guztira		Gainditu dutenen %	
	Ek.-07	Ir.-07	Ek.-07	Ir.-07	Ek.-07	Ir.-07	Ek.-07	Ir.-07	Ek.-07	Ir.-07	Ek.-07	Ir.-07
A - Zientzia-Teknologia	653	107	%30,70	%25,85	5,898	4,499	7,118	5,805	614	74	%94,03	%69,16
B - Osasun Zientziak	635	101	%29,85	%24,05	6,103	4,730	7,058	5,705	598	64	%94,17	%63,37
C- Humanitateak	164	47	%7,71	%11,19	6,337	4,898	6,930	5,827	159	40	%96,95	%85,11
D- Gizarte Zientziak	626	142	%29,43	%33,81	6,128	4,570	6,800	5,734	605	105	%96,65	%73,94
E - Arteak	49	23	%2,30	%5,48	5,272	5,175	6,453	5,837	45	20	%91,84	%86,96
Guztira/B. bestekoak	2.127	420	%100	%100	6,046	4,660	6,977	5,761	2.021	303	%95,02	%72,14

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

189. Iaukia - NUPeko Selektibitateko Probak. Aukeren araberrako kalifikazioen laburpena. 2008. urtea												
Aukera	Ikasleak		Ehunekoak		Proben b.b.		Espedientearen b.b.		Gainditu dutenak guztira		Gainditu dutenen %	
	Ek.-08	Ir.-08	Ek.-08	Ir.-08	Ek.-08	Ir.-08	Ek.-08	Ir.-08	Ek.-08	Ir.-08	Ek.-08	Ir.-08
A - Zientzia-Teknologia	647	106	31,21	28,88	6,076	4,466	7,096	5,797	617	71	95,36	66,98
B - Osasun Zientziak	620	71	29,91	19,35	6,261	4,570	7,098	5,723	599	45	96,61	63,38
C- Humanitateak	172	31	8,30	8,45	6,073	4,734	6,585	5,693	167	23	97,09	74,19
D- Gizarte Zientziak	595	151	28,70	41,14	5,984	4,545	6,735	5,760	559	92	93,95	60,93
E - Arteak	39	8	1,88	2,18	5,549	4,985	6,402	6,403	39	5	100,00	62,50
Guztira/B. bestekoak	2.073	367	100,00	100,00	6,095	4,553	6,938	5,772	1.981	236	95,56	64,31

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

190. Iaukia - 25 urtetik gorako ikasleen sarrerra, 2008ko ekainean eta irailean			
	Ikasleak		Ehunekoak
	Matrikulatu	Gainditu	
25 urtetik gorakoak	24	13	54,16

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

191. laukia - NUPeko Selektibitateko Probak. Kalifikazioen laburpena arloen arabera. 2008								
	Aurkeztutako ikasleak		B. bestekoa probetan		Gainditu dutenak		G. dutenen ehunekoa	
	Ek.-08	Ir.-08	Ek.-08	Ir.-08	Ek.-08	Ir.-08	Ek.-08	Ir.-08
Biologia	643	101	6,130	4,786	481	49	74,81%	48,51
Lurra eta Ingurumena	189	38	6,362	6,001	158	27	83,60%	71,05
Marrazketa Artistikoa II	49	23	5,592	5,717	35	16	71,43	69,57
Marrazketa Teknikoa	354	62	6,024	5,467	237	41	66,95	66,13
Ekonomia eta Enp. Antolam.	511	107	6,0279	4,644	388	45	75,93	42,06
Elektroteknia	3	1	5,817	-	2	0	66,67	0
Filosofia	1.276	248	6,145	5,382	1.039	164	81,43	66,13
Frantsesa	46	5	7,111	5,750	42	3	91,30	60,00
Diseinuaren Oinarriak	33	19	6,606	5,526	30	16	90,91	84,21
Fisika	662	110	4,905	2,640	334	10	50,45	9,09
Geografia	649	153	6,018	4,089	528	46	81,36	30,07
Grekoa II	85	22	7,108	4,821	71	10	83,53	45,45
Musikaren Historia	37	7	6,711	5,543	35	6	94,59	85,71
Historia	731	156	5,918	5,200	543	97	74,28	62,18
Artearen Historia	244	80	6,066	4,848	184	47	75,41	58,75
Irudia	1	399	5,000	4,155	1	132	100	33,08
Ingelesa	1.961	-	6,329	-	1.456	-	74,25	-
Latina II	234	65	6,581	5,190	191	36	81,62	55,38
Gaztelania eta Literatura	2.007	404	5,773	4,819	1.507	212	75,09	52,48
Euskara	535	97	6,857	5,833	504	72	94,21	74,23
Matematika GGZZ aplikatuta	631	142	6,676	4,861	498	67	78,92	47,18
Matematika II	983	158	5,640	4,524	644	68	65,51	43,04
Kimika	796	133	5,628	4,036	516	42	64,82	31,58
Teknologia Industrial II	22	3	7,839	5,333	21	3	95,45	100,00
Adierazpen Teknika Graf.	14	4	5,536	3,750	8	1	57,14	25,00

192. laukia - NUPeko Selektibitateko Probak. Kalifikazioen laburpena arloen arabera. 2008								
	Aurkeztutako ikasleak		B. bestekoa probetan		Gainditu dutenak		G. dutenen ehunekoa	
	Ek.-08	Ir.-08	Ek.-08	Ir.-08	Ek.-08	Ir.-08	Ek.-08	Ir.-08
Biologia	624	72	5,890	3,976	442	21	70,83	29,17
Lurra eta Ingurumena	193	25	6,186	6,168	152	20	78,76	80,00
Marrazketa Artistikoa II	39	8	5,654	4,857	34	5	87,18	62,50
Marrazketa Teknikoa	374	56	5,868	4,155	268	15	71,66	26,79
Ekonomia eta Enp. Antolam.	494	123	5,512	4,237	303	40	61,34	32,52
Elektroteknia	10	1	7,473	3,400	9	0	90,00	0,00
Filosofia	1.331	219	6,440	5,668	1.174	157	88,20	71,69
Frantsesa	36	2	7,169	6,000	33	2	91,67	100,00
Diseinuaren Oinarriak	28	5	6,268	5,750	27	4	96,43	80,00
Fisika	663	107	4,791	3,146	310	22	46,76	20,56
Geografia	611	156	5,542	4,644	422	70	69,07	44,87
Grekoa II	83	17	6,235	4,412	61	7	73,49	41,18
Musikaren Historia	57	6	6,505	4,417	48	3	84,21	50,00
Historia	656	138	6,058	4,720	492	74	75,00	53,62
Artearen Historia	241	49	6,014	4,702	184	26	76,35	53,06
Irudia	1	-	6,500	-	1	-	100,00	-
Ingelesa	1.951	355	6,355	4,792	1.433	166	73,45	46,76
Latina II	238	47	6,373	4,358	191	19	80,25	40,43
Gaztelania eta Literatura	1.987	357	6,122	5,035	1.658	203	83,44	56,86
Euskara	502	98	6,556	6,114	453	82	90,24	83,66
Matematika GGZZ aplikatuta	604	152	6,463	3,446	468	36	77,48	23,68
Matematika II	978	143	6,253	4,049	727	54	74,34	37,76
Kimika	783	107	5,846	3,335	519	18	66,28	16,82
Teknologia Industrial II	16	4	7,469	6,550	16	3	100,00	75,00
Adierazpen Teknika Graf.	10	3	5,300	3,667	9	1	90,00	33,33

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

193. laukia - NUPeko Selektibitateko Probak. Kalifikazioen laburpena, hizkuntza-ereduaren arabera (2008).								
	Matrikulatu		Aurkeztu		Gainditu		G. dutenen %	
	Ek.-08	Ir.-08	Ek.-08	Ir.-08	Ek.-08	Ir.-08	Ek.-08	Ir.-08
Gaztelaniazko lerroa euskararekin	94	12	94	12	91	11	96,81	91,67
Euskarazko lerroa gaztelaniarekin	408	86	408	83	386	46	94,61	55,42
Gaztelaniazko lerroa	1.485	259	1.480	252	1.420	173	95,95	68,65

Iturria: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

194. laukia - Selektibitateko Probak. Gainditu duten ikasle-ehunekoaren bilakaera, matrikulaturiko ikasle guztiei dagokienez, Espainiako estatu osoan						Nafarroako emaitzak
Deialdiak	Urteak					2008
	2003	2004	2005	2006	2007	%
Ekaina	87,15%	88,52	89,34	89,87	89,45	95,56
Iraila	63,19%	63,92	66,16	68,22	68,12	64,31
25 urtetik gorakoak	51,85%	51,11	55,23	55,96	45,11	54,16
Guztira	79,20%	79,98	81,60	82,69	80,57	90,50 ⁵⁶

Iturria: Estatuko Eskola Kontseilua eta geuk landuta.

7.9.4. Goraipamen eta sari bereziak.

Ikasleei zuzendutako lehiaketak eta sariak.

Batxilergoko sari bereziak

Urtero, ikasturtea amaitu ondoren, Nafarroako Foru Erkidegoak Batxilergoko Sari Bereziatarako deialdia egiten du, Batxilergoko bi mailetan batez beste 8,75eko kalifikazioa edo hortik gorakoa atera duten ikasleentzat.

Batxilergoko Sari Nazionalak sortu dituen 1999ko abenduaren 13ko Aginduaren arabera (oinarriak ezarri dituen agindua), erkidego bakoitzak 1.000 ikasleko edo 500 matrikulatutik gorako zatiki bakoitzeko (Batxilergoko bigarren mailan, deialdiko urtean) sari bat eman dezake. Horrela, Foru Erkidegoak lau Sari Berezi eman ditzake, baina espediente akademikoko eta probetako eskakizun mailaren eraginez, zenbait kasutan balizko sari horietariko batzuk hutsik gera daitezke.

Batxilergoko 2008ko Sari Berezia jaso duten ikasleak honako hauek izan dira:

Goizane Ros Bernaola	Iruñeko San Fermin ikastola
Iosune Baraibar Argota	Iruñeko Luis Amigó ikastetxea
Jaime Agudo Canalejo	Iruñeko San Cernin ikastetxea
Iván Juarros Aranguren	Iruñeko Plaza la Cruz BHI

Sari Bereziaren jasotzaileek Batxilergoko 15 Nazio Sarietariko bat lor dezakete; sariok Hezkuntza Ministerioak ematen ditu urtero, "Batxilergoko edozein modalitate egin duen ikasleen aprobetxamendu berezia saritzeko".

Iruñeko Plaza la Cruz BHIko Iván Juarros Aranguren ikasleak, urte horretan, Batxilergoko Nazio Saria lortu zuen; kalifikaziorik onena atera zuen, autonomia-erkidego bakoitzeko espedienterik onenei apirilean egiten zaien proban.

Florencio de Ansoleaga saria

Florencio Ansoleaga saria Iruñeko arkitekto horren (1846-1916) omenez sortu zen, 1917an; hiriko zenbait eraikin enblematiko eraiki zituen. Berak esandakoaren arabera, bere izena duen fundazioaren errentetatik berrehun pezeta eman behar zaizkie Irakasle Eskola Arrunteko (gaur egun, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakasle Diplomatura) espediente akademikorik onena duten bi tituludunei

⁵⁶ Ehunekoa aldatu egiten da, gainditu duten ikasleen ehunekoa aurkeztu direnen ehunekoari dagokionez kalkulatu gero. %90,94.

(gizona eta emakumea), baita garai hartan Iruñean zegoen institutu bakarreko (Plaza de la Cruz) Batxilergoko espediente akademikorik onena duen ikasleari ere.

Sariko berrehun pezetako zuzkidura ez da aldatu 1917tik (aurten bi euro izango dira), eta lehen diruaren aldetik garrantzitsua zen sari bat sari sinbolikoa da orain; beraz, Hezkuntza Sailak saria kontserbatu eta, gainera, 300 euro balio duen material bibliografikoarekin osatu du.

Florencio de Ansoleaga saria honako hauek jaso dute 2007an:

Edurne Samaniego Ochoa, NUPeko Irakasle Diplomaturagatik.

Raquel Azcona Andueza, Plaza de la Cruz BHIko Batxilergoko espedienterik onena edukitzeagatik.

Hispanoamerikako ortografia-lehiaketa

Lehiaketa hau 2000n egin zen lehenengoz, eta Amerika Latinoko herri guztiei gonbita egin zitzairen parte hartzeko. Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak gonbita egin ziren Autonomia Erkidegoei, Ceutari eta Melillari, nazio mailako lehiaketa batean parte hartzeko ikasle bat aukeratzeko; lehiaketa horretatik, Espainiako ordezkaria aterako da nazioarteko finalerako.

Lehiaketan Batxilergoko 2. mailan matrikulaturiko ikasleek hartuko dute parte. Lehiaketak elkarren atzeko 3 fase ditu: ikastetxean bertan, Autonomia Erkidegoan eta Espainiako finalean.

Probak epai-mahaiak hautagaiei proposaturiko jarraibideen arabera garatzen dira, ortografia-zailtasun gero eta handiagoarekin; idazketa zuzena egiten duten hautagaiak hurrengo errondetarako sailkatuta geldituko dira, harik eta lehenengo sailkatua nor den zehaztu arte.

Sailkapenik onena lortzen duen lehiakidea Nafarroako Foru Erkidegoaren ordezkaria da, lehiaketaren nazio-fasean.

Aurten irabazlea Tuterako Valle del Ebro BHIko Pablo Robles Libedinsky izan da.

Espainiako fasean lehenengo eta bigarren postuan sailkatzen diren ikasleentzako sariak 1.500 eurokoa eta 900 eurokoa dira, hurrenez hurren. Lehenengo postuan gelditzen den ikaslea Espainiako ordezkaria izango da, nazioarteko finalean, herri antolatzaileak gonbidatuta.

Olinpiadak

Fisika eta Matematikako Olinpiadak Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatzen ditu. Proba horietan problema nahiko zailak konpondu behar izaten dira; bertan, ezagupenak ez ezik, ikasleek trebetasuna ere erakutsi behar izaten dute.

Fisika Olinpiadaren irabazleak:

Imanol Flamarique Hederá, Iruñeko Basoko BHI

José M^º González de Echávarri Gómez, Iruñeko Irabia ikastetxea

Iñigo Calabuig Goena, Iruñeko El Redín ikastetxea

Matematikako Olinpiaden irabazleak:

Miryam Aranzadi De Miguel, Iruñeko San Ignacio ikastetxea

Imanol Flamarique Hederá, Iruñeko Basoko BHI

Miguel Hernández Serrano, Iruñeko San Ignacio ikastetxea

Biologiako Olinpiadak Nafarroako Unibertsitateak antolatzen ditu. Proban test motako 75 galdera egin dira; aukerako bost erantzun eskaini dira, baina bat bakarrik izan da egiazkoa; garapeneko beste galdera bat ere egon da, berdinketa egotekotan soilik zuzentzen dena. Galderak Batxilergoko lehenengo eta bigarren mailako gaiei buruzkoak dira.

Biologiako Olinpiadaren irabazleak:

Imanol Martínez Salas, Iruñeko Sagrado Corazón ikastetxea

Charles Breeze, Iruñeko Irabia ikastetxea

Andrea Urtasun, Iruñeko Cardenal Larraona ikastetxea

Kimikako Olinpiada HZMk antolatzen du, Espainiako Kimikarien Nazio Elkartearekin eta Espainiako Kimikako Errege Elkartearekin lankidetzan. Hemen Aragoiko eta Nafarroako Kimikarien Elkargoak antolatzen du, eta fase autonomikoan probak Zaragozan egiten dira, NUPeko Kimika Aplikatua sailarekin lankidetzan.

Kimikako Olinpiadaren irabazleak

Sheila Cantero Flores, Iruñeko Plaza de la Cruz BHI

Adrián Gomez Torrent, Iruñeko Iturrama BHI

Héctor Narváez Abaurrea, Iruñeko Plaza de la Cruz BHI

Probetako fase autonomikoetako irabazleak nazio-fasera igarotzen dira, eta hori urte bakoitzean Espainiako hiriburu batean izaten da.

Ramón y Cajal saria

Petilla de Aragoneko Udalak diziplina anitzeko lehiaketa baterako deialdia egiten du urtero, herri horren eta bertako semerik ospetsuena den Santiago Ramón y Cajal jaunaren historia jakinarazteko. Ikasturte honetan, diziplina anitzeko VI. lehiaketa egin zen, "Petilla de Aragon, ezagutzeko eta ikertzeko Nafarroako enklabea".

Lehiaketan hiru modalitate ezartzen dira:

1. Petilla de Aragoneko udalerriko edozein alderdiri buruzko artelanik onenei (marrazkiak, collagea, eskulturak, etab.) emandako sariak, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko eta DBHko 1.nahiz 3. zikloetako ikasleentzat.
2. Idatzizko lanik onenei emandako sariak; jatorrizkoak edo argitaratu gabeak izan daitezke, baldin eta Petilla de Aragon udalerriarekin edo Santiago Ramón y Cajal jaunaren obrarekin zerikusirik badute; DBHko eta Batxilergoko ikasleentzat dira.
3. Idatzizko lanik onenei emandako sariak; jatorrizkoak edo argitaratu gabeak izan daitezke, baldin eta Petilla de Aragon udalerriarekin (historia, artea, inguru fisikoa eta naturala, etab.) edota Santiago Ramón y Cajal jaunaren bizitzarekin nahiz obrarekin zerikusirik badute; erretirodunentzat edo erretiroa aldeztatik hartu dutenentzat dira.

Ikastetxe bakoitzak (publikoa edo pribatua) nahi beste lan aurkeztu ahal ditu, proposaturiko gaiei buruz; lanok taldeka edo banaka egindakoak izan daitezke, eta irakasle batek zuzendu eta gidatu ahal ditu. Erretirodunek edo erretiroa aldeztatik hartu dutenek aurkezturiko lanak banakakoak dira.

Modalitate bakoitzerako bi sari daude: lehenengo saria 350 € eta diploma, eta bigarrena 250 € eta diploma.

Curriculum Diseinuko Negoziatua epaimahaiko kidea da, eta sari-banaketa Santiago Ramón y Cajalek Petilla de Aragonen duen museo-etxeko jendaurreko egintza batean egiten da.

Lanbide Heziketa:

	ME	GM	Guztira
Eskabide kopurua	23	49	72
Sari kopurua	6	14	20
Familia kopurua	6	14	20
Ikastetxe kopurua	4	10	14

8. EUSKARA NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMAN

8.1. Ikasleen banaketa hizkuntza-ereduen arabera, 2007/2008 ikasturtean

8.1.1. Nafarroako banaketa orokorra

Beheko laukian ageri diren ehunekoek Nafarroan matrikulaturiko ikasleek hizkuntza ereduen arabera duten banaketa adierazten dute, etapak, hezkuntza-sareak eta hizkuntza-zonak kontuan hartuta. Ehunekoak 2007/2008an Haur, Lehen nahiz Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan matrikulaturiko ikasle guztiei buruzkoak dira.

Nafarroako %		HH		LH		BH		Batxilergoa		Guztira
		Publ.	Prib.	Publ.	Prib.	Publ.	Prib.	Publ.	Prib.	
Zona Mistoa %60,89	D	3,26	0,98	5,47	1,9	2,55	1,25	1,22	0,2	16,83
	A	1,93	1,16	4,19	2,18	1,45	0,39	0,38	0,05	11,73
	G	1,05	4,6	3,25	7,97	4,03	6,4	1,67	2,43	31,4
	Br	0,67	0	0,26	0	0	0	0	0	0,93
Zona Ez-euskald. %31,19	D	0	0,35	0	0,63	0	0,3	0	0	1,28
	A	2,21	0,26	3,72	0,29	0,75	0,09	0,08	0	7,4
	G	2,95	1,11	6,9	1,89	5,32	1,48	1,5	0,85	22
	Br	0,17	0	0,34	0	0	0	0	0	0,51
Zona Euskalduna %7,92	D+B	1,53	0,29	2,37	0,59	1,38	0,25	0,45	0	6,86
	A	0,13	0,05	0,32	0,13	0,23	0,11	0,07	0	1,04
	G	0	0	0	0	0,02	0	0	0	0,02
Gutzizkoak	D+B	4,79	1,62	7,84	3,12	3,93	1,8	1,67	0,2	24,97
	A	4,27	1,47	8,23	2,6	2,43	0,5	0,53	0,05	20,08
	G	4	5,71	10,2	9,86	9,41	7,88	3,17	3,28	53,51
	Br	0,84	0	0,6	0	0	0	0	0	1,44
Guztira		13,9	8,8	26,87	15,58	15,77	10,18	5,37	3,53	100

Iturria: Euskara Atala

Ikasleen %53,51 G ereduaren daude eskolatuta, eta %24,97 D+B ereduaren (B ereduaren zona euskaldunetan baino ez da ematen, eta ikasle oso gutxi ditu); A ereduaren ikasleen %20,08 dabilta, eta ingeleseko Br ereduaren ikasle guztien %1,44.

Banaketa hau, hezkuntza-etapa bakoitzari dagokionez, ondoren adierazitakoaren arabera zehaztu ahal da:

196. laukia - Ikasleek hizkuntza-ereduen eta hezkuntza-etapen arabera duten banaketa, 2007/2008 ikasturtean				
Etapen %	H. Hezkuntza	L. Hezkuntza	DBH	Batxilergoa
G	42,74	47,20	66,50	72,74
Br	3,67	1,41	0,22	0
D+B	28,34	25,90	21,75	21,82
A	25,25	25,49	11,53	5,44

Iturria: Euskara Atala

8.1.2. Hezkuntza-sareen araberako banaketa

Sare publikoan matrikulatoriko ikasleak ikasle guztien %61,91 dira, eta itunpeko sarean, berriz, ikasle guztien %38,09 daude eskolatuta.

Hizkuntza-ereduen araberako banaketak, sare publikoan eta itunpeko sarean, honako ezaugarri hauek ditu:

- G ereduak nagusitasun handia dauka itunpeko sarean, sare horretako ikasle guztien %70,18arekin. Irakaskuntza publikoan ehuneko hori ikasleen %43,26ra jaisten da.
- A ereduari dagokionez, sare publikoan eskolaturiko ikasleen ehunekoa %24,97koa da, eta itunpeko sarean, berriz, ikasleen %12,1ekoa.
- D ereduari dagokionez, sare publikoan eskolaturiko ikasle guztien %29,44 eredu horretan dabil, eta itunpeko sarean, ostera, ehunekoa %18,23koa da.
- Azkenik, ingeleseko irakaskuntza-ereduetan, Br eredu gorantz doa irakaskuntza publikoan, eta sare horretako ikasle guztien %2,33 ari dira eredu horretan ikasten.

8.1.3. Hizkuntza-zonen araberako banaketa.

Zona mistoan ikasleen %60,89k ikasten dute; zona ez-euskaldunean %31,19k eta zona euskaldunean %7,92k.

Hezkuntza-sareek ikasle-ehuneko aldagarria eskolatzen dute, hizkuntza-zona horietan.

Zona mistoan, sare publikoan ikasleen %51,54 daude eskolatuta, eta itunpeko sarean, berriz, ikasleen %48,46.

Zona ez-euskaldunean, sare publikoan ikasleen %76,82 dago eskolatuta, eta itunpeko sarean zonako ikasleen %23,18.


Zona euskaldunean, sare publikoan ikasleen %82,07 daude eskolatuta, eta itunpeko sarean, ostera, zonako ikasleen %17,93.

Zona Mistoa:


G ereduan zonako ikasle guztien %51,57 biltzen dira, eta ingeleseko ereduetan, berriz, ikasleen %1,53. Eredu horietan haur-hezkuntzako ikasleen %46,30, lehen hezkuntzako %45,52, DBHkoen %64,90 eta Batxilergoko ikasleen %68,91 matrikulatzen dira.

D ereduan zona mistoko ikasle guztien %27,64 biltzen dira. Haur-hezkuntzan ikasleen %31,06 eskolatzen da, DBHkoen %29,22 eta Batxilergoko %23,86.

Zona honetan, A ereduan ikasleen %19,26 dabil. Haur-hezkuntzan ikasleen %22,64, lehen hezkuntzan %25,26, DBHn %11,45 eta Batxilergoan %7,23.



Zona Ez-euskalduna:



G ereduan zonako ikasleen %70,54 dabilta eta ingeleseko ereduetan %1,63. G ereduan haur-hezkuntzako ikasleen %57,59 matrikulatzen dira, lehen hezkuntzako ikasleen %63,83, DBHkoen %85,64 eta Batxilergoko %96,71.

D ereduan zonako ikasleen %4,1 dago eskolatuta. Haur-hezkuntzan ikasleen %4,96, lehen hezkuntzan ikasleen %4,58, DBHn %3,78, zona ez-euskalduneko ikasle guztiei dagokienez. Batxilergoan ez dago D eredurik.


Zona honetan, A ereduan ikasleen %23,73 dabil. Haur-hezkuntzan ikasleen %35,04, lehen hezkuntzan %29,12, DBHn %10,58 eta Batxilergoan %3,29 baino ez.

Zona euskalduna:

Zona honetan ez dago G eredurik, euskara hizkuntza ofiziala delako eta maila guztietan ikasten delako.

Zonako ikasle guztien %86,84 D eta B ereduetan dabil. Haur-hezkuntzan ikasleen %91 dabil, lehen hezkuntzan %86,8, DBHn %82,74 eta Batxilergoan %86,54, zona euskalduneko ikasle guztiei dagokienez.

Zona honetan A ereduan ikasleen %13,16 dabil. Haur-hezkuntzan %9 eredu honetan eskolatzen da, lehen hezkuntzan %13,2, DBHn %17,26 eta Batxilergoan %13,46.



8.2. Euskararen irakaskuntza garatzeko eta arautzeko jarduerak.

Hizkuntza-ereduaren aldaketak

Nafarroako unibertsitatetik kanpoko irakaskuntzan euskara sartzea eta erabiltzea arautu duen maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, ikasketak euskaraz edo euskara ikasgaitzat hartuta hasten duten ikasleak ildo horretatik jarraitu beharko dute eskolatze osoan; ondoren egin daitezkeen aldaketak, berriz, arauz ezarritakoaren arabera, eskatu, onartu edo ukatuko dira.

Arauzko garapenean ezarritakoa kontuan hartuta, hezkuntzako maila edo etapa bat amaitzean egin daiteke eredia aldatzeko eskabidea, baldin eta arazo psikopedagogiko larriak badaude; baita bizilekua edo ikastetxea aldatzen denean ere, azken horretan lehengo eredurik egon ezean. Haur-hezkuntzan eskaturiko aldaketak berez onartzen dira, hezkuntza-etapa hori ez baita derrigorrezkoa. 2007ko uztailaren 1etik 2008ko ekainaren 30era, 1.365 eskabide tramitatu dira; horietatik 1.230 onartu eta 55 ukatu egin dira; gainera, zona euskaldunean euskara ikasteko 80 salbuespen eman dira.

197. laukia - Hizkuntza-eredua aldatzen duten ikasleen bilakaera, 2004/2005etik 2007/2008rako ikasturteetan				
	2004/2005	2005/2006	2006/07	2007/2008
Zona euskalduna	20	10	29	29
Zona mistoa	539	562	697	684
Zona ez-euskalduna	510	423	493	517
Guztira	1.069	995	1.219	1.230
A eredutik G eredura	806	813	965	977
G eredutik A eredura	83	86	108	109
D eredutik G eredura	110	42	69	72
D eredutik A eredura	48	38	59	59
A/G eredutik D eredura	22	14	9	13
Beste batzuk	0	1	9	0

Iturria: Euskara Atala

Hizkuntza-ereduen baimena

2007/2008an baimena eman zen D eredia Orkoieneko San Migel ikastetxean emateko, eta A eredia Zizur Nagusiko Catalina de Foix ikastetxe berrian emateko.

Garraiorako eta jantokirako laguntzak, hizkuntza-eredua aukeratzearen ondorioz

Deialdia euskara sustatzeko eta bultzatzeko printzipioa betez garatzen da, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean ezarritakoaren arabera, eta hori apirilaren 13ko 85/1989 Foru Dekretuan ezarrita dago. 2007-2008 ikasturtean hemeretzigarren edizioa bete zuen. Eskabideak aurkezteko epea irailaren 1etik 30era dago irekita.

198. laukia - Garraiorako eta jantokirako laguntza, hizkuntza-eredua aukeratzearen ondorioz, 2003/2004tik 2007/2008rako ikasturteetan			
Ikasturtea	Onarturiko eskabideak	Zenbatekoa (euroak)	B. bestekoa
2003/2004	469	145.871	311,03
2004/2005	536	156.204	291,43
2005/2006	542	145.805	269,01
2006/2007	523	144.088	269,80
2007/2008	556	142.392	259,07

Iturria: Euskara Atala.

Euskarazko ikasgaien curriculuma

2007-2008 ikasturtean Euskararen curriculuma egin da, Batxilergoko etaparako, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa (HLO) aplikatuz, kontuan hartuta Nafarroako Foru Araubidearen Berrintegrazioari eta Hobekuntzari buruzko Lege Organikoko 47. artikuluan eta abuztuaren 31ko 1070/1990 Errege Dekretuan ezarritakoa; dekretu horren bidez, Estatuaren funtzioak eta zerbitzuak Nafarroara eskualdatzea onetsi da, unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan.

Bestalde, Euskara eta Literatura ikasgaien curriculumak egin dira, D eta A ereduarentzako. Horretarako, Ataleko teknikariek eta Euskararen irakaskuntzarako Baliabideen Zentroko (EIBZ) ahokulariek egin da lan.

Hizkuntza Batzordean koordinatu dira, Gaztelania eta Literatura eta Ingelesa ikasgaiekin. Curriculumak lantzeko ikuspegiaren helburua hizkuntza-ikasgaiak homogeneizatzea izan da, horien tratamendu integratua eta euren arteko eskumen-transferentzia sustatzeko. Horretarako, aintzat hartu dira gutxieneko irakaskuntzei buruzko Errege Dekretua eta Europako Parlamentuaren nahiz Funtsezko Gaitasunei buruzko (bitzita osoan zeharreko ikaskuntzarako gaitasunak) Batzordearen 2005/0221 Gomendioa.

Halaber, Europako Erreferentziako Esparru Komunaren adierazpenak ere (hizkuntzen irakaskuntzarako, ebaluaziorako eta ikaskuntzarako) oinarritzat erabili dira.

Hizkuntza batzordea

2007-2008 ikasturtean, irakasleen prestakuntzari ekin zaio, irakurritakoa ulertzeko eta idazteko ikastaroetan, era berean, zenbait ikastetxetan moduluak egin dira curriculumeko hizkuntzen (gaztelania, euskara eta ingelesa) tratamendu integraturako jarduerak orientatzeko, eta, horrela, hizkuntza-komunikazioko gaitasunen transferentzia erraztu ahal izateko.

Materialen sorkuntza

Ikasturte honetan, editaturiko edo lortutako material nagusiak honako hauek izan dira:

- **Araugintza.**

Euskaltzaindia Irakasleen prestakuntzako bi ikastaroko materiala jasota duen liburua eta CDa dira; Euskararen irakaskuntzarako Baliabideen Zentroan (EIBZ) ematen da, eta Euskaltzaindiak euskararen erabilerarako sortu dituen arauak lantzen ditu.

- **Irakurketarekin Gozatuz.**

CD bat ere baduen liburu honetan, irakurmen ulerkerreko lan-esperientzia bat dago jasota; esperientzia hori A ereduko Lehen Hezkuntzako ikasleekin egin zen, lau ikastetxetan. Egileak A ereduko lau irakasle dira; horiek berrikuntza pedagogikoko esperientzia hau asmatu eta euren ikastetxeetan aplikatu dute.

- **Lenarriak VII.**

Liburu eta DVD hauean, 2007ko eta 2008ko Literaturaren, Etnografiaren, Deklamazioaren, Antzerkiaren eta Bertsoen arloko eskola-lehiaketetan egindako lanak daude bilduta.

Liburua bi urtez behin argitaratzen da, eta lehenengo aleak Hezkuntza Ministerioaren edizio-saria jaso zuen.

- **Hitzen Kutxa: maila nagusia.**

Cenlit argitaletxeari eskuraturiko lana; liburuan garai desberdinetako Euskal Literaturako testuak daude bilduta, baita zenbait egilek egindako iruzkinak ere. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan banatzen da.

- **Haur Kantarien Jaialdiko finalistak.**

Haur Kantarien Jaialdiak Hezkuntza Sailaren finantziazioa dauka; antolatzaileek sorturiko DVDan haur- eta gazte-kantuko 2008ko lehiaketako finalisten jarduketan grabazioak daude jasota. 350 ale eskuratu dira ikastetxeetan banatzeko.

- **“Ni ere bertsolari” liburua**

Bertsolaritzako programaren barruan, ikaslearen liburu bat editatu da; liburu horrek ahozko komunikazioarekin lotutako testuetako unitate didaktikoak eta hitzaldiak jasotzen ditu: komikiak, irrati-gidoia, txistek, etab. Koaderno hau 2007-2008 ikasturtean erabili da lehenengoz, eta bertsolariek eta ikasleek nahiz irakasleek horri buruzko balorazio ona egin dute.

Gainera, Nafarroako hiru eremu geografikotan (Iparraldea, Arroa eta Ekialdea) 2007-2008ko eskolako bertsolaritza-jardueran parte hartu duten ikasle taldeen lana biltzen duten hiru koadernotxo ere editatu dira.

- **Hezkuntza-berrikuntzako esperientziak (2006).**

Berako Ricardo Baroja nahiz Zizur Nagusiko Erreniega ikastetxe publikoetan 2006ko edizioan sarituriko hezkuntza-berrikuntzako esperientziak biltzen dituen DVDa da; gainera, Arantzako, Etxalarreko eta Igantziko ikastetxeetako baterako esperientzia bat ere jasotzen du.

- **EIBZko web orriko eta programetako informazioko liburuxkak eta triptikoak.**

Ataleko programei buruzko informazioa emateko, informazio-liburuxkak editatu dira:

Euskararen Irakaskuntzarako Baliabideen Zentroak (EIBZ) irakasleen erabilera eta lorpen handiagoa edukitzeko editatu diren material guztiak jarri ditu bere web orrialdean. Gainera, hobekuntza-ikastaroetan emandako informazioa CDetan bildu da.

Heziketa Teknikoa

Ikasturte honetan, Euskara Ataleko teknikariek nahiz aholkulariek eta EIBZko aholkulariek, Iruñeko eta Lekarotzeko ILletako aholkulari batzuekin batera, heziketa-ikastaroak egin dituzte. Aipagarria da Elhuyar Aholkularitzak ikastetxeetako transformazio-prozesuei buruz emandako ikastaroa.

20 orduko ikastaroa izan zen, eta 5 orduko 5 bilkura izan zituen. EIBZn eman zen, maiatzaren 8an, 15ean, 22an eta 29an.

Helburua ikastetxeetan eskola-planifikazioko hezkuntza-proiektuetan lan egiten duten hezitzaileak hezte da.

8.3. Euskararen irakaskuntza irakasleei.

8.3.1. Euskararen irakaskuntza

Euskarazko birziklatze-ikastaro trinkoak, lan-lizentziarekin

Irakasleen 26 eskabide jaso dira, lan-lizentziako birziklatze-ikastaro trinkoetan parte hartzeko. Horietan, 16 eskabide onartu dira, maila egokiko baldintzak egiaztatu dituztelako eta kasu bakoitzean eskaturiko administrazio-egoera betetzen dutelako, dauden hiru modalitateetan:

A modalitatea:

Deialdi berezia. Partaideak irakaskuntza-lanetatik salbuetsita daude, eta B1 mailatik hasten dute ikaskuntza, C1-EGA maila lotzeko, 2008ko apirilaren 1etik 2009ko ekainaren 30era bitarteko aldian; gutxi gorabehera, 1.790 heziketa-ordu jaso dituzte.

Ikastaro kopurua: 1

Orduak guztira: 1.790

Inskribatuak: 5

B modalitatea:

Partaideak irakaskuntza-lanetatik salbuetsita daude ikasturte batean, gutxi gorabehera irailaren 1etik ekainaren 30era, eta 1.190 heziketa-ordu inguru jasotzen dituzte, B2 mailatik C1-EGA mailara.

Ikastaro kopurua: 1

Orduak guztira: 1.190

Inskribatuta: 5

C modalitatea:

Partaideak, gutxi gorabehera, irailaren 1etik urtarrilaren 31ra daude salbuetsita irakaskuntza-lanetatik, eta 475 heziketa-ordu inguru jasotzen dituzte C1-EGA mailan.

Ikastaro kopurua: 1

Orduak guztira: 475

Inskribatuta: 6

Euskara ikasteko ikastaro ez-trinkoak.

Ikasturte honetan deialdi bakarra egon da, 2007ko irailean, ikaskuntza-aldi bakarrarekin, irailetik maiatzera. Hala ere, plaza hutsak egon direnez, eta araudiari jarraituz, 2008ko urtarrilean ere inskripzio bereziko aldia ireki zen.

Partaidetzaren datuak honako hauek izan dira:

199. laukia - Euskara ikasteko ikastaro ez-trinkoak, 2007/2008 ikasturtean	
Aldia	Ikasleak
Irailetik urtarrilera	19
Otsailetik maiatzera	29
Guztira (irailetik maiatzera)	48

Iturria: Euskara Atala.

Euskara ikasteko banakako laguntzak

Diru-laguntza hauen bidez, erakunde pribatuek emandako ikastaroetarako laguntza ematen da, interesatuaren herrian edo eragin-aldean Administrazioaren mendeko ikastetxerik ez dagoenean. 4 eskabide tramitatu dira.

8.3.2. Irakasleen hizkuntza-hobekuntza

Euskarazko hizkuntza-hobekuntzako ikasturte trinkoa, lan-lizentzia partzialarekin.

Ikastaroaren helburuak parte hartzen duten irakasleen gramatika gaurkotzea eta testuen sorkuntza hobetzea dira, ahozkoa eta idatzizkoa. Ikastaroa bi fasetan banatutako moduluetan antolatuta dago. 150 orduko fase trinkoa, lan-lizentziarekin, eta 100 orduko fase ez-trinkoa, lan-lizentziarik gabe. Bi fase horiek ikasturte berean egin behar dira oso-osorik.

2007/2008 ikasturteko deialdian 20 plaza egon dira; 29 eskabide jaso eta 16 pertsonak hartu dute parte.

Lan-lizentziarik gabeko hizkuntza-hobekuntzako ikastaroak:

Uharteko Euskararen Irakaskuntzarako Baliabideen Zentroan (EIBZ) egiten dira, eta zentro hori Euskara Atalaren mendekoa da, gehienak baliabideen zentro horretako irakasle adituek ematen dituzte. Ikastaroen herena baino ez dute kanpoko adituek eta txostengileek ematen.

200.laukia - Euskarazko irakasleen prestakuntza-plana, 2007/2008 ikasturtean							
	Inskrib.	Onartuta	Ikast. kop.	Ordu kop.	Orduak guztira	Ziurtagiriak	
						Kop.	%
